



2016-04-08
EGUBAKOITZA
678. ZENBAKIA
16. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM

Arrasateko eta
Elgetako
gaztetxeak
ospakizunetan
murgilduta | IKUS 'HERRIAK'

Euskadiko
aerobik
txapelketa
Arrasaten
zapatuan | 13

Errefuxiatuendako laguntza
kanpainak abian dira | Ikus 'Herriak' saila



Osakidetzako pazienteei
euskara aukeratzeko gonbita | 3



100 korrikalari gehiago aurten
Arrasate-Udalatx lasterketan | 28

Aupa, Beñat!

Irujok eta Rezusta bergararrak binakako finala jokatuko dute bihar, zapatua, Olaizola II.aren eta Urrutikoetxearen kontra | 27



Bergarako Pilota Eskolako pilotari gazteak bertako Udal Pilotalekuan, herrikide duten Beñat Rezusta animatzen, eguaztenean. | XABI URZELAI

SINADURAK

	Naturaren izua 7 IRATITZIAR
	7 Pedalkada isilik XABI URZELAI
	Emakumeak musean 12 ITSASO ERRETOLATZA
	15 Indizea PEDRO GARITANO
	Mundu guztiak izena dauka eta zurea... 19 XABIER ETXEBERRIA
	23 Feminista naiz ION LIZARAZU
	Euskararen lurraldea 40 MIKEL IRIZAR

Espaloia Kafe Antzokiaren etorkizuna mahai gainean

Oraingo, ekintza puntaletarako erabiliko dute Elgetako antzokia | 10



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Mendi lasterketek gero eta zale gehiago eskualdean
- Koldo Zuazorekin euskalkien balioen gainean

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

Probatu

nola ikusiko duzun
lenteak izan aurretik

Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira

Nautilus, lenteak probatzeko errealitate birtualeko lehen aparailua Multiópticasen

www.multiópticasgipuzkoa.com

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS

lehena zerbitzu optikoetan

BEASAIN • EIBAR • DONOSTIA • ERRENTERIA • IRUN • LASARTE • TOLOSA • ORDIZIA

Aldaketa handirik gabe hasi da errenta aitorten garaia

Hilaren 11 ezkeronartu ahal izango dira autolikidazio proposamenak

LEIRE KORTABARRIA | DEBAGOIENA
2015eko errenta aitortzeko garaia hemen da. Joan den eguaztenetik, Ogasunaren webgunean, kanpainari dagokion atalean (www.gipuzkoa.eus/ogasuna/renta) ikus dezakete 200.000 zergadun baino gehiagok dagokien autolikidazio proposamena, eta astelehenean, hilak 11, hasita beratu onartu ahal izango dute.

Iaz bezala, onartu aurretik, telefonoz (902 100 040) edo Internetez aldaketak egin ahal izango

dituzte, datuak falta baldin badira. Iaz bezala, kontzeptu hauek aldatu ahal izango dira: etxebizitza errentan emateagatik lortutako etekinak, kuota sindikalaren kenkaria, dohaintzen kenkaria eta ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik aplikatutako kenkaria; eta gainera, lehenengo aldiz, lokalak errentan emateagatik lortutako etekinaren datua ere sartu ahal izango da.

Bestalde, lehen aldiz, proposamena onartzeko unean, posible

da zerga helbidearen aldaketa jakinaraztea. Beste berritasun bat da aukera ematen dela adierazteko ez direla postaz jaso nahi Ogasunak hurrengo kanpainetarako presta ditzakeen autolikidazio proposamenak.

Aitorpena Ogasunaren bulego baten aurkeztu nahi dutenek hilaren 15a ezkeronartu ahal izango dute txanda. Eta autolikidazio proposamena onartu nahi ez dutenek hilaren 19a ezkeronartu ahal dute txanda.

Kooperatibistendako araua

Aurtengo kanpainako alderdi garrantzitsuenak iazko berdinak dira eta Ogasunaren webgunetik deskarga daitekeen orri baten laburtuta daude. Bertan agertzen dira kenkari nagusiak, horien mugak, hobariak eta bestelako alderdi batzuk.

Kuotaren %0,7 zertara bideratu nahi den esateko hiru aukera izango dira: Eliza Katolikoa, interes sozialeko beste helburu batzuk, edo biak.

Aurtengo Foru Arauan, besteak beste, kooperatibistei dagokien aldaketa bat ontzat ematen da bertan: kooperatiba iraungi izanagatik birkokatu dituzten kooperatibisten EPSV bidezko diru-laguntzak salbuetsita geratzen direla PFEZen, kooperatiba berriko kapitalari ekarpenak egin ahal izateko. Langabeziaren kapitalizazioa salbuetsita zuten aurrez. 2014ko urtarrilaren 1etik dago indarrean, atzera begira, Fagor Etxetresnen kasua har dezan.

XABIER ZABALETA | OÑATIKO EUSKARA TEKNIKARIA

"Gero eta jende gehiagok egiten du errenta aitortpena euskaraz"

Arrasate, Bergara, Oñati eta Antzuolako udalek aitortpena euskaraz egiteko kanpaina abiarazi duzue.

Debagoieneko udalak zenbait urte doroago horretan; azken urteotan UEMAren batera egin izan du Oñatik. Errenta aitortpena egitea tokatzen den honetan, gogorazten gabiltza denok dugula aukera beratu euskaraz egiteko.

Nolako eskuorria prestatu duzue?

Batetik, oinarriko informazioa dakar. Agertzen dugu ere udalerririk bakoitzean zenbat aitorten egiten diren euskaraz; eta euskara-gaztelania hiztegitxo ere bai.

Etex etxe banatuko da, ezta?

Bai, Oñatin 4.500 etxetan banatuko da, eta eskualde guztian ia 20.000 eskuorri banatuko dira.

Euskaraz gai hauek "zailak" diren ustea dago.

Ematen du zenbaitek erreparoa dutela zergak euskaraz lantzeko, baina gaur egunean gauzak asko



erraztu dira: autolikidazioa egiteko aukera dago, eta hiztegiaren laguntzarekin ere termino batzuk euskaraz ikus daitezke.

Gora egin du aitortpena euskaraz egiten dutenen kopuruak.

Bai, bilakaera positiboa izan da. Oñatin, 2008ko aitortpena %11k egin zuten euskaraz, eta 2014koa, %26k. Urtero-urtero portzentaje horrek gora egiten du; espero dezagun pixkana-pixkana gero eta gehiago izango garela.

PREST
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

Martxel Garai
myGADE, 2.maila

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE · APIRILAK 21
OSTEGUNA, 17:30 / Aula Magna

ORONA IDEO · APIRILAK 30
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA · APIRILAK 16
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

OÑATI · APIRILAK 23
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

BILBAO · APIRILAK 30
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORATZA · APIRILAK 21
OSTEGUNA, 18:00 / Aula Magna

ARETXABALETA · APIRILAK 21
OSTEGUNA, 18:00 / Aula Magna

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · MAIATZAK 21
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

#erronkarakoprest

Gora egin du langabeziak, eta %10,90ekoa da orain

Martxoan 3.269 langaberekin bukatu da bailaran, otsailean baino 40 gehiago, Lanbideren arabera

J.B./L.K. | DEBAGOIENA

3.269 langaberekin eta %10,9ko langabezia tasarekin bukatu da martxoan Debagoienean, Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoaren datuen arabera.


Datuak 2016ko urtarrilekoak (%10,94) baino hobeak dira, baina otsailekoak (%10,77) baino kaskarragoak. 2015eko martxoan datuekin alderatuta, aurtengoak nahiko hobeak dira, bestalde. 2015ean, 3.707 langabe zeuden, eta langabezia tasa %12,44koa izan zen, martxoan. Antzuolan izan ezik, Debagoieneko beste herri guztietan hazi egin da langabezia tasa, 2016ko otsaileko datuekin alderatuta.

Datuak, herriz herri, honako hauek dira (otsaileko aldaketa parentesi artean ematen da):

Antzuola: 75 (-1), %6,91 (-0,09); Aretxabaleta: 289 (+2), %8,42 (+0,06); Arrasate: 1.480 (+9), %14,19 (+0,09); Bergara: 730 (+5), %10,46 (+0,07); Elgeta: 55 (+5), %9,27 (+0,84); Eskoriatza: 218 (+6), %10,77 (+0,3); Leintz Gatzaga: 5 (+1), %3,65 (+0,73); Oñati: 417 (+13), %7,84 (+0,24); Debagoiena: 3.269 (+40), %10,90 (+0,13).

Ezohiko martxoan Euskadin

Enplegu sailburu Angel Toñak martxoan datuen balorazioa egin zuen astelehenean. Besteak beste, nabarmendu zuen enpleguan saldo positiboa izan duen lehen martxoan dela krisia hasi zenez geroztik. Martxo amaieran, 153.936 langabe zeuden Lanbiden erregistratuta, otsailean baino 619 gutxiago (-%0,40). Orain %14,8 da langabezia-tasa.



Kanpainaren hainbat ordezkari aurkezpenean. | TXOMIN MADINA

'Osakidetzan nik euskaraz nahi dut' kanpaina abian da

Euskara lehentasunezko hizkuntza moduan hautatzera animatu nahi dituzte herritarrak

MAITE TXINTXURRETA | DEBAGOIENA
Osakidetzan nik euskaraz nahi dut izeneko kanpaina aurkeztu dute asteon, herritarrek osasun zerbitzu publikoan euskara euren lehentasunezko hizkuntza bezala eska dezaten animatzeko asmoz.

Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Oñatiko udalak, Loramendi, Jardun eta AED euskara elkarteak eta Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuak dira kanpainaren sustatzaileak.

Osakidetzak paziente guztien fitxa dauka, eta bertan jasotzen da, besteak beste, zein hizkuntzatan gura duten arreta jaso. Osakidetzak konpromisoa hartzen du lehentasunezko hizkuntzatza euskara aukeratu duten paziente guztiei profesional euskalduna esleitzeko, ahal den neurrian. Hala, euskara lehentasunezko hizkuntzatza aukeratzen dutenen fitxan profesionalak ikurtxo bat ikusiko dute, paziente euskaldunak identifikatzen laguntzeko.

Nola egin daiteke?

Arreta euskaraz jaso nahi dela adierazteko bideak hiru dira:

lehen aukera nor bere osasun zentroko harrerara hurreratzeari da; bigarrena, familia-medikuari edo erizainari adieraztea kontsulta batean; eta hirugarrena, Internet bidez, *Zure osasun karpeta*-n sartuta.

"Guretzako, asistentzia hobetzea da erronka, eta argi eta garbi ikusten dugu pazientearekin hurbiltasun hori lortzeko hizkuntza klabea dela", adierazi du Jose Maria Armentiak, Osakidetzako Giza Baliabideetako zuzendariak.

Kanpainaren euskarriak

Kanpainaren mezua Debagoienean zehar ahalik eta gehien zabaltzeko, batetik, orri markagailuak banatuko dituzte herri herri liburategietan, ikastetxeetan, osasun zentroetan eta bestelako gune publikoetan. Era berean, tokian tokiko euskara elkarteek ere gauzatuko dute kanpaina.

Horrez gain, spot bat egin dute, non herritar desberdinek euren esperientzia azaltzen duten; hain zuzen, <https://vimeo.com/160124141> helbidean dago ikusgai.

Sare sozialen bitartez ere zabalduko dute kanpaina.



Hirurogei pertsona inguru izan ziren martitzeneko agerraldian. | M.T.

Hilaren 17an Bilbon izango den manifestazioan parte hartzera dei egin dute Debagoieneko preso ohiek

Espetxeratuekiko "bortizkeria, jazarpena eta zigor erantsiak" salatu dituzte

M.T. | DEBAGOIENA

Debagoieneko hainbat preso eta iheslarik agerraldia egin zuten martitzenean Arrasateko Kulturaren, apirilaren 17an, Preso Politikoen Nazioarteko Egunean, hain zuzen, Bilbon euskal presoek etxeratzea eskatzeko egingo den manifestazioan parte hartzera dei egiteko.

Era berean, euskal gatazkaren funtsak "hor dirauela" adierazi zuten: "Estatu espainiarrak eta frantziarrak Euskal Herriari bere

geroa eraikitzeko aukera bahitu diote luzaroan". Madrildik eta Paristik preso eta iheslarien aurka "bortizkeria, jazarpena eta zigor erantsiak" erabiltzen dituztela ere salatu zuten.

Lege baliabideak

Preso eta iheslari ohiek babes eman zioten Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren erabakiari, non etxeratzea lortzeko lege baliabideak erabiltzea zilegitzat jo duten. Azpimarratu zuten legediaz

eta espetxe araudiak baliatzeak ez duela kolokan jartzen "[preso] haien guztien izaera militantea, garatutako bidearen balioa eta duintasuna".

Azpimarratu zuten, baina, pauso horiek erabaki kolektiboaren barruan garatu behar direla. Era berean, euskal gizartearen konpromisoa eskatu zuten. Hori dela eta, herritarrei dei egin zieten apirilaren 17an Bilbon burutuko den manifestazio nazionalan parte hartzera.

Eskoriatzako bidegorria berriro ere itxita, aldi baterako

M.T. | ESKORIATZA

Eskoriatzatik Aretxabaletarantz doan bidegorri zatia berriro ere dago itxita, lur-jausiak gertatzeko arriskua dela eta. Zehazki, Jose Arana egoitza paretik Intxaurtuetako oinezkoentzako pasabiderainokoa da itxita dagoen zatia; erabiltzaileek apur bat desbideratu beharko dute pasabidetik.

Martxo erdialdean lur-jausia izan zen bidegorrian, eta orain, pasa den astean izandako euriteen ondorioz, harri zati txikiak jausten ari dira azken egunotan. Horregatik, Udalak ixtea erabaki du, segurtasun neurri modura.

Azterketa baten beharra

Orain, konponketa modu eraginkorrean egiteko proiektua aztertzen ari da Gipuzkoako Foru Aldundia. Joserra Zubizarreta alkateak azaldu du esan dietela arazoak "azterketa sakon bat" eskatzen duela.

Ez dakite noiz berririkiko duten bidegorria: "Egun batzuetan seguru ezetz. Gainera, aste honetarako eguraldi nahiko eskasa iragarrita dago, eta azterketak egiteko lehenengo eskatzen dena egonkortasuna da". Zubizarretak herritarrei eskatu die bidegorriaren itxitura errespetatu dezaten.



Bidegorria itxita. | ENEKO AZURMENDI

Eguerdian nekazari-ibilgailuen IAT azterketak egingo dituzte Elgetan

M.T. | ELGETA

Gaur, apirilak 8, egubakoitza, traktoreen eta bestelako nekazari arloko ibilgailuen IAT-ITV azterketa teknikoak egingo dituz-

te Elgetako Udal Pilotalekuaren kanpoaldean, eguerdiko hamabietan hasita.

Horretarako, unitate mugikorra izango da bertan, eta inte-

resatuek hara eraman dezakete ibilgailua, han izango diren teknikariek aztertu dezaten.

Lehenengo aldia da Elgetara IATren unitate mugikorra doala. Izan ere, helburua da jendeak ibilgailuaren azterketa eguneratuta izatea eta erraztasunak jartzea, Bergararaino joan behar ez izateko.



Beñat Intxausti - Leire Olaberria

Sekulako puntua!

emakumeenbira.eus eta itzulia.eus #EUSberdinak dira. EUSberdinu zu ere tropeletik eta sortu zure .eus domeinu-izena.

15 euro

Apirilaren 1etik 17ra prezio berezian.

eus

+34 943 085 051

info@domeinuak.eus

www.domeinuak.eus

Orain arte batutakoarekin "pozik" dago Harreman erakundea

Material biketa apirilaren erdi ingurura arte egongo da zabalik

ENEKO AZURMENDI | DEBAGOIENA
Siriako errefuxiatuendako material biketa egiten ari da Debagoieneko Harreman erakundea, Arrasateko Udalaren babesarekin eta Bergarako Hotz elkartearekin elkarlanean.

Lau material mota bildu ditu elkarteak: mantak, makuluak, lo-zakuak eta haurrak eramateko motxilak. "Horrelako kasuetan, mota desberdinetako material gehiegi biltzen da, askotan, eta nahiago izan dugu lau gauza horietan zentratu, biketa eraginkorragoa izan dadin", dio

Andoni Uribetxeberriak, Harremaneko kideak. Eta gaineratu du orain arte batutakoarekin oso gustura daudela: "Oso pozik gaude jendeak eman duen erantzunarekin", adierazi du Uribetxeberriak. Guztira, 150 manta, 50 lo-zaku, 30 makulu eta haurrendako 25 motxila batu dituzte, gutxi gorabehera.

Materiala biltzeko epea apirilaren erdi ingurura arte dago zabalik. Bihar, zapatua, Arrasateko Eroski hipermerkatuan dagoen bidezko merkataritza saltokian izango da biketa, eta

apirilaren 12an elkartearen lokalean, Ferrerias 40 behean.

Horrez gain, Arrasateko hainbat dendatan ere jasoko dute materiala: Natalia dendak mantak batuko ditu; Ortolagun ortopediak makuluak: lo-zakuak Loramendi Sporten bi dendetan utzi ahal izango dira, San Andresen eta Garibain; azkenik, Belunen, Ttipi-Ttapan, Forumen eta Hautxoa dendetan haurrendako motxilak bilduko dituzte.

Material guztia paketatu eta bidali egingo dute gero; eta hori apiril bukaera edo maiatz hasie-



Tere Arejolaleiba eta Andoni Uribetxeberria, Harremaneko kideak. | E.A.

ran izan daitekeela aitortu du Uribetxeberriak.

Bestalde, Harreman erakundeak kide gutxi dira eta ezin dute materiala bertara eraman. "Dozena bat kide inguru gara eta zaila egiten zaigu materiala Siriaraino eramatea". Horregatik, Bergarako Hotz elkartearen bitartez, Seur fundazioak hartuko du batutako materiala, eta Madrilerara eramango du. Bertan, Asociacion de Apoyo al Pueblo de Siria izeneko elkarta arduratuko materiala Siriarara eramateaz.

Kontu korrontea

Materiala biltzeaz gain, lau kontu korronte zabaldu dituzte, diru ekarpenak biltzeko: Laboral Kutxa: ES08 3035 0001 53 0010132964; La Caixa: ES67 2100 1972 03 0200112601; Caja Rural: ES83 3008 0253 49 2793534526; eta Kutxabank: ES26

2095 5055 50 9115887960. Bildutako kopuru zehatzik ezin izan dute eman, baina nabarmendu dute mugimendua igartzen dela: "Batuzek 50 euro sartzen dituzte, beste batuzek, berriz, 200. Guztiek balio digute, bakoitzak ahal duen ekarpena egiten du". Batutakoa Mugarik Gabeko Medikak GKeri bidaliko zaio, beharra duten errefuxiatuei laguntzen inbertitu dezan diru hori. "Askotan, batutako dirua ez da nahi duzun lekura bideratzen, eta, alde horretatik, Mugarik Gabeko Medikak oso erakunde konprometitua dela deritzogu. Dirua benetan beharra dutenei laguntzeko erabiliko duten bermea ematen digu erakunde honek", adierazi du Uribetxeberriak.

Harremanetik nabarmendu dute badela astia ekarpen materiala edo ekonomikoa egiteko, eta animatzeko.

HARIRA

SAIO BERRIA

MARTITZENETAN, 22:00ETAN, GOIENA TELEBISTAN.
ENEKO AZKARATEK AURKEZTUTA.



MARIA UBARETXENA
APIRILAK 5



MIKEL BIAIN
APIRILAK 12



UNAI ELKORO
APIRILAK 19



JOSERRA ZUBIZARRETA
APIRILAK 26



BEÑARDO KORTABARRIA
MAIATZAK 3



LIERNI ALTUNA
MAIATZAK 10



IRAITZ LAZKANO
MAIATZAK 17



ELENA LETE
MAIATZAK 24



ENEKA ZANKADA
MAIATZAK 31

EGIN GALDERA:

Whatsapp: 688 69 00 07 | Posta elektronikoa: berriak@goiena.eus | Goiena app: Galdera bidali

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA **goiena**

Garbiguneen kanpoaldean hondakinak uztea debekatuta dagoela ohartarazi dute

Debagoieneko Mankomunitateak mezua zabaldu nahi izan du, urte hasieran egin zuen moduan

ENEKO AZURMENDI | DEBAGOIENA

Urte hasieran egin zuen moduan, Debagoieneko Mankomunitateak gogora ekarri nahi du garbiguneen kanpoaldean hondakinak uztea zeharo debekatuta dagoela.

Izan ere, azken egunetan Arrasateko eta, batez ere, Bergarako garbiguneen kanpoaldean berriz ere zenbait hondakin botata agertu dira eta egunez egun kopurua handituz doa. Eta, horrexegatik,

Mankomunitateak ohartarazpen hori egin du.

Garbiguneen ordutegiak

Bide batez, dauzkan hiru garbiguneen ordutegiak gogorarazi nahi izan ditu Mankomunitateak.

Hauek dira: astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 19:00etara. Larunbatetan, berriz, 09:00etatik 13:30era. Domeketan itxita daude.



Begarako garbigunearen kanpoaldean hondakinak. | BERGARAKO GARBIGUNEAK

Rosa Sarabia | Medikuntzan eta Kirurgian lizentziaduna

"Pronokalek pisu galera bizkorra eta epe luzekoa bermatzen du"

Obesitateari aurre egiteko merkatuan dagoen irtenbide mediko eraginkor eta seguru batean espezialista da Arrasateko Udalaiz Zentro Medikoan kontsulta duen Rosa Sarabia doktorea: Pronokal –PnK–

Gehiegizko pisua eta obesitatea ez direla gauza bera jakinekoda; baina noiz bilakatzzen da arazo gehiegizko pisu hori?

Gehiegizko pisua beti da osasun-arazo, bereziki koipea sabelaldean pilatzen bada. Gorputz masaren indizea 25 baino handiagoa bada, zerbait egiten hasi beharra dago. Eta ez dugu ahaztu behar sabelaldeko koipea lotuta dagoela arrisku kardiobaskularrekin.

Urte batzuk badaramatzazue Pronokal –PnK– tratamendua aplikatzen halako kasuetan; benetan da horren eraginkorra? Zergatik?

Bai. Urteotako emaitzek eraginkortasun hori berretsi dute, eta, gainera, pisu galera hori epe luzean mantentzen dela erakutsi dute. Izan ere, medikalizatutako metodo pertsonalizatua da Pronokal. Proteina oinarri duen dieta bat, hain justu, koipeak eta azukrea murriztu egiten ditugu, baina, gorputzeko masa muskularra gal ez dadin, proteina nahikoak mantentzen ditugu. Gainera, segituan hasten da pisu galera antzematen.

Edozeinek erabil dezake PnK?

Pisua galtzeko beharra duen edozeinek erabil dezake, bai, eta, bereziki, gizentasun maila altua dutenek eta pisua galtzeaz gainera horri lotutako patologiak hobetu nahi dituztenek: bigarren mailako diabetesa, arterietako

hipertentsioa, kolesterola... betiere, protokoloaren deskribapenean kontraindikaziorik ez dutenek, jakina.

Pronokal zertan desberdintzen da bestelako dieta edo tratamenduekiko?

Desberdintasun nagusia da egiten den mediku kontrola, paziente bakoitzaren segurtasuna eta osasun egoera ona bermatzeko. Hori lortzeko, beti, mediku analisisian eta pazienteen azterketa fisikoan oinarritzen gara. Etengabeko jarraipena egiten diogu, eta, pazientearen dietan gabeziarik egon ez dadin, beharrezko osagaiak errezetatzen dizkiogu. Horrez gainera, Pronokalen bitartez lortzen den pisu galera beste edozein dietarekin baino askoz bizkorrago gertatzen da, eta, esan bezala, lortutako pisu galera hori epe luzera ere mantendu egiten da. Are gehiago, nire lanbideak eman dizkidan poztasunik handienak proteina oinarri duen dieta honek eman dizkit. Metodo horri esker 80, 40, 20 kilo... galdu dituzten pazienteak ikusteak, insulina injektatzeari utzi diotela ikusteak edo metodo horri esker gazteek hondartzara joa-

"Pisua bizkor galdu eta mantentzen da epe luzera"



Rosa Sarabia doktorea kontsultan.

teari, dantza egiteari berriro ekin diotela ikusteak profesionalki bete eta konpentsatu egiten nau. **Zu zeu Pronokal tratamenduan espezialista izateaz gainera, beste mediku batzuk ere hezten dituzu tratamendu horren baitan; zer dela eta?**

Mediku batek Pronokal metodoa errezetatzeko oso ikastaro zehatza egin beharra dauka. Eta, neurri kasuan, oso harro nago nire lagun eta lankide diren medikuei

pisua galtzeko aparteko tresna bat emateaz.

Non eskura daiteke Pronokalen erabilera gainera aholkularitza? Sarabia klinikak lehen kontsul-

"Facebooken ere informazio eguneratua ematen dugu"

ta doan eskaintzen du. Eta, gainera, oso modu pertsonalizatuan. Izan ere, gure klinikan ez dugu obesitatea bera lantzen, baizik eta obesitatea duen pertsonarekin egiten dugu lan, badakigulako daudela obesitatea duten pazienteak bezain beste obesitate mota. Eta badakigu, baita ere, emozioek zeresan handia dutela elikagaiekiko dugin portaeran edo jarrean. Horregatik esan ohi dugu: "Emozioak jan egiten ditugu".

Arrasaten

Benetan **pisua galdu** nahi duzu?

Esan baietz betiko



Rosa Sarabia doktorea

PronoKal[®] metodoa

Zientzia eta zorrotztasuna pisu galtzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia - Gose gabezia

CMU centro médico UDALAITZ

Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.

Rosa Sarabia doktorea
Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

OBESITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA
BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA
BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK
BULARRAK - SUDURRA - SABELALDEA

Medikuntza estetiko eta kirurgia plastikoa

AGAKOK 25 urte: aurrekari aberatsetik etorkizuna eraikitzen

Arrasaten izandako gaztetxeen esperientziari eta bilakaerari buruzko hausnarketa

KOMUNITATEA GOIENA | IKER BARANDIARAN | ARRASATE

Arrasateko mugimendu asanblearioa 80ko hamarkadan indartu zen nabarmen, politika eta espresatzeko beharra borborke zeuden. Gaztetxe bihurtzeko eskatutako hiltegi zaharra Udalak biharamunean eraitsi zuen. Hala, Sindikatuen Etxea baliatu ostean, Gurea zinema aretoa zena okupatu zuten. AGAK (Arrasateko Gazte Asanblada) lan itzela egin zuen eta 1989ra bitarteko tartea oso intentsua izan zen ekintza, eztabaida, elkarlan eta polemikatan. Zinemak denbora gelditu zuen: han batu ziren jakin-mina, ilusioa, askatasuna, esperimentazioa eta gordintasuna. Sorgina Irratia, kontrainformazio agentziak, puntako punk eta hardcore kontzertuak, ehunka hitzaldi, langile borroka, borroka askorekiko atxikimendua eta zabalkundea, anarkismoa, autonomoak, poliziaren kontrako ekimenak... Baina, zoritxarrez, baita heroinarenganako dependentziak dakartzan gaitz ugari ere. Eta horri gehitu behar zaio bertako erabiltzaile gehienek inongo alderdi politikorekin lerratzeke nahi ezak zein kontzertuek eragindako bizilagunen kekek alkatetzan zegoen HBren haserre eta boikot aktiboa eragin zutela.

Gurean 'ikusitakotik' ikasi

Ateak itxi ostean, halako amets bat -bere ilun eta argitasunik- berriro gauzatzea ezinezkoa bazen ere, 1991n gazte batzuk pareko eraikin hutsera sartu eta han biltzen hasi ziren, besterik gabe. Epe laburrean etorri zen eraikina Gaztetxe bihurtu eta herrira zabaltzeko ideia. Belaualdi berri batek oharkabean lekukoa hartu zuen; haietako gehienak Gurea zinemako esperientzia ezagutu gabeak, eta gutxi batzuk esperientzia horretan

ikusitakotik kontzientzia hartutakoak. Beste asanblada bat jarri zen martxan; lehiaketa baten bidez izena aukeratu gaur egunera arte jarraitu duen AGAKO (Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatua) jaio zen.

Gaztetxe berriak ez zuen gordintasun eta borbor bera: gazteria apaldu egin zen apur bat eta adierazpideak moteldu. Arlo sozialari eta politikari garrantzia zertxobait kenduta ekimen kulturalagoetan sakondu zuen ibilbidea, baina betiere zabalik izan zituen ateak; esaterako, ezker abertzaleko gazte zein ekimen anarkistek, biei, espazioa eta azpiegiturak eskainita. Han ere milaka pasarte, 80ko hamarkadakoekin alderatuta hain muturrekoak ez zirenak, baina izan bazirenak, eta herriak gaztetxea bere egiteko inurri lana, gorabeheratsua, gaztetxe guztietan bezala. HB ez zen berau ixtera ausartu, ezta EAJ ere, baina behin-behinekotasuna zen nagusi.

Azkenean, ezker abertzaleak erabilera askotariko eraikin itzel bat egin eta AGAKOekin batera gaztetxea diseinatu zuen. Urtebeteko epean, herriko hirugarren gaztetxeak ateak zabaltu zituen eta hor jarraitzen du.

Izan da belaualdi iragazteko Udalak *emandakoa* izanagatik konplexua izan duena, okupatutakoa izan ezean izena ez balegokio bezala. Bada, herriko gazte askoren hamarkadako lanak *eman* du gaztetxe hori, lortutako onospena alajaina. Eta, bide batez, AGAKOK apirilaren 25 urte betetzen baditu ere, balio dezatela lerrook AGAren esperientziari ere behar duen begirunea eskaintzeko. Eta, gazteok, eguneroko lanak egiten du espazio bat gaztetxe: ekin horri!

ARRASATEKO ETA ELGETAKO GAZTETXEEN URTEURRENETAKO OSPAKIZUNEN INFORMAZIOA HERRIAK SAILEKO 14. ETA 25. ORRIETAN



Josefina Lambertoren erresistentziaren argazkia ere jarriko dute. | MAURO SARAVIA

40 emakumeri aitortza Erresistentzia Egunean

UBANE MADERA | ELGETA

Espainiako gerran "askatasunaren alde borrokatu ziren" gudarien eta milizianoen 55 argazki osatutako *Azken batailoia* erakusketarekin abiaraziko dituzte aurtengo Intxortako Erresistentzia Eguneko ekitaldiak. Datorren astean zabalduko dute Elgetan erakusketa, "apirilaren 12an edo

14an, ze Bizkaiko Batzar Nagusietan dago asteotan, jende asko dabil hura ikusten, eta eskatu digute beste 10 egunez luzatzeko", esplikatu du Juan Ramon Garaik, Intxorta 1937 Kultur Elkarteko ordezkariak.

Milizianoez gain, iaz omendu zuten Josefina Lambertoren argazkia ere bada *Azken batailoia* era-

kusketan. Maravillas Lambertoren ahizpa da hura: falangistek aita atxilo hartu zutenean, Maravillas Lambertok harekin joan nahi izan zuen; Larragako Udaletxera (Nafarroa) eraman zituzten biak, eta, UGTko kide zen aita udaletxeko kartzelan zuten bitartean, alaba behin eta berriro bortxatu zuten, eta gero hil. Haren gorpua biluzik txakurrei eman zieten eta gorpuzkiak erre egin zituzten. Aita ere erail egin zuten. Bada, Lambertoren argazkia baliatuta gura dute iragarri hurrengo erakusketan emakume erresistente eta erresistentziaren gainekoa izango dela. Argazkiak Mauro Saravia txiletarrak ateratakoak dira.

Sei emakume debagoiendar

Hain zuzen, apirilaren 24an -domeka- egingo dute Intxortako Erresistentzia Eguna, Elgetan, justu frankistak Elgetan sartu ziren egun berean. 40 bat emakumeri egingo diete aitortza; erresistentziatuak eta erresistentziako kide izan ziren emakumeei, hain zuzen.

Aitortza egingo diete, besteak beste, Arrasateko Iñigo Arregi eskultura-egileak egindako *Eguren iturria* oroigarria emanez. Aitortza jasoko dutenen artean sei debagoiendar daude; bizi direnak: Felisa Garai -94 urte, Elgeta- eta Trini Ruiz de Alegria -92 urte, Arrasate-. Eta erail zituztenak edo hilda daudenak: Isabel Beritxinaga -Elgeta-, Emeteri Aranburuzabala -Eskoriatza-, Edurne Galartza -Oñati- eta Norberta Ezpeleta -Bergara-.

Kualifikazioaren arabera lana aurkitzen lagunduko die gazteei Hazilan programak

LEIRE KORTABARRIA | DEBAGOIENA

Debagoieneko 35 urte arteko kualifikatutako gazte langabeek Hazilan programaren laguntza izango dute lana aurkitzeko. Europako Batasuneko Gizarte fondoek finantzatzen dute programa horren erdia, eta Mankomunitateko Garapen Agentziak bideratzen du. Egunean aurkeztu zuten ofizialki, nahiz eta dagoeneko badituzten gazte zein enpresa batzuen eskaerak. Bost urtean iraungo du eta deialdi bat egingo da sei hilabete bakoitzeko; denetara, urtero 30 bat gazte pasako da programatik.

Helburua da, gazteen profilarren eta enpresen eskakizun zehazten arabera, batzuk eta besteak lotzea. Aurtengo hautaketa apirilaren 18tik 29ra bitartean egingo dute arduradunek.

Zeharkako kompetentziak

Bi fase ditu Hazilan proiektuak. *Aktibatu* izeneko lehen fasean, lan merkatuak asko baloratzen dituen zeharkako kompetentziak landuko dira talde saioen bitartez. 15 eta 17 gazte artean osatutako talde bat eratuko da, eta 80 orduko tailer batean jardungo dute gaitasun pertsonal eta emo-

zionalak, gaitasun profesionalak eta lan-bilaketa errazteko kompetentziak lantzen. Hori maiatzean zehar izango da.

Gero, bigarren fase bat hasiko dute: praktikak enpresetan. Lanpostu batean trebatuz praktikak egingo dituzte enpresan. Dena dela, enpresaren beharren arabera, proiektu konkretuak ere landu ahal izango dituzte.

Parte hartu nahi duten gazteek Debagoieneko Goi Mailako titulatuaren poltsan izena eman behar dute. Horretarako, debagoiena.eus/eu/garapen-agentzia webgunera jo.



APIRILAK 9

Soilik bazkideentzat

%25*

EHUNGINTZAN

(puerikultura eta oinetakoak barne)



Zure EROSKI club Txartelean itzuliko dizugu hurrengo erosketetarako.



*Kulturik gaitasun profesionalak aurkitzeko lagunduko die gazteei Hazilan programaren laguntza izango dute lana aurkitzeko. Europako Batasuneko Gizarte fondoek finantzatzen dute programa horren erdia, eta Mankomunitateko Garapen Agentziak bideratzen du. Egunean aurkeztu zuten ofizialki, nahiz eta dagoeneko badituzten gazte zein enpresa batzuen eskaerak. Bost urtean iraungo du eta deialdi bat egingo da sei hilabete bakoitzeko; denetara, urtero 30 bat gazte pasako da programatik.

ZABALIK



IRATI ITZIAR
goiena.eus/komunitatea/

Naturaren izua

Sentitu al duzu inoiz naturako espazio ireki eta hutsen zirrarra? Ez dut esan nahi agorafobiarik ote daukazu, ez da hori. Naturan bakar-bakarrik egotearen zirrarari buruz ari naiz. Orain berri irakurri dudana ipuin batek horixe sentiarazi dit, nire etxeko sofán eserita banengoen ere. Ehiztari talde bat Kanadako baso galdu batera doa espedizioan. Baso erraldoietan barna doaz, gizakiak –gizaki zuriak, alegia– sekula zapaldu gabeakoak. Bakarrik daude, isolatuta. Natura Basatia –maiuskulekin– inguruan dutelarik egon daitekeen bezain bakarrik, noski.

Behin taldea eta lekua kokatuta, ipuinak bide fantastikoa hartzen du. Naturako izpiritu misteriosu batek gure protagonistak jazarriko ditu. Baina Wendigoaren –hala deitzen baitiote indiarrek– berri hurrengo baten kontatuko dizuet.

Ipuinak hain ondo deskribatzen duen zirrarra sententzioak zer pentsatu eman zidan. Gaur egun badirudi oso urruneko herrialderen batera joan behar garela halako espazioak –eta sententzioak– edukitzeko. Gure inguruko paisaia naturala ia guztiz erabilia, eraldatuta, baitago, erakuntza, azpiegitura edo nekazaritza eta abeltzaintzarako moldatutako lurren bidez.

Hala ere, orografiari esker, baditugu mendiak eta basoak inguruan. Ez dira ipuinekoak bezain basatiak eta ukitu gabeak, ez dira hain *hutsak*, baina Natura da hori ere. Toki bakartiak topatzeko aukera badaukagula, hain zuzen. Baina Naturan bakarrik eta babesgabe sentitzeko gaitasuna ba ote dugu? Sentitu al duzu inoiz halakorik?

Egin ariketa: aukeratu egun lasai bat, hurbildu inguruko baso batera eta egon adi, gune basati baten bakarrik zauden kontzientzia hartu, eta, ez dakit Wendigoa agertuko ote zaizun, baina seguru bizkarrezurretik gora hotzikararen bat edo beste sentituko duzula.

Ipuinaren erreferentzia emango dizuet, zuek ere disfrutatuz dezazuen, lan bikaina baita: Algernon Blackwood, *The Wendigo*.

Aukeratu egun lasai bat, hurbildu inguruko baso batera eta egon adi

USTEAK USTE

XABI URZELAI | xurzelai@goiena.eus

Pedalkada isilak

Erabateko isiltasunean, eta mela-mela eginda. Halaxe pasa ziren Euskal Herriko Itzuliko bigarren etapan ziklistak Untzillatik. Euria goian-behean, hiru lagun ihes eginda, eta tropela penitentzian, aurretik zituzten kilometroetan izan behar zuten egurrera begira indarrak gorde guran. Halako lasterketetan buila galanta egoten da, baina martitzenean bakarrik nintzen bide bazterean; ehun lagun pedalei eragiten, eta euria lurra kolpatzen. Han ez zen besterik entzuten. Ondoan izan nituen segundo gutxi haietan errespetatu beharreko isiltasuna zela iruditu zitzaidan, animo oiher txikiak ere euren momentuko bakea hautsiko zuelako, eta lasterketara itzuliko zituelako.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.eus/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Futbola eta integrazioa

Aintzane Muguruza
http://goo.gl/OjFdtl

Xabi Alonso etxera dator Enekoren bila. Pertsona "ezgaituez" osatutako futbol-talde bat sortu nahi du hemen inguruan. Bart egin nuen ametsa da.

Herenegun auzoko kantxetan jolastera jaitsi ginen Eneko eta biok, eta ikaskideek beraiekin jolastea eskaini zioten. Enekok ez du beraiek bezala jolasten; indarrak gabe jotzen dio baloiari; bat-batean kontrako taldeko partaidea dela erabakitzen du. Orain atezaina da; orain berriz erdilaria. Ez die taldekideei aldaketaren berri ematen. Baina atsegin du lagunekin futboleant aritzea.

Gelakideek ondo ezagutzen dute txiki-txikitatik berarekin egon direlako; begirunez eta maitekiro tratatzen dute. Enekok ere maite ditu bere lagunak eta maite du futboleant aritzea. Baina bere lagunak badute futboleant aritzeko talde bat nahi izanez gero (eskolakoak at ari naiz), eta Enekok ez.

Duela hilabete pare bat edo, irratiari Levante futbol taldeak bai "gaitasun bereziak" dituzten

pertsonek bai jokalaririk arruntek osatutako talde bat baduela entzunda eta beste talde batzuk ere badutela ikusi ondoren, txio bat bota nion Errealari ea horrelakorik badagoen edo antolatzeko asmorik baduten galdetuz. Ez dut erantzunik jaso. 140 karaktereko mezu bat idaztea ez da ba hain garestia izango! [...]

Nik ere ez nekien ezer patuak autismoa duen seme bat ekarri zidan arte.

Hasieran nire kasua oso arraroa zela pentsatu ohi nuen. Hau zoritxarra! Orain badakit ez dudala auzotik atera behar horrelako 20 bat pertsona aurkitzeko. Beraien etxeetako pareten artean babesten dira gehienetan. Baina bizi dira. Beharrak, interesak eta sentimenduak dituzte.

Enekok ezgaitasun nabarmenak ditu. Frustrazioa jasateko gaitasun eza eta bere beharrak eta sentimenduak espresatzeko zailtasunak.

Eta gaitasun harrigarriak ditu ere. Berehala esango dizu, esaterako, iazko bosgarren jardunaldiko partida guztietako emaitzak edo 2012ko zein egun zehatzean egon ginen Port Aventura. [...]

Nik ezin dut (ez nik ez beste inork) nire semearen gaitza sendatu eta ez da inoren errua.

Hori onartzea oso gauza hutsala dirudien arren, niretzat ikasgai zailena izan da: batzuetan ezin dugu bizitzaren jariora aldatu.

Baina bizitza duin eta autonomo bat ahal den neurri handiengan lortu ahal izateko bideak bilatu ditzaket. Gipuzkoako Autismoaren elkarteak, Gautenak, zentzu honetan egiten duen lana ezin dut merezi duten neurrian eskertu. Baina nik ere egin ditzaket gauza asko.

Horregatik nago hemen idazten, Enekoren nortasuna aldarrikatzen; gure bizitza argira ematen; inguruko futbol talde batek Eneko bezalako jendearentzat talde bat osatu dezan proposatzen.

Ez baikara gutxiago edo gehiago, ezberdinak baizik.

Ez baitugu txapelketarik irabaziko, baina aberasgarria eta dibertigarria izango baita gurekin jokatzeko.

Egia da, nik ere ez nuke nire kabuz autismoa duen inor ezagutzeko pausurik emango bizitzak behartu izan ez banindu. Baina behin ezagututa, merezi duela ziurtatzen dizuet.

Eta Enekok futboleant jolastea atsegin du. Beraz, Donostialdeko futbol taldeak, ba al duzue Enekorentzat eta bera bezalakoak direnentzat lekua?

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagire

Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailtako arduradunak Xabi Urzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)


Maketazioa Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Ozel Arrieta.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 00
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.850 ale
Diffusioa: 18.507 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DUELA 10 URTE

2006-04-07

Onbide.org elkarte sortu zuten

Eskoriatza, Arrasate, Aretxabaleta, Aramaio eta Bergarako hainbat lagunek Onbide.org elkarte sortu zuten, azpiegitura proiektu erraldoiek kaltetutako pertsonen laguntza emateko helburuarekin.

Kideek azaldu zuten ez zeudela autobidearen eta AHTren kontra, baina haien helburua zela azpiegitura horiek ingurumenean eta debagoiendarren bizi baldintzetan kalte txikiagoa eragitea.



Ibilgailuak Epelen. | GOIENA

2006-05-05

Epele-Kaskonategi zabaldu zuten

Epele eta Kaskonategi arteko errepidea zabaldu zuten eta lau bide jarri zituzten, norabide bakoitzean bi.

Ordura arte Arrasatera iristeko sortzen ziren auto ilarak arindu ziren horri esker. Horrez gain, Epeleko biribilgunean sortzen ziren auto ilarak ere arindu egin ziren. Oñatitik Arrasaterako bidea asko arindu zen. Izan ere, bidea zabaldu aurretik ordu-bete behar izaten zen, eta gero, 15 minutu.

DUELA 5 URTE

2011-04-01

Arantzazuko auzo-etxea

Oñatiko Arantzazu auzoko etxea inauguratu zuten. Jaurlaritzako eta Udaleko ordezkariak egon ziren ekitaldian.

Auzolanean egindako eraikina izan zen eta bazkideek lan orduetatik kanpo eta beste ekintza batzuei denbora kenduta lortu zuten eraikina bukatzea. 56 bazkide zituen hasieran.

ONATI

HERRITARRAK

Pedro Irurzun Aloña Mendiko txirrindularitza sailaren izen handietako bat da, hainbat urtez bertako presidente izateaz gain, beti laguntzeko prest dagoen horietakoa da eta. | ENKO AZURMENDI

"Laguntzeari uzten badiot, zerbait falta zaidala sentituko dut, hutsune bat"

Pedro Irurzun *Naparra* (Altsasu, 1950) altsasuarra da, baina bizitza osoa Oñatin egin ondoren, oñatiarra bihotzez. Ziklismoa du pasio, eta, 66 urterekin, oraindik bizikletan ibiltzen da. **Zergatik *Naparra*? Zure izenez ezagutzen zaituenik gutxi egongo da herrian...**

Bizitza osoan Oñatin bizi izan naiz, baina berez Altsasun jaioa naiz, ama bertakoa daukat eta. Horregatik, txikitzen ezizen hori jarri zidaten lagunek eta bizitza osorako gelditu zait.

Aloña Mendi elkartearen zenbat urte daramatzazu?

Guztira, 43 urte izango dira dagoeneko. Baina lehenengo zazpi urteak futbol sailean egin nituen; mutil koskorrei lagundu, futbol zelaia konpondu eta beste hainbat gauza egiten nituen. Zuzendaritzan ere egon nintzen. Gero, beste sei urtez zikloturismoan ibili nintzen, bizikletan ibiltzea gustuko duten mota guztietako herritarrei lagunduz eta ibilbide desberdinak proposatuz. Orain, berriz, 30 urte daramatzat txirrindularitza sailean. **Txirrindularitzarako jauzi hori zergatik eman zenuen?**

Beti gustatu izan zait bizikletan ibiltzea eta bizikleta mundua.

NIRE HERRIAN

GERTUKO JENDEA

Pertsonen artean dagoen harremana oso ona da Oñatin. Oso gertuko tratua dago eta edozein egoten da laguntzeko prest beti. Gainera, herri bezala ere asko hazten ari da Oñati eta kanpoko jende asko etortzen da gure inguruak eta kultur ondareak bisitatzen. Hori pozteko gauza bat da.

NOLANAHIKO KRITIKAK

Askotan gertatzen da zure borondate on guztiarekin lan bat ahalik eta ondoen eginen zaituzten zurea, eta beti daukazu norbait atzetik zerbait gaizki dagoela eta egin duzunaren ordez beste zerbait hobeto legokeela esanez. Normalean, ezer egiten ez duen jendea izaten da, eta horrek amorruta ematen du.

Domekero joan izan naiz martxaren bat edo beste egitera, betidanik, eta oraindik ere jarraitzen dut bizikletan ibiltzen, ahal dudana heinean.

Hortik, Aloña Mendiko txirrindularitza saileko presidente izatera.

Pedro Irurzun *Naparra*, Aloña Mendiko bulegoetan. | ENKO AZURMENDI

Hala da. Juanjo Diaz zegoen presidente garai hartan, baina utzi egin zuen, eta nik hartu nion lekukoa. 28 urtez izan naiz saileko presidente eta iaz Kepa Umezei utzi nion kargua.

Zer eman dizu Aloña Mendi elkarteak?

Herriarendako lan egitea bezala da. Laguntasuna, elkarlana eta halako balioak egunero daude agerian eta herriaren onerako den zerbait da elkarte honen parte izatea. Ez dakit, zaila egiten zait azaltzea sentitzen dudana, barrutik irteten zaidan zerbait da eta.

Oraindik ere, ahal duzun heinean, laguntzen jarraituko duzu.

Jakina. Izan ere, laguntzeari uzten badiot, zerbait falta zaidala sentituko dut, hutsune bat. Horrenbestez, gauza batean ez bada bestean, beti laguntzeko prest nago.

50 urte bete dituzue. Zer sentitzen da epemuga horretara iritsita?

Poz handia ematen dit. Hainbat ekintza eta lasterketa antolatuta ditugu urtean zehar, urte berezia da eta. Oso pozik gaude urteurrenarekin eta aurrera begira ere orain arte bezala jarraitzea gustatuko litzaiguke.

ARRASATE - UDALATX MENDI LASTERKETA

GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK
ASTELEHENEAN, 22:00



HERRIAK

Etorkizun berri baten zain

- ▶ Gorabehera handien ostean Espaloia kafe antzokia etapa berri baten atarian egon daiteke
- ▶ Udal Gobernu berriak soseguz aztertu beharreko gako asko ikusten ditu kultura esparruan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Itxita dago Elgetako Espaloia kafe antzokia. Gorabehera handien ostean azken alokairudunak irailera bitartekoa zuen ustiapen esleipena etetea eskatu du, eta

aho batez onartu du eskaera Elgetako udalbatzak. Zer gertatuko da, orain, urteetan kultura erreferente izan den aretoarekin?

Elgetako Udalak jakinarazi du ez dagoela ezer erabakita, eta herritarrekin batera egingo dela hausnarketa. Parte-hartze prozesu bat iragarri du, eta ez soilik kafe antzokiaren etorkizuna marrazteko, baita Elgetak behar duen kultura eskaintzaren inguruan gogoeta sakona egiteko ere. "Presarik gabe egin nahi dugu prozesu hori, ea horrela lortzen dugun baldintza-agiri berri batzuk diseinatzea eta Espaloiak behar duen martxa edukitzea", jakinarazi du Elgetako alkate Iraitz Lazkanok. Gaur egungo egoera presaka egindako gauzen ondorioa dela uste du alkateak.

Sorrera eta esku-aldatzeak

1995. URTEA

Eskolako eraikin berriaren etxeban hutsik gelditu zen eremuan kultura egitasmo bat bultzatu gura zuen Udalak. Zenbait ekintza antolatu zituzten.

2000. URTEA

Goibeko euskara elkarteak proiektu bat aurkeztu zuen. 2003ko otsailean egin zen lehen kontzertua White Flag taldearekin.

2004KO EKAINA

Goibekok eta Udalak 10 urteko ustiapenerako esleipena sinatu zuten. Goibekok Espaloia kooperatiba sortu zuen.

2014KO EKAINA

Hamar urteko ibilbide oparoaren ostean, euskara elkarteak hamargarren urteurrenako ekitaldia eta agurra egin zituen.

2014KO IRAILA

Udalak bi urterako esleipen berria egin zuen, eta bi lagunek hartu zuten antzokiaren martxa. Hasi eta gutxira batek laga egin zuen proiektua. Aurrera egitea erabaki zuen bigarrenak. Kontratua etetea eskatu zuen 2016ko martxoan.

Esku-aldatzea egiteko prozesuan

Etenda dago azken ustiapen esleipena, baina Udalak ez du oraingo aretoaren erabilera bereganatu. Azken alokairudunak denbora behar du esku-aldatzea egiteko. Egoera guztiz argitzen denean abiaraziko du Udalak herritarrekin egin gura duen parte-hartze prozesua. "Ez dugu hipotesien gainean lan egin nahi", esan du Iraitz Lazkanok alkateak.



Espaloia Kafe Antzokiko atea itxita. | LZ

Hasiera indartsua

Ez dira betiko garai onenak Elgetako kafe antzokiarendako, baina urte onak ere bizi izan ditu. Euskal Herrian zabaldu zen hirugarren kafe antzokia da Elgetakoa, eta, lehenengo hamar urteetan kultura eskaintza zabala izateaz gainera, hasierako inbertsioei buelta ematea lortu zen. Goibeko euskara elkarteari esleitu zion Udalak aretoaren ustiaketa 2004an, eta hamar urterako konpromisoa hartu zuen. Kooperatiba izaera eman zioten proiektuari, eta jarduna auzolanean oinarritu zen. Besteak beste, Magia Mostra, sona handiko kontzertuak, lehen mailako antzerki taldeak, musika lehiaketak eta Monologo Mostra izan ziren lehenengo etapa hartako ikur.

Azken etapa gorabeheratsua

Hamar urteko ibilbidea bete ostean, atsedeen hartu eta elkartearen jarduna beste zeregin batzuetara bideratzeko unea zela erabaki zuten Goibekok. Hala, baldintza-agiri berriak prestatu zituen Elge-

tako Udalak eta lehiaketara aurkeztu zen hautagaitza bakarrari esleitu zion aretoaren kudeaketa 2014ko irailean.

Gorabehera handiko urteak izan dira, eta krisi ekonomikoak ez du lagundu. Seguruenik faktore bat baino gehiago egongo dira aretoaren martxa onean eragin dutenak, eta horiek identifikatu nahi ditu orain Udalak. "Hainbat gako egongo dira oso ondo landu beharko direnak. Gako horietako bat izango da ostalaritza zerbitzuaren eta kultura eskaintzaren arteko harremanak zein izan behar duen. Dena proiektu bakar baten barruan joan behar da? Esleitu behar da bakarrik ostalaritza zerbitzua eta museoa alde batek eta kultura eskaintza beste? Kultura eskaintza hori udalaxeak egin behar du herriko eragileekin batera? Hor hausnarketa nahiko sakona dago egiteko. Eta bestetik, aztertu beharko da bideragarria den une honetan Elgetan aste guztian zehar zabalik dagoen beste taberna bat egotea. Kalkulu ekonomikoak egin beharko dira baita ere aretoaren mantenuak hilero zein kostu duen jakiteko... Kalkulu mordoxka izango ditugu egiteko", esan du Iraitz Lazkanok alkateak. Bien bitartean, ekintza puntaletarako zabalduko dute aretoa, Elgetan. Gainerakoan, itxita jarraituko du.

IRAITZ LAZKANO | ELGETAKO ALKATEA

"Egoera erabat argituta dagoenean hasiko gara parte-hartze prozesuarekin"


Udal Gobernu berriak aztertu beharreko gako asko ikusten ditu kultura esparruan, eta soseguz egin gura ditu gauzak.

Noizko aurreikusten duzue parte-hartze prozesua?

Lehenengo eta behin, Udalak aretoaren erabilera bereganatu behar du. Egoera erabat argituta dagoenean hasiko gara parte-hartze prozesua garatzen.

Bitartean, guztiz itxita egongo da antzokia?

Joango gara ekintzak antolatzen —antzokia, tailerrak, dantza emanaldiak...—. Ikusi beharko dugu barra zerbitzuarekin zer egin. Ekimen batzuek ez dute behar, baina beste batzuetan beharrezkoa izan daiteke. Badago jendea eskatu duena aretoa egun baterako nahi duelako kontzertu bat antolatu, eta prest dagoena barra zerbitzua emateko. Udaltxearen partetik egingo dugu hiruzpalau hilabeteko gutxi gorabeherako jardun bat, eta saiatuko gara egon daitezkeen eskaerei erantzuna ematen. Baina espero duguna da pixkanaka —pixkanaka proiektua zehaztea eta jendea horretan inplikatzeko.



LZ

Baduzue buruan kudeaketa formula konkreturik?

Egia esan, urte mordoxka goaz esaten gure eredua halako leku baterako zein izango litzatekeen. Idealena izango litzateke kultura esparru hori publiko egitea eta herritarrek batzorde batean aurrera edukitzea esateko herria zein kultura behar dagoen. Baina gauza bat da guk zein iritzi daukagun eta beste gauza bat da herritarrekin batera egingo dugun parte-hartze prozesu horretan zein behar identifikatzen diren eta zein modutan egin daitezkeen aurrera proiektu horrekin.

"Alegazioen ostean, prest gaude ordenantzaren aldaketak egiteko"

Garbiketa arautegia, aparkalekuak eta beste hainbat berbera alkatearekin, 'Harira' saioan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Agintaldiaren lehen bederatzita hilabeteetako lanarekin "gustura" dago Maria Ubarretxena alkatea. Martitzenean Goiena Telebistako *Harira* saioan azaldu zuenez, hasiera honetan Udala Gobernuak administrazio publikoaren moteltasunari aurre egiteko azeleragailua zapaldu du: "Ereiten aritu gara, datorren urtean uzta jasotzeko". Udala jardunari dagokionez eta aurreko agintaldiarekin alderatuta gaztelaren presentziak nabarmen gora egin duela eta kezka azaldu zuen alkateak; gaia "hainbat alditan" tratatu arren, azken osoko bilkuran hiru mozio gaztelara hutsean heldu izana salatu zuen: "Euskal Herrian gaude eta euskara da gure hizkuntza. Alderdi guztiek dituzte baliabideak gutxienez mozioak ele bitan aurkezteko. Jarrera kontua da, ez dugu ilargia eskatzen. Aurrerantzean, gaztelara hutsean datorren moziorik ez dugu onartuko".

PSE-EErekin harremanak

Udala Gobernuak kide den Alderdi Sozialistarekin duten harremanak galdetuta, Ubarretxenak dio ezberdintasunak izan arren Arrasaterako dituzten proiektu garrantzitsuetan bat datozela: "Alderdi bakoitzak bere eredua, metodologia eta ibilbidea dauka, baina politika hori da, ezberdinen arteko akordioa. Hainbat gauzatan ez gaude ados, ez horixe, baina Arra-



Maria Ubarretxena, Goiena Telebistako platoan, *Harira* saioan. | JOKIN BEREZIARTUA

satek behar dituen proiektu garrantzitsuetan bat gatoz. Herritarrek akordioa eskatzen dute".

Garbiketa ordenantza

Bestalde, oposizio alderdi guztiak eta herriko hainbat eragile kontra jarri dituen garbiketa ordenantzaren harira –adierazpen askatasuna mugatzen duela uste dute kontrakoek–, Ubarretxenak azaldu zuen adierazpen askatasuna bermatu nahi dutela adierazpen libreko gune berriak jarrita: "Beste herri batzuetan badira beste alderdi batzuek bultzatutako garbiketa ordenantzak", gaineratu zuen. Adierazpen askatasuna dela eta adibide bat jarri zuen: "Esaterako, udal hauteskunderen ostean Goienan egin zizkizuten

pintadak adierazpen askatasuna dira?". Hainbat eragileekin batzartu direla dio: "Ibai-Arterekin, MUREkin, Ikastolarekin, sindikatuekin, gaztetxearekin... Batzuei ez zaie gustatu eta beste batzuek uste dute zerbait egin behar dela". Nabarmendu zuen martxoaren 22ko osoko bilkuran hasierako onarpena eman zitzaizkion zirraborroari: "Aste honetan argitaratuko da buletinean eta orduan 30 laneguneko epea irekiko da alegazioetarako. Horren ostean, prest gaude eragileekin egon eta aldaketak egin behar badira aldaketak egiteko". PSE-EEko Oscar Garcia buru duen batzordetik irtendako ordenantza da: "Bi alderdiek jasota genuen gaia hauteskunde programan".

Kulturola, agintaldi honetan

Zerrajera zena "kultura-gune estratagiko" bihurtzeko egitasmoa da Udala Gobernuaren proiektu izarra. Erlojuaren Eraikina eta Apendices birgaitu eta bertara eraman nahi dituzte herriko kultura talde gehienak: "Arrasate oso herri dinamikoa da elkarrekin dagokionez, asko daude eta borondatezko lanerako gogotsu. Hori indartzea ezinbestekoa dela uste dugu, atzetik datozen belaunaldiak inplikatu edo behintzat bidea errazteko aukera emango digu eta. Sorkuntzarako gune bat sortu nahi dugu". Apendices birgaitzeko proiektua idazteko pleguak atera dituzte eta Erlojuaren Eraikina Udalari eskualdatzeko –Jaurlaritzaren SPRI erakundearena delako– trasteak agintaldi hasieratik dau abian; Ubarretxenak espero du proiektua agintaldi honetan gauzatu ahalko dutela.

Laubide irekitzeko ahalegina

Arrasatear askoren artean kezka eragiten duen aparkalekuen auzian, Laubidekoak irekitzea izango da lehentasunetako bat. Udalak, 2003tik 2007rako agintaldian, kontzesio administratibo bidez Gespark enpresari –orduan Bikani enpresa zen– eman zion aparkaleku hori kudeatzeko ardurara, 50 urterako. Gespark-ek porrot egin, eta orain epaile baten esku dago auzia: "Saltsa handia dago eta zaila da azaltzen, baina Uda-

ESANAK

"Badira beste alderdi batzuek bultzatutako garbiketa ordenantzak"

"Laubide ireki nahi dugu; auzia pare bat hiletan argituko dela espero dugu"

MARIA UBARETXENA | ALKATEA

la saltsa horretan badago. Laster, pare bat hilabetetan, auzia argituko dela espero dugu. Gure asmoa da irekitzea, edozein kasutan".

Txipa eta lurpeko edukiontzia

Arrasaten hiri hondakinaren %79 selektiboki jasotzen da. Emaizta "on" horiek ikusita, Ubarretxenak aurreratu zuen aukera bat izan daitekeela egungo txipak kendu eta edukiontzi erosoagoak jartzea, lurpekoak ere funtzionamenduan jarrita: "Sistema berria erabat barneratzen dugunean, modu erosoago baten egin daiteke biltzea, batez ere adinekoei begira".



ARRASATEKO SARE

**Arrasatearrak
Txindokin,
presoren alde**

Sare ekimenak deituta, Txindokiko gailurrean elkartu ziren hainbat herritar apirilaren 2an, euskal preso eta iheslariak etxeratzea eskatzeko. Sarek antolatuta mendi martxak egin ziren baita Anboto, Gorbeia eta Beriainera ere, herrialdeka. Eguraldi txarrik izan ez bazuten ere, haize gogorrari egin behar izan zioten aurre mendizaleek. Larraitzen zein tontorrean, "ekitaldi xumea" egin eta argazkia atera zuten. Jaisterakoan, salda beroa hartuta osatu zuten aldarrikapenezko txangoa.

Udalekuetan hezitzaile izateko eskaera apirilaren 29a baino lehen egin behar da Txatxilipurdin

Udaleku ireki zein itxietan izena emateko azken eguna maiatzaren 13a da, eta hezitzaile moduan lan egiteko eskaintzaren berri eman du dagoeneko Txatxilipurdik. Baldintzak honako hauek dira: 18 urte edo gehiago izatea, euskara jakitea, Txatxilipurdik ekainaren 4rako antolatu duen formazio saiora joatea eta Arrasatekoa edo Debagoienekoa izatea. Horrez gain, kontuan hartuko dira begirale titulua izatea, ikasketak, esperientzia eta lanerako prestutasuna. Argibide gehiagarako: 943 79 54 46 (Maialen edo Arantza).

Peru 2016

Arrasatek irteera bidaia-gidariarekin

Abuztuaren 28tik irailaren 12ra

Ibilbidea: Lima • Paracas • Líneas Nazca • Arequipa • Valle del Coloca • Puno • Cusco • Machu Picchu • Valle Sagrado.

Bidaiaaren aurkezpena

Peruko enbaxadako Ana Maria De La Cruzek egingo du Kulturaren apirilaren 28an, 18:30ean.

Informazio gehiago:
943 79 29 88
(Etorriko zarela konfirmatu)



Olarte 14
ARRASATE

Eraso matxistak "errotik" desagertzeko, lanean segitzeko beharra aldarrikatu dute

Domekako gertaera salatzeke agerraldia deitu zuen Emakume Mundu Martxak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Emakumeen Mundu Martxako Arrasateko plataformak deituta, elkarretaratzea egin zuten eguazten iluntzean joan den domeka goizean San Andresen gertatutako eraso matxista salatzeke. Apirilaren 3ko goizaldean udaltzainek abisua jaso zuten gizonetako bat emakumezko bat erasotzen ari zelako, autotik biolentzia ateratzen. Erasotzailea atxilotu eta Bergarako Ertzaiztaren kuartelera eramane zuten. Astelehenean epaiketa bizkorra egin ostean, 150 euroko isuna eta urte eta erdiko urrutze agindua ezarri dizkiote erasotzaileari. Emakumeak ez ditu zauri larririk eta Emakume Txokoak halako kasuetarako dituen zerbitzuak emakumearen eskura jarriko ditu.

Deitzaileen arabera, zigorra "oso baxua" da "eragindako kalterako" eta "neurri gogorragoak" eskatu zituzten: "Amorrotuta gaude, nekatuta, halako gertaera bat berriro pasatzeaz. Ez dira bi hilabete pasatu azken erasotik...", gaineratu zuen Emakume Mundu Martxako Maitane Igartuak. Arazoa "errotik" desagerrarazteko lanean jarraitu beharra aldarrikatzen du Emakume Mundu Martxak: "Eraiketa matxistekin



Eguazten iluntzean Herriko Plazan egindako elkarretaratzea. | XABIER GOROSTIDI

batera, emakumeen aurkako sexu bortizkeria eta eraso fisikoak dira gizon eta emakumeon arteko desorekaren adierazgarri latzenak. Indarkeria matxistak, ordea, aurpegi asko dauzka eta ezinbestekoa da hau errotik desagerrarazteko lan egiten jarraitzea. Horregatik, herritarroei zein erakunde publikoei gai honen aurrean erabateko konpromiso eta inplikazioa eskatzen diegu".

Udal ordezkarien erreakzioak

Udal ordezkarien artean EAJko eta EH Bilduko ordezkariak har-

tu zuten parte agerraldian. Ander Garai zinegotzi jeltzaleak "irmoki" salatu zuen erasoak: "Gaur egungo gizartean biolentzia mota honek ez dauka lekurik. Onartezina da, emakume bat gutxieste da eta errespetu falta larri bat".

Bestalde, EH Bildu "oso kezkatuta" dago gertatutakoarekin: "Gure ustez ez dira arazo pertsonalak, lehen mailako arazo politiko eta kolektibo bat da. Horregatik uste dugu politikoki erantzun behar zaiola modu irmo baten. Guztion ardura da eta guztion artean geldituko dugu".

EH Bildu: "Itxurakeria agerian utzi du alkateak"

J.B. | ARRASATE

Martitzenean, Maria Ubarretxena alkateak Goiena Teletastak *Harira* saioan egindako adierazpenak kritikatu ditu EH Bilduk. "Itxurakeria agerian" utzi eta hainbat informazio "faltan edo modu interesatun" erabili izana salatu dute. Garbiketa ordenantzen harira, "errespetu falta itzela" iruditzen zaie alkateak Goienaren aurkako pintadak erabili izana adierazpen askatasunaren argudio moduan: "Goienaren eraikinean egin ziren pintadak adierazpen askatasunaren aurkako ekintzat jotzen genituen herriko eragile guztiek, gaur Udalak kendu nahi dugun adierazpen askatasun bera, alegia. Argudio hau erabiltzeak agerian uzten du ordenantza horren argudiaketa eza, ordenantzak ez baititu pintada horiek ekiditen".

Laubideko aparkalekuen auzia ere aipatu dute, besteak beste: "EAJk pribatizatu zituen bi aparkalekuak Gespark enpresari kontzesioa eginez eta euren kudeaketa eskasaren ondorioz, aparkaleku horiek birritan ordaintzeko arriskuan gaude".

Sexualitatea lantzeko hiru saio antolatu dira apiril amaierarako, gurasoei begira

J.B. | ARRASATE

Udaleko Sexologia Zerbitzuaren eskutik, sexualitatea lantzeko hiru saio egingo dira Kulturaren, apirilaren 18an, 21ean eta 25ean -18:00etatik 20:00etara-. Ikastaroak gurasoei daude zuzenduta: "Seme-alabak zorian zuzentzen lagutzeko, egiten dituzten galderak erantzuteaz gain, euren gorputza ezagutu, onartzen lagundu, komunikatu, hitz egin, entzun eta izan ditzaketen iritziak errespetatu behar ditugu", adierazi dute Udaletik.

Izen-ematea, hilaren 14ra arte

Saioak seme-alaben adinaren arabera antolatu dira. Lehena, hilaren 18koa, 13 eta 18 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoendako da; bigarrena, hilaren 21ekoa, 0 eta 5 urte artekoendako; eta hirugarrena, apirilaren 25ekoa, 6 eta 12 urte artekoendako. Interesatuak apirilaren 14a baino lehen eman beharko dute izena, 943 25 20 07 telefono zenbakira deituta edo www.arrasate.eus/izen-ematea helbide elektronikora idatzita.

Nafarroako historiaz, Zuztarrak Errotuz taldearen eskutik

Zuztarrak Errotuz taldeak hitzaldiak antolatu ditu datuzen hiru eguaztenterako; saio guztiak Kulturateko areto nagusian izango dira, 19:00etan. Apirilaren 13ko hitzaldia Juan-txo Agirrek eskainiko du, *Amaiurreko gaztelua* izenburupean. Hilaren 20ko hitzaldian Nafar Erresumako txanponen historia izango du hizpide Mikel Legorburuk eta amaitzeko, hilaren 27an, Floren Aozek Nafarroako aldaketaren gakoaz egingo du berba.

Arrazakeria salatzeke argazki lehiaketa, apirilaren 15era arte

Arrazakeriaren Aurkako Egunaren harira, argazki lehiaketa antolatu zuten Ekin elkarrekin eta Elkarheitzenean. Bada, izen-ematerako epea apirilaren 15era luzatzea erabaki dute. Bi sari egongo dira: 12 eta 18 urte artekoek 100 euroko bonua jasoko dute Ibai-Arteko dendetan gastatzeko eta 19 urtetik gorakoek, berriz, 150 euroko bonua. Argazkiak bidali behar dira emakumeak@ekinmakumeak.eus-era. Informazio gehiago: www.ekinmakumeak.eus.



Garbiketa ordenantzari hasierako onarpena emateko bozketak. | JOKIN BEREZIARTUA

Garbiketa ordenantzarako alegazio epea, zabaltzeaz

Udal Gobernuak "gertu" dago aldaketak egiteko

J.B. | ARRASATE

Azken asteotan Arrasaten zeresan handia eman duen garbiketa ordenantzari hasierako onarpena eman zuten udalbatzak EH Bilduren, Baleikeraren eta Irabaziren kontrakoekin (10) aurrera egin zuen ordenantzak. Osoko bilkura ezohikoa izan zen, ezohikoa iraupenean -oraingoz, agintaldiko luzeena-, ikusminean -aretoa lepo beteta eta alderdi politiko guztiak ordezkatura publikoan ere- eta adierazpenetan -tarteak errespetu faltak ere izan ziren-. Ordenantza asteon zen argitaratzeko Gipuzkoako Buletin Ofizialean eta ordutik aurrera 30 eguneko epea irekiko da alegazioak aurkezteko. Udal Gobernuak "gertu" dago oraindik ere aldaketak egiteko.

Errepublikako bandera balkoian

Garbiketa ordenantzaz aparte, Irabazik Bigarren Errepublikaren alde aurkeztutako mozio bat onartu zuen udalbatzak EH Bilduren, Baleikeraren eta Irabaziren aldeko botoekin (10), EAJren kontrakoekin (8) eta PSE-EEren abstentzioarekin (3). Apirilaren 14an Bigarren Errepublika aldarrikatu zela 85 urte beteko direnez, Irabazik mozioan eskatzen zuen, besteak beste, 1936ko uztailean 18ko altxamendu militarra gaitzestea, Frankismoaren biktima izan zirenak omentzea eta apirilaren 14an udaletxe bakoian bandera errepublikanoa jartzea.

EAJk mozioaren kontra bozkatu zuen bandera errepublikanoa espainiarra dela argudiatuta. PSE-EE, berriz, abstentitu egin zen mozioa zenbait argudiorik ez zetozeala adierazi ostean.

NIRE USTEZ

ITSASO ERRETOLATZA



Emakumeak musean

Musean entzerrona batean ikasi nuen. Oraindik gaztea eta eskolan ikasten nuen garai haietan, normalean ogiaren prezioaren igoeratik zein torturen salaketatik greba egitea. Akorduan dut gau osoa esna pasatu genuela eskolako sarrera eta eskaladatan lo zakueta sartu ere egin gabe. Gau hartan musean jokatzeko irakatsi zidaten, nahiz ta gerora gutxitan praktikan jarri, ondo barneratu nituen jokoaren gako eta rola betirako. Musean, gakoak apustu egitea da, karta onak izan ala ez izan pronto edo gezurretan ibili. Harrokeria duenak balentria erakusten du, orduan, batzuek amore ematen dute eta besteak miresmena handitzen joaten ohi da.

Musa izan da gure gizartean gizonen jokoak. Oraindik orain gutxienez kartak eskutan partida egiten duten bitartean, musean balezko bezala jokatzeko dituzte kartak egungo kudeaketa askok. Enpresetan, nahiz eta emakume kopurura tantakaz tantaka gehiagotzen doan, oraindik %50era heltzeko urrun egotetik, kudeaketa mahaietan oraindik ere distantzia handiagoa dago. Batetik, urteak beharko ditugulako poliki-poliki zuzendaritza mahai nagusienetatik gizakumeak erretiratu ahalak, lekua hartzeko; baina bestetik, oraindik ere gizonen rola agintzen duelako kudeaketa eremuan. Hala ere, nahiz eta dauden emakumeek musean jardun halaberrez, haiei esker poliki-poliki aldatuko da argazkia... eta jokoak. Badakizuen horiei, bejondeizuela!

"Oraindik gizonen rola agintzen du kudeaketa eremuan"

Nafarroako Erribera bisitatzeko aukera Abaroaren eskutik

Abaroa elkarrekin Nafarroako Erriberara irteera antolatu du apirilaren 19rako. Txanpinoia izango da txangoko izarra, Pradejoneko Fungiturismo ibilbidea ezagutuko dute eta, besteak beste, izena eman behar da hilaren 11n Etxaluzeko bulegoetan (11:00). Prezioa 32 euro da; txartelak hilaren 14an banatu dituzte, 11:00etan.



Lanuza (entrenatzailea), Altube, Gallardo, Oliden, Lopez de Aretxaga, Ugarte, Diaz eta Amozarrain. | ARRASATE DRAGOI

Euskadiko aerobikaren topagune izango da bihar Iturripeko kantxa

80 bat gimnasta etorriko dira; onenak Espainiako txapelketarako sailkatuko dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Euskadiko aerobik txapelketa jokatu da bihar, zapatua, Iturripe kiroldegian, 11:00etan hasita. Euskal Herriko gimnasia aerobikoko klub guztiak izango dira Iturripen eta gimnasta onenek apirilaren 29tik maiatzaren 1era bitartean Valladoliden jokatuko den Espainiako Txapelketan parte hartu ahal izateko txartela lortuko dute. 2013an antolatu zen

Euskadiko Txapelketa azken aldiz Arrasaten: "Urtero Euskal Autonomia Erkidegoko probintzia batek antolatzen du txapelketa eta aurrean Gipuzkoari tokatu zaio. Eta Gipuzkoa osoan gimnasia aerobikoa praktikatzeko duen talde bakarra garez, Arrasaten egingo da aurrean", adierazi du Arrasate Dragoi Gimnasia Taldeko entrenatzaile Edurne Elkoro. Klubak "oso gustura" anto-

latzen du txapelketa, Elkoroaren arabera: "Urte hasieratik prestatu behar izaten dira hainbat gauza, baina, kirol arloari begiratuz gero, gimnastentzat motibagarria da. Gimnastak gogor ari dira entrenatzen herriari ahalik eta lanik onena erakusteko".

Txapelketari dagokionez, 10:00etan talde bakoitzak muskarekin probatzeko aukera izango du eta 11:00etan hasiko dira

ESANAK

"Udal instalazioetan ez dugu inongo erraztasunik entrenatzeko orduak lortzeko"

EDURNE ELKORO | ENTRENATZAILEA

lehiatzen. Hainbat modalitate egongo dira: individuala, bikoteka, taldea, *aerodance*-a –gimnasia aerobikoa eta dantza koreografia–, *aerostep*-a... Bihar 80 bat gimnastak hartuko dute parte.

Ezin behar beste entrenatu
Txapelketan, gozatea izango da Arrasate Dragoi taldearen helburu nagusia: "Entrenatzeko leku arazoekin gabiltzan arren gimnastak gogor ari dira entrenatzen; emaitza ona lortuz gero, primeran!". Uarkape pilotalekuan entrenatzen dira eta Elkoro dio ez dutela ordu nahikorik izaten frontoia erabiltzeko moduan, "oso maila altukoak" diren txapelketak prestatzeko: "Ez daukagu inongo erraztasunik Udalarenak diren instalazioetan entrenatzeko orduak lortzeko. Horregatik diot gure neskek sekulako meritua dutela, oso maila altuan lehiatzen ari dira eta", gaineratu du.

ZALDIBAR

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
A MULTZOA		
1 Lasagabaster	8	1
2 Aldatz	7	0
3 Sonografos	6	1
4 Betrayer	2	1
5 Rayo Makabro	1	0
B MULTZOA		
1 Monte Taberna	8	1
2 Dribling	7	0
3 Abokajarro	6	1
4 Elorra JMA	2	1
5 Olympiakos FC	1	1

PARTIDUAK (2.FASEA)

APIRILAK 9, ZAPATUA
11:30 Aldatz-Betrayer / Elorra JMA

APIRILAK 10, DOMEKA
12:30 Dribling-Olympiakos FC / Lasagabaster
13:30 Lasagabaster-Sonografos / Dribling

Atsedendia: Rayo Makabro eta Abokajarro

Zigorrek eta atzerapenak

Elorra JMA taldeko bi jokalariri partidu bateko zigorra ezarri zaie epailea iraintzeagatik. Talde berak aste honetako partidua atzeratzea eskatu du eta Sonografos, berriz, ordu aldaketa eskatu du.

Orekaren bila 'Arrasasoi' ekimeneko bigarren saioan

Lesioak eta ererikoak saihesteko aholkuak emango dizkiete abonatuari apirilaren 11n eta 12an

J.B. | ARRASATE
Udaleko Kirol Zerbitzuak eskaintzen duen *Arrasasoi: Hamabi hile, hamaika gai* ekimeneko bigarren saioa hasiko dute etzi, hilak 6. *Orekaren bila* izena jarri diote bigarren ikastaroari; orka-

tilako eta belauneko lesioak eta ererikoak saihesten ikasiko dute, eta baita horiek gertatuz gero ondo erreazionatzeko gorputza nola hezi behar den ere. Saioak kiroldegiko abonatuendako dira, doan. Baldintza

bakarra da aurrez izena ematea; interesatuek kiroldegiko harreran galdetu eta eguna eta ordua aukeratzearrekin nahikoa izango dute. 30 minutu inguruko saioak izango dira eta Beñat Barberena gimnasioko aholkulari arrasatearra izango da saio horiek gidatuko dituen. Hurrengo ikastaroak apirilaren 11n 17:00etan eta 18:00etan eta 14an izango dira 09:30ean eta 12:00etan.

Erreserba finkoak
Bestalde, Udaleko Kirol Zerbitzuak asteon eman du aditzera maiatze-

tik irailera bitartean herriko kirol instalazioen erreserba finkoak egiteko eskaerak egin daitezkeela. Apirilaren 17a baino lehen egin behar dira eskaerak, eta honako hauek dira erreserbatu daitezkeen instalazioak: Musakolan, kantxa eta tenis zein padel pistak; Antoñan, kantxa, frontoiak eta squash kantxak; Iturripen, frontoiak, tenis pista eta kanpoko zelaiak; Uarkapen, frontoia eta errebotiloak; eta, Mojategin, futbol eta errugbi zelaiak. Eskaera orria Musakolako kiroldegiko harreraren entregatu behar da.

Mondra eta Bergara nor baino nor gehiago bihar

J.B. | ARRASATE
Begararen eta Mondraren arteko futbol derbia jokatu da bihar, zapatua, Agorrosinen (16:30). Derbiek izan ohi duten berezko lehia bereziaz gain, urrezko balioa duten puntuak egongo dira jokoan. Mondra bigarren dago (50 puntu) eta Bergara hirugarren (46). Eta Amaikak Bat liderra (58) harritatzea zaila izango dela aintzat hartuta, Ohorezko Erregional Mailara igotzeko aukera eman dezakeen bigarren postua lortzea garesti egongo da. Aste Santuko oporraldiaren aurretik jokatu azken partiduetan emaitza onak lortu zituzten bi taldeek, baina ikusteke dago oporren geldialdiak mesede edo kalte egingo dien.

Eroski-Dorletako Ama taldeak lan ona egin du Zestoan

Joan den zapatuan Zestoan jokatu zen Gurutzeaga Sarian ondo ibili ziren Eroski-Dorletako Ama taldeko ziklistak. Aldapa askoko eta haize handiko lasterketa izan zen; Arrasateko taldeko azkarrena Ifigo Aranburu izan zen, helmugan bederatzigarren postuan sartuta.



AITOR MENDIARAZ

Arrasate Rugby Taldeak Gernika B hartuko du bihar

Euskal Ligako bigarren mailan lehiatzen ari den Arrasate Rugby Taldeak ligako bigarren faseko hirugarren partidua jokatu du bihar Mojategin (16:30), Gernika B taldearen aurka. Gernika lider dator, eta, Igor Isasiren mutilek igoe-ra faserako sailkatu nahi badute, irabazi egin behar dute bai edo bai.

AGAKOren 25. urteurrena ospatzeko ekitaldiz betetako jaialdia izango da bihar

Askotariko ekintzak prestatu dituzte, herriko kultur eragileen parte hartze zabalari esker

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatuak 25 urte bete ditu aurten, eta, zifra boro-bil hori ospatzeko, AGAKO eguna antolatu dute. 1991n hazia erein zenetik gaur egun arte asko izan dira gaztetxeko asanbladan parte hartu duten kideak, eta horiek guztiak elkartu nahi izan dituzte egun bezeri hori denen artean antolatzeko.

Kide ohiez gain, herriko kultur eragile ezberdinak izango dira jaiaren beste protagonistetako batzuk. Besteak beste, SUDC elkarte, herriko txistulari, gaitero eta albokariak, erraldoi eta kilikiak, dantzariak eta nekazari zein artisauak jaialdiaren parte izango dira. Antolaketa lanetan aritu den Ekaitz Aranburuzabalak esan duenez: "Hasieratik ikusi genuen garbi ospakizuna herrira zabaldu nahi genuela. Ez genuen nahi gaztetxekoa bakarrik izango zen jai bat antolatzea".

Hasieran, beldur puntu batekin jarri ziren kultur eragileekin kontaktuan, baina lehen unetik agertu dira laguntzeko prest.



AGAKOko hasierako eta gaur egungo kideak gaztetxean. | JOKIN BEREZIARTUA

Egitarau zabala

Jai handiari hasiera emateko diana herrikoia egingo dute txistulari, gaitero eta albokariak. Jarraian, nekazari eta artisauen azoka irekiko da Biteri plazan eta aldi berean alternatiben azoka abiatuko dute Seber Altuben.

Azken horretan parte hartuko dute, besteak beste, fanzinerok, truk txanpon askea bultzatu nahi duten ekimenek, antimilitaristek, Ekintza Zuzenak edota diskogin-

tzako elkarteek. Txatxilipurdi Elkarte ere izango da, hezkuntza eredu alternatibo bat planteatzeko. Eguraldi txarra eginez gero, Uarkapen eta Gaztetxean kokatuko dira bi azokak.

Goizeko giroa berotzeko, erraldoi eta kilikiak, dantzariak eta txarangak arituko dira herriko kaleetan zehar. SUDC elkartearen eskutik bazkaria izango da herriko plazan, eta horren ostean ekitaldiaren txanda izango da. Egu-

AGAKO EGUNA

09:30: Diana herriko txistulari, gaitero eta albokariak.

10:00: Nekazari eta artisauen azoka eta alternatiben azoka irekiera.

11:00-14:00: Hitzaldiak: Goiener, Moc-ERagozen fiskala, Koop57, Moneta propioa, DDT banaketak eta La Gallina Vasca. 20 minutuko saioak.

12:00: Erraldoi eta kilikiak, dantzariak eta txaranga herriko kaleetan zehar.

14:30: Bazkaria herriko plazan.

17:30: Ekitaldia.

18:30: Elektrozarata elektrotxaranga.

22:30: Kontzertuak: Marianitoz Blai, Los Zopilotes Txirraios, Tirry&Tery DJak.

na borobiltzeko, Gaztetxean kontzertuak egingo dira.

Lapurreta Gaztetxean

AGAKOk jakinarazi duenez, azken astean 500 euro eta proiektorea ostu dituzte gaztetxean. Gertatutakoa irmoki salatu, eta herri mugimenduaren aurkako erasotzat jo dute.

Munduko kontu kontalari ezagunak Kulturaten gaur

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Apirilaren 23an ospatuko den Liburuaren Egunaren harira udal bibliotekak antolatu dituen ekitaldien artean, munduko txoko ezberdinetatik datozen kontu kontalari ezagunak izango dira gaur, egubakoitza, Kulturaten. Lehen saioa ikasleendako izango da eta Kamel Zouaoui (Frantzia eta Argelia) gidatuko du; Kulturateko areto nagusian izango da, 11:00etan. Hurrengo hiru saioak helduei zuzendutakoak izango dira eta honako hauek dira gonbidatuak: May Gorostiaga (Euskal Herria), Sandra Rossi (Argentina) eta Bonai

Capote (Ekuatore Ginea). Euskaraz zein gazteleraz izango dira kontaketak, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 19:00etan hasita.

Bestalde, gaur irekiko da Kulturateko klastroan *Rockomikiak* erakusketa (ikus 30. orria). Horrez gain, Eider Eibar marrazkilariak eta Miren Larrea ipuin kontalariak 4 urtetik gorako umeendako saioak gidatuko dituzte, *Zaku Bete Lelokeri* izenarekin; hilaren 19an, Santa Marinako bibliotekan (17:00) eta hilaren 21ean, Kulturaten (18:00). Amaitzeko, *El ala rota* komikia aurkeztuko dute Kulturateko Jokin Zaitegin (19:30).



Kamel Zouaoui.



Bonai Capote.



May Gorostiaga.



Sandra Rossi. | ARGAZKIAK: UDAL BIBLIOTEKA

Kantariko azken grabaketak asteburuan

J.B. | ARRASATE

Amaitzear da Debagoieneko karaoke ikuskizunaren bosgarren aldia; izan ere, Kantariko azken grabaketak egingo dira bihar eta etzi Amaia antzokian. Bihar, goizez (11:00-14:00) zein arratsalde (16:00-19:00) egingo dira grabaketak eta etzi, berriz, goizez bakarrik (11:00-14:00). Arrasate eta Aramaioko gaztetxoak izango dira protagonista; 294 gaztetxo daude Amaia antzokiko agertokira igotzera deituta. Zapatuan zortzi saio grabatuko dituzte eta domekan lau; 12 saio izango dira, guztira.

Ateak zabalik ikusleendako

Amaia antzokian ikusleendako leku arazorik egongo ez denez, ateak zabalik egongo dira grabaketek irauten duten bitartean.

Abian da Eskola Antzerkien bigarren fasea

X.G. | ARRASATE

Aste honetan hasi da Eskola Antzerki ekimenaren bigarren fasea. Lehen fasean ikasleak izan ziren oholtza gainera irten zirenak eta oraingoan antzerki talde profesionalak hartuko diete lekukoa.

Atzo izan zen lehen emaldia, eta bertan, DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleek *Futbolistak eta printzesak* antzezlanaz gozatu zuten.

Datorren ostegunean, Lehen Hezkuntzako 4, 5 eta 6. mailetakoen txanda izango da. Eurentzako *Magia lapurra* antzezlanaz izango da ikusgai. Fase honetako hirugarren hitzordua hilaren 21ean izango da. *Alibaba eta 40 lapurrak* antzezlanaz prestatu dute 7, 8 eta 9 urteko ikasleentzat.

Txorbelaren Galiziako bira

Martxoaren 28tik apirilaren 2ra Galizian biran ibili da Txorbela otzotea. Betanzosen (Coruña) eta Santiagoko Katedraleko Erromesen Mezan abestu zuten, besteak beste: "Oso harrera ona izan genuen eta oso hunkigarria izan zen. Publikoak gogo handiz eta txalo zaparradaz hartu gintuen", esan du Oskar Berezibar kideak.



TXORBELA OTXOTEA

Arrasate Musikaleko Txistulari Bandaren kontzertua domekan

Arrasate Musikaleko Lander Diaz de Gereñu, Jone Usobiaga, Amets Pagaldai, Agurtzane Mondragon eta Nagore Arizmendiarrrieta txistulariek, Susana Roa, Domentx Uzin eta Juan Karlos Larreategi silboteek eta Cristina Grella perkusionistak kontzertua eskainiko dute etzi, domeka, Herriko Plazan (19:00).

Kontratatu dute eszena aholkularitzarako enpresa

- Kultura aretoko lanetarako horren premia agertu zuen udal aparejadoreak
- Kultiba bizkaitarrak zainduko du obrak baldintza eszenikoak betetzea

JULEN IRIONDO | BERGARA

Kultiba enpresa bizkaitarra aukeratu du Udalak, zituen bi eskaintzen artean, Seminarioko kultura aretorako aholkularitza tekniko-eszenikorako. Udal aparejadoreak agertutakoa da kontratazio honen beharra, eta enpresa horretako teknikarien ardura izango da orain: proiektu tekniko-eszenikoaren idazketa, Udalaren eta herriko kultura eragileen artean egingo diren bileretan landutakoa jasoz; proiektu arkitektonikorako aholkularitza ematea, obra zibila egiterakoan ikuspegi eszenikotik kontuan hartu beharreko gai guztiei buruz; ekipamendu tekniko-eszenikoaren hornikuntza eta instalazio zerbi-



Hedabideei azalpenak emateko obretara egindako bisita. | ENENKO AZURMENDI

tzuak kontratatzeke lehiaketan, Udalari aukeraketan laguntzea. Horrela onartu zuen astelehenean Gobernu batzordeak.

Obra zibila, abuzturako

Bergarako Udalaren asmoa da Seminarioko eliza zaharra kultura erabilerarako egokitzeke

lanak abuzturako amaitzea. Erretaula zaharberritzeari ekingo diote ondoren, urte amaierarako-edo bukatzeko. Balio handiko erretaula dela eta lanak enpresa berezi batek egingo dituela azaldu zuen Elena Lete alkateak berriki lanen gaineko argibideak emateko egindako agerraldian. Ondorengo fasea izango da aretoa ekipatzea. Erabilgarri noizko egongo den aurreikuspenik egitea ez du nahi oraingoz Udalak, baina, alkatearen arabera, "martxoan" doaz lanak.

Irizpide eszenikoei dagokionez, Udaletik adierazi dute kontratatutako enpresaren jarraibideekin batera, herriko kultura eragileen iritzia ere kontuan izaten jarraituko dutela. Zentzu honetan, eragileek obraren jarraipena egiteko aukera izango dutela iragarri zuen alkateak, baita udalbatzako alderdietako ordezkariak ere, eta aldizka bisitak egingo dituztela obretara; aurrenekoak hil honetan bertan izango omen dira. Obraren berri herritarrei ere hedabideen bidez hiru hilean behin emango dietela iragarri dute Udaletik, "aurreko agintaldiko prozesu parte-hartzaileari jarraipena emanez".

Urteaga-Ibargarai bidegorria, laster lizitaziora ateratzekotan

J.I. | BERGARA

Urteaga eta Ibargarai –autobus geltoki inguru; haren atzealdean Labegaraieta eta Agorrosin arteko bidearekin egingo du bat– arteko bidegorriko lanak, Foru Aldundiaren Mugikortasun eta Bide Azpiegitura Sailaren onarpenaren zain –geltokiari eragiten dielako–, laster lizitaziora ateratzeko asmoa du Udalak. Bidegorria Urteaga barnealdetik joango da, eta Deba ibai aldamenara iritsiko da Canalejas taberna zegoen inguruan. Handik egingo du geltokia arteko bidea.

Gobernua lanak lizitaziora ateratzekotan den honetan, oposizioak eskatu dio, hori egin gabe, autobus geltokia egokitzea azter dezala. Irabaziko zinegotzi Aiert Lizarralde atera zuen gaia azken osoko bilkuran.

Irabazik dio geltokiak hainbat arazo dituela, hala berresten dutela erabiltzaileen eta autobus gidarien esanek; esate

baterako, autobusez gain, apartatuta dauden kotxeak eta autobusa hartu behar duten pertsonak uztera sartzen direnak batzen direla, eta gune hark soilik autobusentzat izan behar lukeela. Horregatik, eskatzen dute bidegorriaren exekuzioa geltokiaren planifikazio berri baten arabera izatea.

Gauzak aurreikusita dauden bezala, baina, proiektua bidegorriari dagokio, eta geltokiko gunean aldaketa txiki batzuk besterik ez dira egingo –argindar dorre bat lekualdatu eta landaredun isleta kendu, lekua irabazteko–. Gobernuak azaldu du proiektua aurreko agintalditik datorrela, eta geltokia berrantolatzea ez dagoela aurtengo aurrekontuetan. Dena dela, geltokira oinez iristeko modua hobetzea mugikortasun mahaiari aztertuko dutela dio Gobernuak. Inguru hartako arriskua da Irabazik ohartarazi duen beste gauza bat.

Lehenengo egunetan %70 inguruk jaso dute edukiontzietarako txartela

J.I. | BERGARA

Aste Santu eta Pazko Asteko ete-naren ostean, astelehenean ekin zioten berriro opor-saso aurretik hasitako txartel banaketari. Apirilaren 18an jarriko du Udalak martxan herrian hondakinak batzeko edukiontzi bidezko sistema, eta Obra eta Zerbitzu batzordeko buru Lander Arregi gustura agertu da lehenengo egunetan



Banaketa, Labegaraietan. | O. ELORTZA

deituta zeudenen %70 inguruk jaso dutelako errefusaren eta organikoaren edukiontzientzako txartela.

Datorren egunean bukatuko da txartelen banaketa, eta gaurtik ordura bitarteko banaketa denak Oxirondo azokan egingo dira –10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara–. Bertan izango dute txartela jasotzeko aukera, ez bakarrik berez dagozkien kale eta auzoetako bizilagunek –norberak joan ezin badu, beste batek jaso dezake, lehenaren telefono zenbakia emanda–, baita aurreko egunetan jasotzea zegoen eta jaso ez zuten bizilagunek ere.

Hor ere jaso ezean, azken aukera izango da apirilaren 18tik aurrera Hondakinaren informazio bulegoan jasotzea. Etxebizitzetan jarritako bando bidez ari da jakinarazten Udala leku bakoitzeko bizilagunek noiz eta non jaso behar duten txartela –Udalaren webgunean ere badago–.

NIRE USTEZ

PEDRO GARITANO



Indizea

Gauzak zehazteko hainbat eta hainbat indize daude. Gogoan dut behin enpresa baten zatitza lan egiten zuen garraio-lari bati, era inozoan galde-tu niola ea nola zihoan negozioa, eta bere erantzuna oso baliagarria izan nuen enpresa berak eman zidan finantza egoerari buruzko txostena kontrastatzeko.

Beste indize bat, hiri handietako *villamiserietan* sortzen diren giza mugimenduen da, non kasu askotan eskuratu dezaketen bakarria telefono mugikorra den, giza harremanetarako tresna aparta.

Beste bat, oso bitxia gainera, Japonian ikus dezakegu: parafarmazietan eta antzerako komertzioetan umeentzako baino helduentzako fardel gehiago saltzen omen dituzte, hori baita jaiotze tasa txikienetarikoa duen herrialdea, eta jendarte zaharrena, aldi berean; eta, horrela, etengabe egon gaitezke indizeak aipatzen.

Eta gogoeta horien hari-bera burura datorkit –zergatik izango da?– Bergarako gune batzuk ze zikin gelditzen diren ordu jakin batzuetan: paperak, plastikoa, azalak, ogitarteko ederrak izandakoen hondarrak eta abar kaleetako espaloietan sakabanatuta; eta ez da egoera hori salatzen dudana lehenengo aldia, tristuraz, kultura eza erakusten duen indizea, alegia.

Ez noa *dagokionari* esatera, nahiz eta oso argi dudana nori dagokion; ez, indizeak duen garrantzia aipatu besterik ez dut nahi.

"Begarako gune batzuk ze zikin gelditzen diren ordu jakinetan"

Aritzetako bidea prestatzen

Lur-jausia gertatu, bidea bera behera etorri eta Arizetako hiru baserriara ezin daiteke azken asteetan autoz iritsi. Hasi dira lanak egiten, eta 15-20 egunetan autoentzako behin-behineko bidea prest egongo da, Udalak dioenez.



JULEN IRIONDO

OHARRAK

EGUAZTENEN AZOKA ETA KAFEKONPON, BATERA

Apirileko kafekonpon Oxirondan izango da, eguazteneko azokaren barruan, 16:00etan.

ODOL EMATEA

Eguaztenean, 18:00etan hasita, anbulatorioan.

DOMEKA AZOKA

Hilaren 24korako izena emateko azken eguna 17a da.

Maiatzaren 13ra arte ordaindu daiteke ibilgailuen zerga

Urtero legez, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren 2016. urteko errolda onartu du Udalak. Zerga ordaintzeko borondatezko epea maiatzaren 13an bukatuko da. Egun horretatik aurrera errekararekin eskatuko dela ohartarazi eta berri eman nahi die Udalak herritarrei.



Bedelkarko eta Udaleko ordezkariak azokaren aurkezpenean. | AMAIA TXINTXURRETA

Garagardoa eta festa asteburuan Boluan

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Gaurtik hasita, Garagardo azoka egingo dute, lehenengoz, asteburuan zehar, Bolua auzoan. Bedelkarrek udalaren eta Miner Ardoak-en laguntzaz antolatu du ekimena. Auzoetako komertzioa sustatzea da euren helburua.

Egubakoitzetik domekara, karpa bat izango da Koldo Eleizalde kalean, eta bertan, jatorri desberdinetako bederatzigaragardo mota dastatzeko aukera izango da, eta jatekoa ere izango da, txerri-ukondoa, saltxitxak eta oilaskoa, besteak beste. Kontzertuak eta bestelako ekimenak ere izango dira azoka girotzeko.

19 mahai eta 120 pertsonarendako tokia dago garagardo azokarako jarri duten karpan.

EGITARAUA

EGUBAKOITZA

19:00 DJ Menez.

22:00 Screammers and Sinners.

ZAPATUA

12:00 Umeendako jolasak.

19:00 DJ Menez.

20:00 Serious Business.

22:00 The Nottingham Prisas

DOMEKA

12:00 Dantza: Camden Town + Abarka

Zientzia programak ezagutzeko aukera eta Atapuercara txangoa

Laboratorium museoak antolatu ditu hitzorduak

M.T. | BERGARA

Hurrengo egubakoitzean, apirilak 15, topaketa berezi bat izango da Laboratorio museoan: *Natur Zientzien arloko herritarren zientzia programak eskualdean?* Bertan, boluntarioen zientzia programak izango dituzte hizpide; hau da, boluntario moduan zientzia proiektu batean aritu diren herritarren lana edo laguntza udalen edo instituzioen mesedetan erabiltzeko programak aurkeztuko dituzte.

Zientzien arloko boluntarioritza hori modu desberdinetan garatu daiteke, eta horiek aurkeztuko dituzte, baita bertako eta kanpoko ereduak ere.

Natur zientzien arloan formakuntza edo zaletasuna duen oro dago gonbidatuta parte hartzera. Era berean, topaketa honekin neurtuko dute zein aukera egongo litzatekeen Deba-goienean era honetako programak martxan jartzeko.

Museoan udaberriaren zehar ikusgai dagoen *Loreak asmatzen: Naturzale Europarrak Euskal Herrian* erakusketaren inguruko egitarauaren baitan kokatzen da irteera hau.

Atapuercara irteera

Bestalde, Atapuercako aztarnategia eta Burgosko Giza Eboluzioaren Museoa ezagutzeko txangoa antolatu du apirilaren 16rako (zapateria) Laboratorio museoak, interesa izan dezakeen herritarrei zuzenduta. Egun osoko irteera izango da.

Hilaren 13ra arte eman daiteke izena Laboratorio museoan, 15 euro ordainduta. Prezioaren barruan autobuseko bidaia eta sarrera bisita gidatuak sartzen dira. Bazkaria, berriz, norberaren kontu.

Estresa kudeatzen ikasteko saioak antolatu dituzte

M.T. | BERGARA

Udaleko Ongizate Zerbitzuak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean *Erlajazio teknikak: estresa bideratzen, lasaitzen ikasteko* izeneko doako ikastaroa antolatu du, Sendian Programaren baitan. Mendekotasuna duten adineko pertsonekin bizi diren familiei laguntzeko helburua duen programa da Sendian.

Ikastaro honen helburua zaintza jardueraren ondorioz sortu ohi den nekea askatzen ikastea da, "buru-pentsamendu, emozio mailan eta gorputz mailan ere". Saiotetan, azalpen teorikoak ariketa praktikoekin tartekatuta dira.

Agorrosingo ekintza gunean izango da ikastaroa, eta sei egunetan burutuko dituzte saioak: apirilaren, hilaren 15ean, 22an eta 29an, arratsaldean izango dira, 15:00etan hasi eta 17:30era.

Maiatzean, goizez egingo dituzte saioak. 6an, 13an eta 20an izango dira hitzorduak, 10:00etatik 12:30era.

Izena Bergarako Gizarte Zerbitzuan eman daiteke doan, udaletxeko bigarren solairuan, edota 943779165 telefonon deituta edo *ongizatea@bergara.eus* helbide elektronikora mezu bat idatzita.

Otarrea, elikagai bankura

Argazkiko produktuekin osatutako otarrea sari zuten txartelak saldu zituen Sarek Erramu Zapatuan. Zozketa egin, eta ateratako zenbakiaren jabea ez zen agertu. Ondorioz, Sarek elikagai bankuari eman dizkio otarreko produktuak. Sareko ordezkaria elikagai bankukoekin agertzen da argazkian.



SARE

San Martin eskolak irabazi du Gazte Irekia

KOMUNITATEA GOIENA
SAN MARTIN AGIRRE ESKOLA | BERGARA

Ekimenaren hirugarren edizioan 6. mailako ikasleek hartu dute parte; EAeko ikastetxeetako hamazazpi taldek denera. Herritarren botoei esker, azken fasea iragarotzea lortu genuen, beste bi talderekin; jantokietako janariaren kalitatea eta jasangarritasuna izan da gure ikasleek landutako gaia.

Azken fase horretan, profesionalen osaturiko epaimahai batek eman zion garaipena gure proiektuari, proposamen zehatz eta ikastetxeetako eguneroko gai bat jorratzen duela eta ikastetxeen iraunkortasunarekin lotuta dagoela iritzita. Hori

horrela, Iñigo Urkullu lehendakariaren aurrean aurkeztuko eta defendatuko dute proposamena ikasleek.

Lehendakaritzak bultzaturiko ekimena da Gazte Irekia. Gazteek mundua nola ulertzen duten ezagutzeko helburu; horretarako, horien iritzia eta sormena uztartuko dituen proposamenak biltzen dituzte. Bide batez, ikasleen artean eztabaida ahalmena eta ekimena ere sustatu nahi ditu, gazteak bizikidetzatza demokratikoan hezi eta herritar gisa gizartean parte hartzen hastera bultzatuz.

Eskerrak eman nahi dizkiegu gure proiektuari babesa eskaini dioten herritarrei!



Eskerrak emateko egindako muntaia. | SAN MARTIN ESKOLA

Ariketa fisikoaren gainera hitzaldia Mariaren Lagundian

Hitzaldiaren izenburua izango da *30 arrazoi kirola egiteko. Ariketa fisikoaren onurak osasunean*. Hizlaria Luis Mari Zulaika izango da: pedagogian doktore eta EHUko irakaslea; kirolaren psikologian aditua eta gorputz hezkuntzako irakasle espezializatua. Kirolaren onurari buruzko hainbat artikulu ere argitaratu ditu. Eguenean, hilak 14, 18:00etan.

Helduen eskolan egindako ikerketa aurkeztuko dute

Beatriz Sanchez irakasleak duela hiru urte ikasleen artean egindako galdeketa batetik ikerketa egin du inteligentzia emozionalaren gainean, eta hari buruzko hitzaldia egingo du hilaren 13an, 17:00etan Irizarren: *Adimenaren Teoria inteligentzia emozionalaren oinarrian, Mayer eta Salovey-ren ereduaren (1997) arabera*.

Irailaren 25a bitartean aurkez daitezke 2017ko egutegirako argazkiak

Gaia izango da *animaliak*. Argazkia Bergaran ateratakoa izan beharko da edo, gutxienez, Bergararekin lotutako motiboren bat agertu beharko da: Bergarako herritarren bat, animalia bera Bergarako izatea... Herrian jaio edo bizi den edonork aurkez ditzake argazkiak; aukeratutakoengatik ordaindu egingo dute.

Zezeagaren garaipenarekin hasi da Bergara Hiria txapelketa

Bergarar gazteak promes mailan debuta egin zuen martitzenean, etxean

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA
Abian da dagoeneko 21. Bergara Hiria pilota txapelketa. Martitzen honetan jokatu dira lehenengo partiduak Udal Pilotalekuan, promes mailan zein nagusietan.

Josu Zezeagak, Jose Mari Zezeaga pilotari profesional ohia- ren semeak, debuta egin zuen atzo promes mailan, baita debut ona egin ere, Salaberria aurrelariarekin batera 22-12 irabazi baitzioten Etxeberria-Ruiz bikoteari. Salaberria oso ondo aritu zen aurrean, eta Zezeaga ere aurkaria baino hobeto ibili zen atzeko koadroetan.

Nagusien mailako partiduari dagokionez, Santxok eta Gorrotxategik 22-13 irabazi zuten Labakaren eta Sarasaren kontra.

Datozen kanporaketak

Datozen martitzenetan pilota hitzorduak izango dira. Datorrenean, esaterako, 19:30etan hasita, Larena-Salaberri bikotea Riol-Artolaren aurka arituko da promesetan. Nagusietan, Ugalde-Martinez eta A.Etxeberria-O.Etxeberria izango dira aurrez aurre.

Kategoria bakoitzean irabazle suertatzen den bikoteak finalerdia jokatu du asteon iraba-



Zezeaga gaztea, ezkerretik hasita hirugarrena. | XABIER URZELAI

zi duen bikotearen aurka, maiatzaren 3an.

Eneko Muguruza bergararren partidua hilaren 26an izango da. Murgiondo bikotekidearekin batera arituko da Errandonea eta Mariezkurrenaren kontra, finalerdietara sailkatzeko lehian.

Reyes Azkoitia antolatzaileak badaki zer eskatu etxeko jokalariei, Muguruzari zein Zezeagari: "Dakitena erakuts dezatela, horrekin nahikoa. Irabazi egiten badute askoz ere hobeto, baina, kantxan

dakitena erakusten badute, lan txukuna egiteko kapaz dira".

Gaurko partiduak

Gaur, berriz, Udaberri txapelketa partiduak izango dira Udal Pilotalekuan, 19:15ean hasita. Alebinetan, Euskal Jolas-Bergara; kadeteetan, lau terdian, Salegi-Etxaniz lehenik eta Ruiz de Larramendi-Gartzia ondoren; gazteetan, Mozo-Otermin; bukatzeko, nagusietan, Zubizarreta-Diez partidua izango da.

LABEGARAIETA

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Estrella Coja	36	14
2 Erretuxa	30	13
3 Komando Piperrak	30	14
4 River City	29	14
5 Poteo Izarrak	23	13
6 America	23	13
7 Birgerias	15	13
8 Arrano Zabalik	15	14
9 Vodka Juniors	10	13
10 Sanpe United	9	13
11 HIS	9	14
12 SVC	7	14

PARTIDUAK

Apirilak 10, Domeka
 16:00 River City-Sanpe U. / Estrella Coja
 17:00 America-Estrella Coja / River City
 18:00 Vodka Juniors-SVC / America
 19:00 K. Piperrak-Poteo Iz. / Birgerias
 20:00 Arrano Zab.-Birgerias / K. Piperrak

Pol-Poleko gazteen egun osoko irteera hurrengo domekan

Apirilaren 24an, hurrengo domekan, egun osoko txangoa egingo dute Pol-Pol mendizale elkarteko gazte taldekoek: Arantzazu-Elgea-Andarot-Urkulu-Aretxabaleta ibilbidea egingo dute. Izen ematea 12 euroren truke egin daiteke Pol-Pol MTren bulegoan, Fraiskoazuri plazan, astelehen, eguen eta egubakoitzetan 19:00etatik 20:00etara. Apuntatzeko azken eguna hilaren 21a da. Irteera goizeko zortzietan izango da, autobus geltoki nagusitik.

Musika eta irakurketa apirilean zehar

M.T. | BERGARA

Hitzordu interesgarriak beteta dator apirila, eta musika eta liburuak izango dira protagonista. Bestalde, hilaren 16an, Jakoba Errekondok *Ilargiaren egutegia* hitzaldia eskainiko du Uberan, 11:15ean.

Trikitixa Eguna

Apirilaren 16an Bergaran ospatuko da Debagoieneko XII. Trikitixa Eguna, eta egun osoan zehar hainbat ekitaldi izango dira: solasaldiak, bazkaria, musika emanaldiak... Bukatzeko, 23:00etan, Gozategi taldeak kontzertua eskainiko du San Martin plazan.

'Apirilean musika'

Bigarren hamabostaldian Musika Eskolak antolatuta *Apirilean musika* egitasmoa izango da, herria musikaz beteko duena. Musika Eskolako ikasleen hainbat emanaldi izango dira, eskolan, Zabalotegi aretoan eta kalean. Esaterako, Udal Bandak kontzertu didaktikoa eskainiko du hilaren 17an. Bestalde, hilaren 19an, *Marraskien bizitza?* umeentzako emanaldia izango da Musika Eskolan. Ekimenaren bigarren aste-ko hitzordu ia guztiak kalean egingo dira: rock musika, abesbatzak, Big Banda...

Apirila, liburuen bueltan

Apirilaren 23an liburuaren eguna ospatzen dela eta, urtero legez zerbait berezia egingo dute Bergarako Udal Liburutegian. Hala, errepikatuta dauzkaten hainbat eleberreri erabiltaileen eskura jarri dituzte. Bestalde, gaurtik hilaren 22ra bitartean edozein motatako mailegu bat egiten dutenen artean *e-reader* bat zozketatuko dute. Horretaz gain, ohiko irakurketa klubeko saioak eta ipuin kontaktak izango dira. Gainera, gaztetxoek Maite Franko ipuin kontalariarekin izateko aukera ere izango dute 21ean, herriko ikastetxeekin batera antolatutako saioan.

Bizikletarekin lotutako hainbat hitzordu izango dira datozen egunotan herrian

Bergarako bizikleta jardunaldiak antolatu dituzte bosgarren urtez jarraian

M.T. | BERGARA

Bosgarren urtez martxan daude Bergaran bizikleta jardunaldiak. Eguaztenean izan zen lehen ekintza: kafe tertulia, bi ziklistarekin, Murias taldeko Eneko Lizarralde bergararrarekin eta Xabier Murielekin, Agorrosingo tabernan.

Hurrengo hitzordua martitzenean izango da. Lehen sorospen ikastaroa eskainiko dute Agorrosinen, 20:00etan. Bihar arte eman daiteke izena hiru euroren truke.

Hilaren 14an Emakumeen Bira ibarrera dator, Eskoriatzan hasi eta bukatuko den etapan.

Kirol festa eta kirola kalera

Hurrengo asteburua ere ekintzaz beteta egongo da. 16an, zapatua, udaberriko kirol festa izango da Agorrosinen 17:00etatik 20:00etara bitartean: *master class*-a, areto txirrindularitza, *krossfit*-a, *zumba*... Izena eman behar da apirilaren 15a baino lehen Agorrosinen (3 euro).

Domekan, berriz, Kirola Kale-

ra eguna izango da, eta, beti bezala, hainbat kirol jarduera antolatuko dituzte; besteak beste, mendi bizikleta martxa, emakumeendako martxa eta familien-dako irteera. Baita bizikleta eliptiko eta elektrikoak ere.

Horretaz gain, jolasak, *nordic walking*-a, patinak edota *trail running* moduko ekintzak ere izango dira.

Bizikletaren eguna

Apirilaren 19an Bizikletaren Nazioarteko Eguna da, eta, horren



Eguazteneko kafe tertulia. | M.T.

harira, herriko ikastetxeek gaierekin lotutako marrazki erakusketak egingo dute, eta eskolara eta lanera bizikletan joatea sustatuko dute.

Hilaren 24ko domeka azokan, bestalde, ziklismoarekin lotutako bigarren eskuko materiala saldu eta erosteko aukera izango da.

Zarautz hartuko du etxean saskibaloit taldeak

Zast Zarautz taldea hartuko du bihar Bergara Kirol Elkarteko saskibaloiko senior taldeak Labegarrietan, 16:30ean hasiko den norgehiagokan. 23. jardunaldiari dagokion partidua izango da. Hain justu ere, taulan mahone- roen aurretik dagoen taldea da Zarauzkoa, azkenaurrekoa. Hirugarren garaipena erdiesteko aukera polita izango dute, beraz, Jon Beistegiren mutilek.

ANTIA
 HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
 Matxiategi 8. BERGARA
 Tel.: 943 76 15 09

TOKI-ONA
 Bodegoia-taberna
 Eguneroko janariak
 Txitxizotzak
 Kazolatxoak
 Txabierroak
 Matxiategi 1. BERGARA
 Tel.: 943 39 53

disdira
 ile-apaindegia
 edertze gela
 Masterreka 7
 BERGARA
 Tel.: 943 76 00 55

Kabutzia
 ARRANDEGIA
 Fraiskoazuri 6
 BERGARA
 Tel.: 943 76 56 62



Kanpainan parte hartu duten hainbat boluntario oñatiar Siriara bidali dituzten produktuak kamioian sartzen. | HOTZ OÑATI

Oñatin batutako zati bat heldu zaie errefuxiatuei

- Bi boluntario joan dira Calais-era, furgonetan
- Diruarekin produktu freskoak erosi dituzte han

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Hotz Oñatik egindako deialdiari esker, 7.000 kilo baino gehiago bildu dituzte Oñatin, gerretako errefuxiatuei laguntzeko. Pazko Astean bidali dituzte 6.500 kilo

janari eta garbitasun produktu eta 57 koltxoi Madrilerara, handik Siriara bidaltzeko. Beste 1.200 kilo inguru, baina, Hotz Oñati, Hotz Bergara, Hotz Zarautz eta Aguraingo Lautadabero elkarteek

batutakoa, Hotz Oñati taldeko kide baten gurasoek eraman dituzte, euren furgonetan, Aste Santuan. Zarautzarrak dira biak eta Oñatin bizi den alabaren bitartez egin dute bidaia Frantziako iparraldean dagoen Calais-eko errefuxiatuen kanpalekura. "Arropa, kanpin denda eta janaria eraman dugu batez ere. Hiru egun egin genituen han. Batetik, sexu eta neurrien arabera pilatutako arropa sailkatzen ibili ginen. Errefuxiatuek badakite zein egunetan norendako arropa banatzen den, eta prestatzen aritu ginen. Baita janaria prestatzen ere. Ingalaterrako elkarte bat arduratzen da sukaldeaz eta egunero 2.000 lagunendako bazkaria prestatzen dute. 20-35 urte bitarteko gizon gazteak dira jateko ilara egiten duten gehienak; familiek nahiago izaten dute osagaiak hartu eta bereiak prestatzea jatorriak, umei beharra dutenean emateko, adibidez. Egun baten, bestalde, Dunkerque-ko kanpalekura joan nintzen, hango errefuxiatuen artean janaria banatzera", kontatu du aitak.

Euskaldun askorekin egin dute topo han, denak laguntzera joanda, asko Aste Santuko oporrak aprobetxatuz. Italiatik, Bartzelonatik, Zaragozatik, Extremaduratik, Madrildik eta Ingalaterratik joandako boluntarioak ere ikusi dituzte. "Elkartasuna handia dela ikusi dugu. Dena ondo antolatuta dute, gainera, eta errefuxiatuek asko eskertzen dute laguntza. Kezkagarriena, baina, euren egoera da. Elkarte bitartez uneoro daude informatuta eta egoera zein den badakite. Baina politikariek erabaki duinak hartu ez ezean, etorkizunak ez du itxura onik. Lehen bi kanpaleku zeuden Calais-en, baina batean errefuxiatuek egindako eliza bat dago bakarrik orain. Egungo kanpalekua ere ekainean botako duten zurrumurruak zabaldu dira", adierazi du.



Sukaldari, Calais-en. | HOTZ OÑATI



Produktuak sailkatzen. | HOTZ OÑATI



Fruta, oilaskoak eta berdura erosi zituzten diruarekin. | HOTZ OÑATI

Janaria erosi dute batutako diruarekin

Furgonetan eramandako produktuez gain, Oñatin batutako diru kopuru bat ere eraman dute Calais-era eta janaria erosi dute han. "Berdura, oilaskoak eta fruta erosi ditugu. Egunero jan behar dute, guk bezala, eta premia larriena janarian zegoela ikusita erabaki genuen dirua jakiak erosteko erabiltzea. Aurrerantzean batutakoa hango lagunei eman ahal diegu, beharrezko produktuak erosi ditzaten", diote. Laboral Kutxan du zabalik kontua Hotz Oñatik.

Maia eta Zarraoa datoz eguaztenean, erabakitze eskubideari buruz jardutera

O.E. | OÑATI

Erabakitze prozesuari, galdeketa eta euren esperientziei buruz hitz egitera datoz Jon Maia eta Iñaki Zarraoa Oñatiara. Apirilaren 13an, eguaztena, etorriko dira, 19:00etan, kultura etxera. Oñatiko Erain Debagoiena taldeak gonbidatuta datoz biak eta hitzaldiaren izenburu zehatza hau da: *Herri galdeketa? Hitz egin dezagun.*

Sinadurak

Bestalde, dagoeneko 1.000 sinadura baino gehiago batu dituzte Oñatin eta datozen egunetan ere batuko dituzte. Esaterako, bihar, zapatua, Eroskin egongo dira 10:00etatik 12:00etara; domekan, Azkoagainen, 16:30ean, Aloña Mendi eta Hondarribia partiduak irauten duen bitartean, eta 14an, egoitzan eta Ona taberna aurrean, 19:00etan.



Jon Maia. | ARGIA.EUS



Iñaki Zarraoa. | GOIENA

Goiena telebistako 'Harira' saioan izango da Mikel Biain martitzenean

O.E. | OÑATI

Goiena telebistako *Harira* saioan parte hartuko du Mikel Biain alkateak datorren martitzenean, apirilak 12.

Eneko Azkarate kazetariak egingo dio elkarrizketa alkateari, eta ingurugiroari, hiritzintzari, zerbitzuei eta beste-lako gaien buruzko galderak egingo dizkio, denak herriari lotutakoak. Baina herritarrek ere izango dute aukera euren galderak, iritziak edo iradokizunak helarazteko alkateari. Horretarako, hiru bide zabaldu ditu Goienak: Whatsapp bidez mezua 688 69 00 07 telefono zenbakira bidaliz, berriak@goiena.eus helbidera gutuna bidaliz



Mikel Biain. | GOIENA

edo Goiena App aplikazioa erabiliz. Astelehen eguerdira arte egongo da zabalik epea herriarren galderak jasotzeko.

Elkarrizketa martitzenean emitituko da, 22:00etan.

Hiruzpalau hilabeteko lana izango da parrokiako teilatua konpontzea

O.E. | OÑATI

Datozen hilabeteetan San Migel parrokiako teilatuaren zatirik handiena konponduko dute. Duela bi urte pasa, 2013an, Pietateko Kaperaren gaineko zatia konpondu zuten, kaltetuen zegoen zatia, hain justu, baina teilatuaren gainontzeko zatia ez zen ukitu. Orain, teilatuaren zati nagusia konponduko da.

Garabia aste honetan muntatu dute eta espero da lanek hiruzpalau hilabete irautea. Corpus jaiak, baina, normaltasunez ospatu ahal izango direla azaldu du Jose Antonio Larrañaga parrokoak. Lanek 132.000 euroko aurrekontua dutela gaineratu du Larrañagak,



Parrokiako lanak. | O.E.

eta azaldu du Udalak %30 eman-gu duela. Ulmakoek aldamiok utziko dizkiete eta diruz ere lagunduko diete, eta gainontzekoa Elizaren erakundeek eta parrokiak berak jarriko dute.

'Berbia ixuketan' ekimena abian da gazteen irakurzaletasuna bultzatzeko

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko ekintza ugari izango dira apirilean

MAIDER ARREGI | OÑATI

Apirilaren 23an, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatuko da. Hala, Oñatiko Udal Liburutegian makina bat ekintza egingo da *Tertulixan* ekimenaren baitan. Apirilaren 13an, *La pequeña comunista que no sonreía nunca* (Lola Lafon) liburuaz berba egingo dute; apirilaren 20an, aldiz, Joxe Azurmendi filosofoak idatzitako saiakera liburu *Barkamena, kondena, tortura* izango dute berbagai. Irakurle taldeen bi saioak eguaztenezan 18:30ean egingo dira liburutegian.

Lur Usabiaga ipuin kontalariak apirilaren 28an, eguna, 6 eta 10 urte arteko umeendako saio eskainiko du, 18:00etan hasita, haur liburutegian.

'Berbia ixuketan'

Maiatzean, aldiz, *Berbia ixuketan* ekimena abian jarri gura du Udal Liburutegiak. Helburua da 13 eta 15 urte arteko gaztetxoek irakurzaletasuna bultzatzea. "Gazteen artean irakurle taldea osatu gura dugu. Oraingo, dena irekia dago. Lehenengo, taldea osatu, eta ondoren, euren proposamenen arabera antolatuko dugu maiztasuna, eguna, ordua... Gure lana da kalitateko genero ezberdinak lantzea gazteekin. Horretarako, baina, teknologia berriekin uztartuko dugu liburu, komiki edo olerkien irakurketa", azaldu du Arantza Ibarredok, liburutegiko arduradunak. "Adin tarte horretan liburuak irakurtzeko zaletasuna



May Gorostiaga eta Kamel Zouaoui kontalariak eguaztenezko saioan. | M. ARREGI

galtzen doa eta oso zaila da gazteak erakartzea. Horregatik, teknologia berriekin eskaintzen dituzten tresnak uztartuko ditugu irakurketarekin: *booktuber-ak* eta *booktrailer-ak* sortu gura ditugu". Ibarredok gaineratu du Udal Liburutegiak 2016rako duen erronka nagusia dela: "Horrelako esperientziarik oraindik ez dagoela bailaran uste dut; erronka handia da guretzako. Izan ere, oso zaila da adin tarte horren interesa erakartzea".

Booktuber-ak egungo literatura kritiko berri gisa bataiatu dituzte nazioarteko hedabideek. Modu horretan, sare sozialetan liburuaren gaineko kritikak, analisiak eta iritziak zabaltzen dituzten gazteen fenomeno berria dela diote. "*Booktuber*-etan gazteak dira protagonista eta irakurritako

koaren gaineko iritzia ematen dute. *Booktrailer*-ean, aldiz, liburu bat irakurtzeko edo istorio bat girotzeko bideo-muntaia egiten dute", argitu du Ibarredok.

Irakurtzeko modu berriekin esperientziatu gura duten gaztetxoek aukera izango dute parte hartzeko. Informazio guztia Udal Liburutegian edukiko dute.

Ahozkotatasunaren jaialdia

Ahozkotatasunaren Nazioarteko Jaialdiaren sarean sartu da aurtengo lehenengoz liburutegia. Hala, asteon gonbidatu berezien eskuatik askotariko kontakizun eta istorioak entzuteko aukera izan da. Balorazio ezin hobea egin du: "Harrera ezin hobea eduki dute saioek; Kamel aljeriarraren kontakizunak txalo zaparrada eten-gabeak jaso zituen, esaterako".

Plater tiroketa txapelketa domekan Txopekuan

MAITE TXINTXURRETA | OÑATI

Domeka honetan, apirilak 10, plater tiroketa txapelketa izango da Txopekuako zelaietan. Hobi unibertsal modalitatean jokatu dute, eta Oñatiko saioa puntuagarria izango da Gipuzkoako txapelketarako.

Goizez 10:30etik 13:00etara arituko dira tiratzaileak eta arratsaldean, berriz, 15:30etik 17:30era (gehiago ere luzatu daiteke, parte hartzaileen arabera). Ordu horien barruan egin daiteke inskripzioa.

Senior, junior eta beterrano mailak izango dira, eta gizonezko zein emakumeen kategoriak.

Saritan, guztira, 1.650 euro eta 1.250 kartutxo banatu dituzte. Lehenengotik hamaseigarrenera dirua jasoko dute, eta besteak, 22. eraino, kartutxoak. Seniorreko irabazle nagusiak 230 euro jasoko ditu.

Fan Hemendik taldeak beste kanpaina bat hasi du

M.T. | OÑATI

Alde Hemendik Euskal Herri mailako taldeak, eta Oñatiko Fan Hemendik-ek ere, kanpaina bat abiarazi dute, kuartel edo bestelako polizia-etxe baten ondotik pasatzean bozina jotzea eskatuz herritarrei. "Espainiako eta Frantziako polizia, Guardia Zibilari, jendarmeei eta, orokorrean, indar okupatzaileei beraietaz pentsatzen duguna ozenago esango diegu: alde hemendik!"; hala azaldu dute kanpaina aurkezteko oharrean.

Kanpaina *eskratxe bozine-roa* izenez bataiatu dute, eta aipatutako indar polizialei "ez direla ongi-etorriak" adieraztea du helburu.

Bozina lau aldiz jo behar da: *al-de-men-dik*-en silaba bakoitzeko behin, eta ondoren sare sozialetan partekatuzko eskatu dute.

Urteurren kontzertua du bihar Oñati abesbatzak

Oñati abesbatzak 50 urte betetzen ditu aurtun, eta bihar, zapatua, egingo du urteurrenaren lehen kontzertua. Agustindarren elizan izango da, 20:00etan. Zaragozako Belchite abesbatzarekin batera egingo du emanaldia.

Erreskateetan formatzeko ikastaroa

Bihotz-biriketako oinarritzko bizi-kortzea nola egin eta kanpo desfibriladorea erabiltzen ikasteko saio antolatu dute, doan, kiroldegian. Hilaren 22an da, eta 16a aurretik eman behar da izena.

Xabier Murgiondo iritsi zen lehena Deban

Debako Amaiak Bat lasterketan emaitza bikainak lortu zituzten etxeko txirrindulari gazteek: Murgiondo lehena iritsi zen, Arregi hirugarren eta Txintxurretak mendiko saria lortu zuen. Taldeka Aloña Mendik berak irabazi zuen.



Kantua kalean ekimeneko protagonistak Eltzian. | ENEKO AZURMENDI

Herriko 200 ume inguru dantzan eta kantuan ibiliko dira herriko kaleetan barrena bihar

M.A. | OÑATI

Hamelingo istorio ezaguna ardatz hartuta, *arratoiak* izango dira bihar protagonista Oñatiko kaleetan.

Ganbara Txiki Abesbatzak *Kantua kalean* ekimenaren baitan antolatutako festa egingo da zapatuan. Bi urtean behin egiten duten ekimena da eta gai zehatz bat lantzen dute egun osoan zehar. Aipatu moduan, *arratoi* inguruan ariko dira. Kalejira, musika eta askotariko koreografiak eskainiko dituzte, bosgarrenez, kalean.

200 ume

Helburu nagusienetako bat ikastetxeen arteko harremanak sortu eta zabaltzea dela azaldu du Aitor Biain zuzendariak. Hala, 200 ume inguruk hartuko dute parte biharko festan. "Parte-hartzaile kopurua handia

denez, antzerki musikatua bi aldiz eskainiko dugu. Lehenengo emanaldian, Ganbara Txiki, Txikitxo, Urgain eskolako abesbatza eta Elkar Heziketa abesbatza izango dira. Bigarrenean, berriz, Ganbara Txiki, Txikitxo eta Txantxiku Ikastolako bi abesbatzak", argitu du Biainek.

Goizean, 11:30ean *Arratoi*en *jokoa* egingo dute Txanda merkatarien elkartearen laguntzarekin. 12:30ean, berriz, Oñatiko kaleetan *arratoi*en kalejira izango da ikusgai musikaleko ipuineko pertsonaiekin lagunduta.

Eta arratsaldeko antzerki musikatua 17:00etan hasiko da Herriko Plazako pilotalekuan. Eguraldi txarra egingo balu, kiroldegiko pilotalekuan egingo dira arratsaldeko bi ekitaldiak. Edozeinek gozatzeko moduko ikuskizuna dela-eta ikustera animatzeko dei egin dute.

NIRE USTEZ

XABIER ETXEBERRIA



Mundu guztiak izena dauka eta zurea...!

Hor daude. Denok ordaindutako zergetatik bizitzen. Boteretsuari men egin eta ahula jipoitzen. Orain lagun bati isuna jarri diote, torturatu zuteneko testigantza bat eman zuelako Herrialde Katalanetatik etorritako lagunari. Modu harropuztean jarritako isuna. Jazarpen politikoa, nahiz eta beraien zuzendariak herriari hurbileko bihurtu nahi dituen, edota beste buruetako batek arrazoi politikoko jazarpen gabeko aro batean gaudela esan.

Hurrengo batean etxe kale-ratze bat egingo dute, edo herri harresi batean neska gazte

bati irain sexistak botako dizkiote.

Esklaboen jabe batek behin galdetu zuen, zer egin esklaboak altxatzen direnean? Esklaboen beste erdiei ordaindu altxatu direnak kontrolatu eta jipoitzeko, erantzun zion lagun batek. Eta gaur egun arte, askatasunaren alde borrokatu dutenak zapaltzen. Diktaduran zein demokrazian. Asmatu duzu, polizia ari naiz, gurean, Ertzaintza.

Atutxa zuritzeko ETBko saio batean, Lasa eta Zabala-ren hilerriko gertakariak akats gisa definitzen zituen. Baina ez da akats bat, egitura kontua da. Ertzaintza jendarteko sektore konkretu batzuk zapaltzeko prestatu da, torturak erabili ditu eta oraindik jazarpena erabiltzen du. Eta batzuek ezer gutxi hausnartu dute horretaz.

"Batzuek ezer gutxi hausnartu dute horretaz"

Kanpai doinuen atzean nor dagoen erakusteko gogoia

Argazki lehiaketa deitu du kanpai-jole eskolak

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA


Kanpai-joleak izenarekin argazki lehiaketa deitu dute Arientzako kanpai-jole eskolak eta Udalak, Debagoieneko mankomunitateko Turismo Sailak lagun eginda. Ekainean zabalduko dute lehiaketa baina argazkiak ateratzeko denbora izan dadin orain egin dute deia. Aurkezteko epea, ostera, irailaren 15ean bukatuko da.

Gero eta kanpai-jole gutxiago

"Kanpaiak entzun egiten ditugu guztiok, gutxi ikusi izan dituzte zeinek eta zelan jotzen dituzten. Eta gure asmoa da erakustea doinu horiek ateratzeaz zein arduratzen den", jakinarazi du Julen Abasolok, Arientzako kanpai-jole eskolako kideak. Debagoienean gero eta gutxiago badira ere kanpai-joleak kanpoan oraindik "asko" daudela dio: "Katalunian, Leonen, Kantabrian... Kuadrilla handiak elkartzen dira eliza bakoitzean: neska-mutikoak, gazteak, helduak...". Horregatik, lehiaketa kanpora ere zabaldu dute.

Aretxabaleta bultzatu nahia

18 urtetik gorako edozeinek parte har dezake, eta bakoitzak gehienez hiru lan aurkeztu ahal izango ditu; argazkiok originalak, argitaratu gabeak eta lehiaketara aurkeztu gabeak izango dira. Gainera, aurten ateratakoak izan beharko dute. Lanarekin batera



Julen Abasolo, Arentza auzoko kanpaiak jotzen. | MIRARI ALTUBE

honakoak datuak bidaliko dituzte egileek: titulua; argazkia hartu zeneko lekua eta eguna; argazkiaren gaineko azalpenen bat; eta egilearen datuak (izen-abizenak, NA, helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa).

Lanak aurkezteko epea 2016ko ekainaren 1etik irailaren 15era bitartekoa da eta honako helbideren batera bidali behar dira: kanpaijoleak@gmail.com edo kultura@aretxabaleta.eus.

Epaimahaia osatuko dute Kultura Saileko ordezkari batek,

herriko argazkilariek eta kanpainen munduarekin zerikusia duten lagunek; epaiaren berri, ostera, urriaren 7an emango dute. Hiru onenek jasoko dituzte sariak: lehenengoak, 600 euro; bigarrenak, 300 euro; eta hirugarrenak, 100 euro. Sariokin Aretxabaleta bultzatzea ere badago helburuen artean: "Saria jasotzera herrira etorri beharko dute irabazleek, eta diru saria gain Aretxabaletan aste bukaera bateko egonaldia jasoko dute hirurek", argitu du Abasolok.



Karme Uribarri zinegotzia martxo osoko bilkuran. | M.A.

Karme Uribarri zinegotzia hasi da lanean

Martxoaren 21eko bilkuran hartu zuen kargua

M.A. | ARETXABALETA

Zinegotzi berria dauka udalbatzak martxoaren 21az geroztik. Karme Uribarri Urresti jeltzaleak kargua hartu zuen orduan egindako ohiko osoko bilkuran, eta hala, Nerea Etxabek utzitako hutsunea bete. Lanerako gogotsu agertu da: "Alkateak proposatu zidanean kosta egin zitzaidan erabakia hartzea, baina behin hartuta... aurrera eta gogotsu!", dio. Ongizate Sailaren ardura hartu du, eta dagoeneko hasi da lanean: "Teknikariekin egon naiz eta Basotxo erretiratuen elkarteko kideekin ere izan dut batzarra".

Bake epailearen ordezkaria

Osoko bilkura horretan erabaki zuen udalbatzak bake epailearen ordezkaria izendatzeko prozesua berriro zabaltzea. Bake epailea Olatz Bengoa izango da orain hilabete batzuk egindako deialdian, besterik ez zelako aurkez-

tu, baina horren ordezkari postua ere bete beharra dagoela adierazi dio Euskadiko Auzitegi Nagusiak, eta, horregatik, bigarren deialdia egingo du.

Hondakin kontuak ere izan ziren osoko bilkura hartan; zabor biltza sistema aldatzeko eskakera egitea Debagoieneko Mankomunitateari onartu zuten. Urtrirlean egindako herri galdeketa ostean jakinarazi arren sistema aldatzea ekainerako egingo zutela Aretxabaletan, balitekeela "zertxobait atzeratzea" jakinarazi du alkateak, "ondo aztertu" gura dituztelako edukiontzia berriak.

EH Bilduko zinegotziek baiezta eman zioten sistema aldatzeko eskakera horri, baina era berean, jakinarazi zuten "gainean" egongo direla helburuak betetzen direla ziurtatzeko, hau da, %80ko gaikako biltzea. Alkateak zioen "ez litzatekeela arazorik egon beharko" hori betetzeko.

Emozioen eta literaturaren gaineko saioak 'Bularretik mintzora' egitasmo barruan

Juan Carlos Alonso psikologoak gidatuko ditu

M.A. | ARETXABALETA

Emozio hezkuntza eta literatura izeneko saio bi egingo dituzte liburutegian *Bularretik mintzora* egitasmo barruan. Hilaren

19an eta 28an izango dira, 18:00etan, eta Juan Carlos Alonso psikologoak gidatuko ditu. Izena emateko epea datorren egunean, hilak 14, bukatuko da, eta emailer (haurliburutegia@aretxabaleta.net) edo telefonoz (943-08 10 01) egin daiteke. Debalde dira eta hogeit lagunendako dago lekua.

Zailtasunak gainditzeko

Zortzi urte bitarteko neska-mutikoen gurasoei bideratutako saioak dira eta landuko dituzten gaien artean honako hauek daude: haur literaturaren eragina zailtasunak eta gatazkak gainditzeko; ipuin terapeutikoak; haurren ikasketak emozionala nola gauzatu; eta nola estimulatu irakurketak eta ipuinek eragiten duten emozio-sentikortasuna.

OHARRAK

EGUNOTAN MAILEGURIK EZ LIBURUTEGIAN

Udal liburutegiko arduradunek iragarri dute apirilaren 8tik 11ra, hau da, egubakoitzetik astelehenera, biak barne, liburutegian ezingo dela mailegurik egin, horretarako erabiltzen den programa ez delako erabilgarri egongo arrazoi teknikoengatik. Gainerako zerbitzuek bere horretan jarraituko dute.

'ZU ETA NI, SUDURLUZE BI' ANTZEZLANA DOMEKAN

Zirtaka taldeak *Zu eta ni, sudurluze bi* antzezlana eskainiko die neska-mutikoei datorren domekan, apirilak 10, 12:00etan, Arkupe (sarrera, 3 euro).

'BROOKLYN' ETA 'SNOW QUEEN' FILMAK

Helduek *Brooklyn* filma (Irlanda, 2015, 112 min.) izango dute gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00). Umeek, ostera, Christian Andersenren ipuinean oinarritutako *Snow Queen* marrazki bizidunen filma izango dute bihar eta etzi, euskaraz.



M.A.

Dagoeneko 800 sinaduratik gora

Erain Debagoiena ekimeneko kideek 800 sinaduratik gora jasotzen dagoeneko Aretxabaletan. "Martxoaren 31rako iritsita geunden 800era, hortaz, egunotakoak zenbatuz gero hortik gora egongo gara", jakinarazi dute. Hala ere, gogorarazi dute "1.000 baietz" jarri zutela erronka eta horra iristeko ahalegin guztia egingo dutela: "Anima daitezela oraindik sinatu ez dutenak, eguazten eta egubakoitz arratsaldeetan Mitarte kalean, Pagaldaixena aurrean, izango gara apirila bukatu artean".

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Gipuzkoako karate txapelketa apirilaren 17an

UDAREN 70. urteurrenaren bueltako ekitaldia da eta kiroldegian egingo dute

MIRARI ALTUBE | ARETXABAETA

Apirilaren 17an, domeka, jokatuko da Gipuzkoako karate txapelketa, Ibarra kiroldegian, eta kimuak, haurrak eta kadeteak elkartuko dira. Kumite eta kata modalitateetan jardungo dute nor baino nor gehiago. Izena emateko epea martitzenean, apirilaren 12an, itxiko dute.

Maiatzean areto futbolak

11 eta 15 urte arteko gaztetxoak elkartuko dira kiroldegian, seguru asko, ehun bat parte-hartzaile, eta 10:00etan hasiko dute norgehiagoka. Kumite modalitatean haurrek eta kadeteek jardungo dute, emakumezkoek zein gizonzkoek, eta bakarkako kata modalitatean, horiez gain kimuek ere bai. Hori bai, katan jarduteko derrigorrez gerriko berdea izan beharko dute eta kumiterako, urdina.

Gipuzkoatik etorritako gaztetxoaren artean Aretxabaletako karateak ere izango dira: "Askok ez, baina bostek inguruk hartuko dute parte; haurren eta kadeteen mailetan jokatuko dute



laz udazkenean Azkoitian egindako txapelketako karateak. | ODILLO VAZQUEZ

horiek", jakinarazi du Odilo Vazquezek, UDAko taldearen entrenatzaileak.

Maiatzean areto futbolak

UDA ospatzen dabilen 70. urteurrenaren harira antolatu dute karate txapelketa Aretxabaletan. Eta ospakizunekin jarraitzeko, maiatzean, Gipuzkoako areto

futboleko final guztiak jokatuko dituzte. Hilaren 14an, zapatua, izango da, kiroldegian, eta hona hemen partiduen ordutegia: 09:30ean, kadeteak; 11:00etan, gazteak; 12:30ean, hiru garren mailakoak; 16:00etan, bigarren mailakoak; 17:30ean, emakumezkoak; eta 19:00etan, lehenengo mailakoak.

'Geroa sortuz' futbol campusa antolatu du UDAk, seigarrenez

M.A. | ARETXABAETA

Futbol campusa egingo du Aretxabaleta kirol elkarteak uztailan, seigarrenez. 2004 eta 2007. urte bitartean jaiotako neska-mutikoendako udaleku itxiak dira, eta izena emateko epea dagoeneko zabaldu dute.

Bi txanda zehaztu dituzte: lehenengoa, uztailearen 11tik 15era; eta bigarrena, uztailearen 18tik 22ra. Bost egunotan egingo dutenaren berri eman dute antolatzaileek: "Futboleko entrenamenduekin batera hainbat ekintza eta gai jorratuko dira: ingelesa eta adimen emozionala landu, Zubietako eta Ano-

tako instalazioak bisitatu, Realeko jokalariekin egon, hainbat kiroletan jardun...". Aurten, hain zuzen, ingelesari garrantzi handiagoa emango diote.

Azken eguna, maiatzaren 27a

Izen-emate orria UDAREN webgunean dago zintzilikatuta (udaretxabaleta.eus) eta hori bidali behar da beteta honako helbide honetara: geroasortuzkanpusa@hotmail.com. Horretarako azken eguna maiatzaren 27a da.

Egonaldiaren prezioa 220 euro da eta bi anaia-arrebak izena emanez gero bigarrenak 165 euro ordainduko ditu.

Errioxa aldera joango dira Basotxoko kideak apirilaren 28an

Donemiliaga Kukula, Badaran eta Naiara herriak bisitatuko dituzte, apirilaren 28an, eguna, Basotxoko erretiratuek. Goiz partean San Millan de Yusoko monasterioa ezagutzera joango dira, baita David Moreno upategia ere, eta ondoren, Badarango hotelean bazkalduko dute. Bazkalostean Naiara bisitatuko dute.

Izena emateko epea zabalik daukate apirilaren 22a arte (bazkideendako prezioa, 35 euro; eta bazkide ez direndako, 45 euro). Horretarako, Basotxoko bulegotik pasatu behar da, 11:00etatik 12:00etara bitartean.

Begiraleak gura dituzte udaleku udaleku irekietan jarduteko

MIRARI ALTUBE | ARETXABAETA

Udaleko Gazteria Zerbitzua dagoeneko hasita dago udaleku irekiak antolatzen, eta umeekin lan egingo duten begiraleak behar ditu. Interesa dutenek apirilaren 20a arte dute epea curriculumak bidaltzeko honako helbide honetara: gazteria@aretxabaleta.eus. Udaletxeko harreraren ere utz daitezke.

Ezinbesteko baldintza bi bakarrik zehaztu dituzte Gazteria Zerbitzuko kideek: 18 urte izatea eta euskaraz ondo jakitea. Horren gaineko edozein zalantza argitu gura izanez gero Gazteria Zerbitzura deitu (943-71 18 62) edo idatzi behar da.

Uztailaren 1etik 22ra

Uztaileko lehen hiru asteetan, 1etik 22ra bitartean, hain zuzen ere, egingo dituzte udaleku irekiak, eta, beste behin, 3 eta 12 urte bitarteko herriko neska-mutikoak elkartuko dira. Aurten ere goizez eta arratsaldez izango dituzte ekintzak, hiru

urteko umeek izan ezik; horiek, goizez bakarrik. Eta egingo dituzten artean daude ospakizunak (San Fermin eguna, esaterako), irteerak (igerilekue-tara, mendira...), jolasak eta eskulanak. Hori guztia gertatzen dabilta antolatzaileak azken asteotan, eta horren berri aurrerago emango dute. Izena emateko epea oraindik ez dago zabalik.



Umeak udalekuetan. | M.A.

TXALOK ETA TXISTUAK



JOSE INAZIO ISASMENDI

Jaiotza apurtuta Murugainen



Murugaingo gurutze azpian zegoen jaiotza apurtuta topatu dute hainbat mendizalek. "Otsailan ere egon ginen eta orduan ondo zegoen; beraz, martxoko astakera izan da", jakinarazi dute, eta gaineratu: "Trabarik ez zuen egiten... Zertarako apurtu?". Bide batez, herritarrek Murugain tontorrera igotzera gonbidatu dituzte: "Merezi du, benetan, eta udaberria sasoi aproposa da horretarako".

ARETXARGI

aretxargi@aretxargi.com

BELORRIETA, 15 BEHEA 20550 ARETXABAETA - GIPUZKOA

☎ 943 532 628 ☎ 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK



Emakumeen Euskal Birako lehen etapa Eskoriatzan izango da

Herria itxita egongo da apirilaren 14an, eta hainbat aparkaleku libre egon beharko dira egun horretan

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Datorren egunean, apirilaren 14an, 29. Emakumeen Euskal Birako lehenengo etapa Eskoriatzan izango da. Munduko txirrindulari ezagunenak izango dira herrian; guztira, 23 talde, 210 txirrindulari inguru. Lasterketa 15:30ean hasiko da, herriko plazan, eta 17:30 inguruan hasiko dira txirrindulariak helmuga iristen. Edozelan ere, egun osoan zehar itxita egongo da herri osoa.

Lasterketa ez oztopatzeko, herrian hainbat aldaketa egingo dira; horien gaineko nondik norakoak azaldu zituzten atzo osoko bilkuren aretoan egin zen prentsaurrekoan.

Herriari "pazientzia" eskatu

Jose Arana kaleko egurrak kendu dituzte dagoeneko, irteera eta helmuga gunean leku zabalagoa

izan dezaten txirrindulariek. Huheziko aparkalekua hustu egingo da, Hotel ondoko aparkalekua itxi egingo da... Hala, Eskoriatzako alkate Joserra Zubizarretak egun horretan "pazientzia" izan dezaten eskatu gura die eskoriatzarrei.



IBARRAUNDI

'ESKORIATZA ETA TXIRRINDULARITZA' ERAKUSKETA

Zapatu honetan irekiko da erakusketa Ibarraundi museoa, eta 17ra arte egongo da ikusgai. Aspaldiko argazkiak, maillotak... ikusi ahal izango dira.

'Egoitza eskoloretu' saioarekin hasi da Osasun Astea

I.B | ESKORIATZA

Apirilaren 5ean, martitzenean, eman zitzaion hasiera Eskoriatzako IV. Osasun Asteari. 10:00etan *Egoitza eskoloretu* saioa eskaini zuten Arizmendi-Almeneko ikasleek Jose Arana zaharren egoitzan. Bertan, dietetikari buruzko azalpenak eman zituzten Itziar Arkauz erizainak gaztetxo, zein nagusiei.

Ondoren, nutrizioaren piramide erabiliz elikagaiak nola banatzen diren ikusi zuten; egoiliarrek eta ikasleek elkarlanean elikagai-piramidea osatu zuten jaki eta elikagaiak piramidean kokatuz. Saioa

amaitzeko, zerealak, frutak, intxaurrak eta goxoki batzuk jan zituzten.

Osasun gomendioak

Atzo, eguna, berriz, sudur gorrien *photocall*-a egin zen herriko plazan. Gero, tentsioa hartzearen gaineko azalpenak eman zituzten Arizmendiko Lanbide Heziketako ikasleek. Eta amaitzeko, *Bizitzaren zaporea dastatzea* jokoa egin zuten. Herritarrei osasunaren gaineko galderak egin zituzten: erantzun onaren truke zuku goxoa eman zuten eta gaizki erantzunez gero, berriz, zuku mikatzagoa. Ondoren, bizitza

osasuntsuagoa egiteko proposamena egin zieten errezeta moduan. Honen ondoren, 19:30ean, pintxo-pote osungarria egin zen, herriko tabernariei eskaera berezia eginda.

Apirilaren 16 arte ekintzak

Apirilaren 12an, Zaldibar antzokian, 18:30ean, Imanol Ibarrondok *7Ps para brillar, conversaciones con bellotas* hitzaldia emango du; eta apirilaren 13an, 17:30ean, Jose Arana egoitzan *Recetando sonrisas* antzerkia egingo da, besteak beste. Egitarau osoa Eskoriatzako udal webgunean kontsulta daiteke, *eskoriatza.net*-en.

Eskoriatzako Erain Debagoienak lokal berria irekiko du gaur, 19:00etan

I.B | ESKORIATZA

Eskoriatzako Erain Debagoienak lokal irekiko du gaur, 19:00etan, udaletxe aurrean, Maluta izandako lokalean. Lokalaren funtzio nagusia ekainaren 12ko herri-galdeketa bertan egitea da, eta herritarrei informatzeko egubakoitzero egongo da irekita 19:00etatik 21:00etara bitartean, eta baita egun puntualetan ere.

Inaugurazioan, pintxoak eta musika eskolako abesbatzaren

kantaldia izango dira, besteak beste, eta sinatzeko edo informazioa jaso nahi duena bertatik pasa daiteke.

Kontaketa termometroarekin

Lokalaren kanpoaldean termometro bat jarriko da, zenbat sinatze jasotzen ari diren adierazteko. Aurrerago, Goiko kalean eta Intxaurtxuetan ere jarriko dira.

Informazio gehiago jaso edo zalantzak argitu nahi dituenak,

berriz, gureskudago.eskoriatza@gmail.com helbidera mezua bidalita egin dezake.

Lantaldeak eratu barik

Eskoriatzan ekainaren 12ko galdeketerako lantaldeak eratu barik dauden arren, lehen tasun nagusia sinadura bilketa egitea eta ekimena ezagutzera ematea da, eta lokal hau horretarako erabiliko dutela adierazi dute Eskoriatzako Gure Esku-ko taldekideek.

Virginia Espin | Norgara zentroko psikologoa

"Ez dago guraso perfekturik, ez dakigu ondo edo gaizki egiten ari garen"

Gurasoentzako 'coaching' tailerra izango da Eskoriatzan, Ibarraundi museoa

I.B | ESKORIATZA

Virginia Espin Gasteizko Norgara zentroko zuzendaria, terapeuta gestaltikoa, *coach*-a eta psikologoa da, eta gurasoentzako saioak eskaintzen ditu. Gurasoen rola hobetuz seme-alabei modu egokienean garatzea du helburu. Bertan, pertsonak potentzializatu eta bizitzako hainbat momentu hausnartzeko, kontzientziatzea bultzatzen saiatzen da, bizitzan gurasoen eta haurren arteko harremana hobetzeko asmoz.

Zer da guraso coaching-a?

"Guraso *coaching*-a diziplina bat da. Hainbat arlotan lantzen da *coaching*-a: arlo pertsonalean, hezkuntzan, enpresetan... Pertsonen gaitasun guztiak azalerraten laguntzen du *coach*-ak, edo entrenatzaileak, eta gurasoentzat prestatutako saioetan, beraien seme-alabei modu egokienean garatzen laguntzen diegu".

Zer lantzen duzue?

"Bi puntutan zentratzen gara: gurasoengan kontzientzia aplikatzen eta seme-alabei laguntzeko *coach* bat garatzen. Esaterako, etxean nolako espazioa sortzen ari garen, seme-alabei jartzen dizkiegun arauak, lengoia nola erabiltzen dugun... halakoen gainean erreflexionatzeko dugu. Hauen inguruan zer aldatu, zer bultzatu behar den... ikusten dugu".

Beharrezkoa da?

"Ez dago guraso perfekturik. Ez dakigu ondo edo gaizki egiten ari garen, eta, askotan, laguntza behar izaten da. Guraso izatea arte bat da, umeak hezteko ez dago errezetarik".



Virginia Espin. | NORGARA

Zer da garrantzitsuena?

"Autonomia eta kontrola eman behar zaie seme-alabei, baina horren oreka mantentzean dago gakoa. Gurasoen arteko partekatzea; egunerokotasunean dituzten zailtasun, erronka... beraien errealitate eramaneraz hausnartzeko espazio bat sortzen dugu, gu bidelagun izanik".

Izena emateko zer egin behar da?

"Izena emateko azkenengo eguna apirilaren 15a da, eta tailerreko hamar saioak apirilaren 20an eta 27an eta maiatzaren 4an, 11n eta 18an izango dira, 17:30etatik 19:30etara bitartean. Kultura etxera joanda, gazteria@eskoriatza.eus webgunera idatzita edo 943 71 46 88 telefonora deituta eman daiteke izena".

"Guraso izatea arte bat da, umeak hezteko ez dago errezetarik"

'¿Qué aportan las artes marciales contra el bullying?' hitzaldia emango du Rafa Carriet eskoriatzarrak

Rafa Carriet eskoriatzarrak hitzaldia eskainiko du kultura etxean. Gaur izango da, 18:00etan, eta nahi duenak aukera izango du bertara joan eta arte marzialek *bullying*-aren aurka egiteko duten balioa ezagutzeko. "Herritar guztiei zuzenduta dago hitzaldia. Ikuspuntu orokor batetik begiratu behar dugu. Gurasoei, etxean izan dezaketena hobeto ikusteko balio ahal izango die. Guztiendako moduko hitzaldia izango da", adierazi du Carrietek.

Dorleta Kortazarrek 'Berkak ezpainetan' helduentzako ipuin kontaketa egingo du Hotelean

Apirilaren 10ean, 18:00etan, Hotelean, helduentzako ipuina kontatuko du Dorleta Kortazar kontalaria. *Berkak ezpainetan* saioa Kortazarren ipuin kuttunen aukeraketa bat da, saio berezia, lagun eta ingurukoei kontatzeak ilusioa egiten diona. "Domekako saioa elkarrekin bidaiatzeko gonbita da; berkak bidaia bihurtuko ditugu eta ametsak zeharkatuko ditugu, muxuetan galduko gara, berkak askatuko ditugu... eta etorkizunari irribarre egingo diogu", adierazi du Kortazarrek.

OHARRAK

HITZALDIA

Josu Erkoreka lehendakariordeak "Kontzertu ekonomikoa eta egoera politikoa gaur" hitzaldia eskainiko du hilaren 14an, Olaranen, 19:00etan.

TERTULIA ETA AFARIA

Gaur, kafe-tertulia egingo dute, 18:30ean, gaztetxearen gaineko hausnarketa egiteko. Ondoren, afari beganoa egingo dute.

LANDATXOPE

Urteko Batzar Nagusia egingo dute erretiratuek bihar, 17:00etan (lehen deialdia). Zuzendaritzako hiru kide berri aukeratuko dituzte.

EUSKARA

Sortuk euskarari buruzko tailerra eta hausnarketa egingo du hilaren 12an, Olaranen, 19:00etan.

PILOTA

Udaberri sariaren baitan, lau t'erdiko partidua gaur, 20:00etan. Kadeteen 2. mailako Sagastumek jokatu du.

"Munduko ipuinik ederrenak" ahozkotasanaren festan

Ahotik Bihotzera ekimena apirilaren 17an egingo da Antzuolan, hirugarrenez

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Ipuinen eta istorioen transmisioa bermatzeko eta mantentzeko helburuarekin, Oihulari Clown taldeak eta Udalak hirugarrenez antolatu dute Ahotik Bihotzera ekimena. "Ahozkotasuna berpiztu gura dugu. Gure aitona-amonen istorioak galtzeak pena handia ematen dit. Belaunaldi honek ahozkotasanaren garrantzia ohartu beharra dauka manten dadin. Gure oroimena eta nortasuna ez galtzeko ezinbestekoa da ahozkotasuna bermatzea", dio Virginia Imaz antolatzaileak.

Egun osoko festa

Apirilaren 17an ipuin-bertso poteoa egingo dute, 13:00etan. Torresoroan 18:30ean bilduko dira parte-hartzaileak ahozkotasanaz gozatzeko. Izena emateko epea zabalik dago, udaletxera jota, baina egunean bertan ere



Torresoroan egindako saioaren une bat, iaz. | GOIENA

eman daiteke. "Ez da profesionalendako. Izan ere, ume batendako amak edo aitak kontaktuko dio munduko ipuinik ederrena. Denok dugu zerbait gehitzeko", dio Dorleta Kortazar antolatzaileak. Hala, apirilaren 17ko saiorako motorrak

berotze aldera, Virginia Imazek ipuinak kontatzen ikasteko tailerra eskainiko du. Astelehenean, hilaren 11n, 17:00etan, eskolako aretoan izango da. Ipuinek duten funtzio pedagogikoaz ere jardungo dute bertan.

NIRE USTEZ

ION LIZARAZU



Feminista naiz

Hausnartu. Behi eta zezenek jateko prozesuan egiten dutena. Jakia askorik murtzikatu gabe irentsi eta beranduago berriz ahora ekartzen dute. Bigarrenez murtzikatu eta azkenik barrura, digeritzeko.

Halako zerbait egin behar genuke guk ere. Irentsi ditugun ohitura, ideologia eta mailakatzeak berriz mahian jarri eta horren inguruan pentsatu, hau da, hausnartu. Gizarte honek erakutsi dizkigun bereizketek sinbiosi bidez jarraitzen dute bizirik.

Gure oharkabeko ekin-tzen parte dira, eta horiek gauzatzean beraiek elikatzeke aukera sortzen dugu. Ez gaituzte askatuko parasito direla ohartzen ez garen bitartean, eraiki nahi dugun (edo dudan) gizarte berriarentzat parasito.

Egunerokotasuneko ekin-tza txikiak ere zapaltzaile bihurtu gaitzake; genero desberdineko izate hutsagatik zerbaitetan hobeak garelako suposatzean, adibidez. Zapaldu eta mindua izan denak errazago jakin ohi du arazoa non den, baina zapaltzaileak saiakera berezi bat egin behar du horretaz ohartzeko. Horretara animatu nahi zaituztet, ekintzak kanpotik begiratu eta zuen ingurukoengan zenbat eragiten duten behatzera.

Zapalkuntza orotan lez, zapaltzaileak izan behar duelako hausnartu behar duen lehena, ni feminista naiz. Eta harro nago.

"Ez gaituzte askatuko parasito direla ohartzen ez garen bitartean"

Jauregi eta Larrea, txapelkun!

KOMUNITATEA GOIENA | OLALDE PILOTA ELKARTEA | ANTZUOLA

Gipuzkoako bigarren mailako txapelkunak dira martxoaz geroztik Ibai Larrea eta Xabier Jauregi infantil mailako pilotari antzuolarrak. Tolosako Beotibarren jokatu zuten finala Beasaingo Murumendiko pilotarien aurka. Partidu borrokatua izan zen

eta Olaldekoek 18-16 irabazi zuten finala; baina 14na, 15na eta 16na berdinduta joan ziren partiduan zehar. Hala, Gipuzkoako Pilota Federazioak Olalde taldeko Xabier Jauregi aukeratu du talentuen arteko pilota txapelketan parte hartzeko. Bihar, apirilak 9, ekingo dio txapelketari, Azpeitiko pilotalekuan, pilotari gazte antzuolarrak.



Pilotariak saria jaso ondoren. | OLALDE PILOTA ELKARTEA

Martxan da jaietako zapia aukeratzeko lehiaketa

M.A. | ANTZUOLA

Orain arte, Antzuolako jaietan, urtero zapi desberdina erabili dute. Hemendik aurrera, baina, urtero zapi bera erabili nahi da, eta hau aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak. Lanak maiatzaren 16ra bitartean aurkeztu daitezke udaletxeko idazkaritzan.

Antzuolako jaien ezaugarriak islatu beharko ditu zapiak, eta

derrigorrez eraman beharko du *Antzuolako jaiak* testua. Aurkeztu beharko den irudiak, gehienez, triangulu formako tamaina hau izan beharko du: 70x70x100. Diseinuak edo irudiak bi kolore izango ditu, koloretzat hartzen da zuria, eta lanak originalak eta argitaratu gabeak izan beharko dira. Nahi duen orok aurkez dezake lehiaketara berak egindako

lana (bakoitzak, gehienez, hiru lan). DINA-4 neurriko bi gutun-azalazetan aurkeztu beharko dira; batean lana joango da eta bestean, berriz, parte-hartzailearen datuak jarriko dira: izen-abizenak, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia. Gutun-azal biei izenburu bera jarriko zaie eta lan bakoitzeko bina gutun-azal aurkeztu beharko dira.

Epaimahaia

Jai batzordeak eta hark izendatutako adituek osatuko dute epaimahaia. Horiek lan onenak aukeratuko dituzte, eta gero, Olaranen egingo den erakusketan herritarrek boto bidez aukeratu dute onena. Erakusketa hori ikusgai izango da maiatzaren 21ean eta 22an eta bertaraten direnek lan onenari botoa emateko aukera izango dute. Sari banaketa jaietan egingo da eta 400 euro jasoko ditu irabazleak.

LEINTZ GATZAGA

Hezkuntza emozionala lantzeko hitzaldia datorren astean

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Emozioak erregulatzeke trebetasunak garatzen eta norberaren eta haurren emozioa identifikatzen laguntzea helburu duen hitzaldi-jardunaldia antolatu du Bideberri Mankomunitateak datorren martitzenerako –apirilaren 12, 18:00etatik 19:30era, kultura etxean–.

Haurrak Lehen Hezkuntzan dituzten familiei zuzendutakoa da hitzaldia. Oro har, hezkuntza emozionala landuko dute, honako eduki hauetan sakonduta: nor bere emozioen kontzientzia hartzea; emozioei izena ematea; beste emozioak ulertzea; emozioen eta sentimenduen erregulazioa; nor bere burua erregulatzeke

estrategiak eta emozio baikorrak auto-sortzeko gaitasuna.

Jardunaldia gidatuko du hezkuntza eta osasun gaietan aditua den Durangoko Sasoia enpresak. Sarrera doan da, eta ez dago alde zuzeneko izena eman beharrik.

Ludoteka zerbitzua

Gainera, bertaratuko diren gurasoei, ludoteka zerbitzua eskainiko diete, seme-alabak bertan izateko aukera izan dezaten hitzaldiak irauten bitartean.

LEINTZ GATZAGA

Gatzagarren erretratuekin osatutako mosaikoa Bergaran ikusgai izango da

U.M. | LEINTZ GATZAGA

Oraingo astetik, Bergarako Artesan tabernan gatzagarren 26 argazkirekin osatutako erakusketa dago ikusgai, mosaiko eran. Hain zuzen ere, Jose Felix Diaz de Tuesta argazkilari-zaleak gatzagarrei ateratako argazkiekin osatutako liburuko erretratuetako batzuk jasotzen ditu mosaikoak: 7 argazki handi, 60 x 90

zentimetroko neurrikoak; eta 18 argazki, 40 x 60 zentimetroko neurrikoak. Maiatzaren 15era arte izango da Bergaran ikusgai.

Oñatin, Gasteizen...

Egilearen asmoa da erakusketa beste leku batzuetan ere jartzea; esaterako, Oñatin hala egingo du 2017an, eta nahiko luke Gasteizera eta Otxandiora ere eraman.

Bi milioi pasatxo izango dituzte aurten gastuetarako

2016ko aurrekontua 2015ekoa baino %10,73 handiagoa izango da

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Martxoaren 17an egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zituzten 2016ko aurrekontuak. EH Bilduren udal gobernuaren proposamenak aldeko sei boto izan zituen; eta 3 abstentzio. EAJko zinegotziak abstenitu egin ziren. Rafael Bengoa zinegotziak azaldu zuen zergatia bilkuran bertan: "Gastu korranteak oso handiak direlako, gutxienez, aurrekontuaren %77 inguru; %23ko aurrekontuarekin ezin daiteke ezer egin; ez enplegua sortu, ez beste ekintza batzuk egin".

Plan Foraleko laguntza dela eta, aurten iaz baino 197.005,63 euro gehiago izango dituzte gastuetarako -%10,73 gehiago-. Aurtengo aurrekontua 2.033.107,87 eurokoa izango da. Gastuak eta sarrerak kontuan hartuta, 2016ko aurrekontuetan 33.858 euroko superabita dago -sarrerak izango dira 2.066.965,87 euro-: "Hori horrela da 2015ean Oletako junta administratiboari 33.858 euro utzi zitzaizkiolako; eta itzulketari hori 2016ko aurrekontuetan kontentatuta dago", azaldu du Lierni Altuna alkatea.

Plan foraleko laguntza

Gastuetarako 2.033.107,87 euro izango dituzte Aramaion 2016an. Plan foraletik jaso duten dirua erabiliko dute Gureia auzoko azpiegiturak hobetzeko; lan hori izango da egingo duten inbertsio handiena. Gureia auzoko obrak bi zatitan egingo dituzte: 2016an

LIERNI ALTUNA | ARAMAIOKO ALKATEA

"Arlokako oreka batean egindako aurrekontuak egiten ahalegindu gara"

Dauzkaten baliabideak kontuan hartuta herritarrek "asebetetzeko" aurrekontuak egiten saiatu dira. **Herritarrek behar duten aurrekontuak dira?**

Herritar guztiak asebeteko dituen aurrekontuak izatea ezinezkoa dela esango nuke; azkenean, herri txiki bat gara, eta hedadura oso sakabanatua, eta dauzkagu dauzkagun baliabideak. Hortaz, jendearen eskaera eta herriko beharren arabera lehentasun markatuta gauzak arlokako oreka batean egiteko aurrekontuak egiten ahalegindu gara.

Zeintzuk izan dira kontuan izan dituzten lehentasunak?

Kontuan hartu direnak arloaren arabera dira. Obra eta zerbitzuetan behar gehien dituztenak hartu dira kontuan; Kultura eta Euskararen, herritarrek eta herriko taldeek dituzten beharrak edota eskaerak; Ongizatearen berdin, Ingurumenean, mendian eta lehen sektorean herria eraldatzen (sozio-politikoki, baserriar berriak, baserri inguruko jendearen erretiroa...) doan heinean, garai berrietara

egokitzen ahalegintzen eta formula berriak asmatzen jarraitzen dugu, azken urteetan bezala...

EAJk dio gastu arrunta handiegia dela. Zer diozu?

EAJri ia hilabeteko epea eman zitzaion ekarpenak egiteko; ikusita ez zutela ekarpen konkreturik, aurrera egin dugu. Erreza da gastu arrunta handiegia dela esatea, ustezko arazo hori konpontzeko proposamenik egin gabe; azkenean, denok gara gure iraganaren ondorio, eta udala bera ere bai. Udalak duen egitura legeek markatzen dituzten betebeharrak eta azken urteetan martxan jarri diren ekimen edo ildoek finkatutakoa da. Behar eta lehentasunak markatzeko arketaren ondoren, ikusiko dugu udalaren gastu arrunta murriztu (gastu egitura aldatu), eraldatu, moldatu edo mantendu beharra daukagun. Gauzak hausnartuta eta ahalik eta jende gehien artean eztabaidatuta garaian garaira egokitzen eta moldatzen joatea da egin dezakegun ariketarik erakitzailerena.



GOIENA



Bilkuren aretoan egindako parte-hartze prozesua. | IMANOL SORIANO

AURREKONTUA BATZORDEKA

BATZORDEA	2016
Ogasuna-Antolakuntza	629.066,79
Zerbitzuak	503.742,34
Hirigintza-Auzoak	418.325,81
Gizarte ongizatea	85.030,37
Mendiak-Ingurumena	109.531,04
Euskara eta hezkuntza	71.531,36
Kultura eta kirola	152.880,16

ITURRIA: ARAMAIOKO UDALA

Parte-hartze prozesua ixtea

Herriko lehentasunak identifikatzeko parte-hartze prozesua jarri zuen martxan Udalak. Herritarrekin hainbat batzar egin ostean, beharren behin-behineko zerrenda osatu dute. Bada, prozesua amaierara iritsi da. Orain arte egindako zerrendari ekarpen gehiago egiteko aukera zabaldu dute. Ekarpenak egiteko azkenean eguna apirilaren 15a izango da -mailez zein udaletxean egin daitezke proposamenak-. Behin hori eginda, behar horien artean lehentasunak zehazteko prozesua jarriko dute martxan.

"Parte hartu nahi izan duten auzo-alkate, elkarte eta norbaitu aramaioar guztiei zabaldu diegu ariketa hau, eta, guretzako berria ere den heinean, %100eko parte hartzea egon ez den arren, uste dugu momentuz parte hartze txukuna daramala ariketak", azaldu du Altunak. Aurrekontuak bere horretan eztabaidatzea ez zaio "oso praktikoa" iruditu Udal Gobernuari; azken finean, aurrekontuak urtean zehar eskatzen dituzten diru-laguntzek baldintzatzen dituztelako. "Farola bat, bide baten konponketa edo ikastaro konkretu baten eskaeretatik haratago, ahalik eta jende gehien artean Aramaioaren behar eta lehentasun orokorrak zehazteko ahalegina egin nahi dugu", gaineratu du alkatea. Udaleko egunerokorako manual eztabaidatu bat sortu nahi dutela gaineratu du alkatea.

lehenengo zatia egingo dute eta 2017an bigarren zatia.

Beste inbertsio nagusiak izango dira: kiroldegiko gimnasioa handitzea, auzo bideak konpontzea eta eskolako komunak konpontzea. Horrez gain, Murugain eta Iturritxueta mendietan mugarrin jasotze topografiko egiteko 15.461,38 euro bideratuko dituzte; eta Arexolako Olabeiko udal bidea konpontzeko 19.214,43 euro.

Langileen soldatak

Aurtengo aurrekontuetan aurreikusi dute funtzionarioen eta udal langileen soldatak %1 igotzea. Hori horrela egiteko aukera dago Espainiako Gobernuak 2016ko aurrekontu orokorren legean soldatak gehienez ere %1 igotzeko aukera eskaintzen duelako.

2016rako inbertsio nagusiak

GUREIA

Gureia auzoko kaleen zoladura, argiteria, argindarraren eta telefonoaren lurperatzea eta euri uren saneamendua hobetuko dute. Horretarako, Aldundiko plan foraleko diru laguntza erabiliko dute: 280.151,57 euro. Bi zatitan egingo dituzte lanak. Aipatutako partida 2016ari dagokiona da. 2017an planaren bigarren fasea egingo dute.



Gureia auzoan egingo dute inbertsio handiena. | GOIENA

KIROLDEGIKO GIMNASIOA

Aurten egingo duten beste inbertsio bat kiroldegiko gimnasioa izango da. Kiroldegiko lehenengo solairua eraberritzeko 34.999,40 euro erabiliko dituzte.

AUZO BIDEAK

Hainbat baso pista konpontzeko dituzte partidak ere aurreikusi dituzte. Untzilla-San Adrian pista konpontzeko 29.908,68 euro erabiliko dituzte; eta Azkoaga-Sarimutz pistarako 24.298,16 euro.

ESKOLAKO KOMUNAK

San Martin eskolako lehenengo eta bigarren solairuetako komunak eraberritzeko lanak ere egingo dituzte aurten: 28.460,41 euro bideratuko dituzte lan horiek egiteko aurrekontuan.

RAFAEL BENGEO | EAJ-KO ZINEGOTZIA

"Ez da ideia berriak aurrera eramateko aurrekontua"



"Jakinekua denez, Aramaioko EAJK ez dio bere aldeko botoa eman EH Bilduren udal gobernuak aurkeztutako 2016ko aurrekontuari. Jeltzaleok abstenitu egin gara. Abstentziora jo izanaren arrazoia bat eta bakarra da: gastu korranteak oso handiak dira; gutxienez, %77 inguruan daude. Aurrekontuaren gainontzeko %23arekin gauza gutxi egin daiteke, gure ustez. Gogoan hartu behar da, era berean, %23 horren zati on bat, %60,50 hain zuzen, Gureian egin beharreko hobekuntzarako izango dela. Diru horretatik zatirik handiena, zoriez, EAJren gidaritzapean dagoen Diputazioak jarriko du. EH Bilduren udal gobernuak aurkeztu duen aurrekontu honekin nekez egin daiteke apartekorik gazteen enpleguaren alde. Beste horrenbeste esan daiteke beste hainbat esparruren gainean. Gure ustez, aurrekontu honen helburu bakarra Aramaiori oinarritzko mantenua ematen jarraitzea da. Ez da proiektu edo ideia berriak aurrera eramateko aurrekontu bat. Hau ez da aramaioarrok behar dugun aurrekontua. Horregatik abstenitu gara".

ARAMAIO

Bi mila kilo hondakin organiko konpost bihurtu dituzte

"Hondakin kopuru hori kudeatzeak dakar hondakinak zabortegira ez bidaltzea"

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

2015eko azaroan jarri zuten martxan Ibarako auzo-konpostaje gunea, 40 familiarekin. Ordutik, 2.100 kilo hondakin organiko konpost bihurtu dituzte. Aramaioko Udaleko ingurumen teknikari Jon Toña "pozik" dago konpost-guneak izan dituen emaitzekin. "Aramaioko konpost-gunean hondakin kopuru hori kudeatzeak dakar Gardelegiko zabortegira edota bestelako kudeaketa plan-ta batera ez bidaltzea", dio Jon Toña teknikariak.

Martxoaren 2an Aramaioko auzo-konpost guneko erabiltzaileek batzarra egin zuten orain arteko ibilbidea baloratzeko. Balorazio "positiboa" egin zuten, orokorrean; gainera, konposta etxera eramateko aukera izan zuten herritarrek. Soberan geratutakoa Udalak Aramaioko nekazarien artean banatzeko asmoa azaldu du.

Udalak jarraipena egingo dio guneari, eta, eskaera gehi-ago egonez gero, beste gunea bat jartzea aztertuko du.

San Martin eskola

San Martin eskolan ere, jangelako soberakin organikoa modu lokalean kudeatzen hasiko dira laster.

Eltxoekin arazoak izan dira

Auzo-konpost gunean, bestalde, arazoak izan dira azkenaldian eltxoekin. Nardeaga kaleko bizilagunek izan dituzte arazoak. "Gunea egoera onean mantentzeko norbait arduratu behar da konposta aireztatzeaz. Opor garai honetan inork ez du lan hori egin eta horregatik agertu dira eltxoak", azaldu du Toña. "Vermicaneko teknikariak etxean egindako likido bat eman digu botatzeko; aurrerantzean konposta aireztatzeako arduradun bat egongo da", dio Toña.

Hiru bertso eskolaren arteko desafioa egingo dute bihar Aramaioko kaleetan

A.E. | ARAMAIO

Bertsotruk egitasmoaren lehengo desafioa egingo dute bihar, zapatua, Aramaion. Hernaniko, Zumarraga-Urretxuko eta Aramaioko bertso eskolak elkartuko dira. 18:30ean, bertso bisita gidatua egingo dute Aramaioko kaleetan Amillen taldearekin. Ondoren, 21:30ean,

bertso afaria izango dute Mari-xeketan.

'Oholtzapetik' egitasmoa

Manex Agirrek, Xabi Igoak, Paula Amilburuk, Iker Agirrek eta Peru Abarrategik parte hartuko dute egitasmoan. Ozetan, Agurainen eta Murgian izango dira bertso saioak.

Goikoetxearen mendeurrenako ekitaldiak aurkeztu dituzte



Bizente Goikoetxea musikaria omentzeko ekitaldiak aurkeztu zituzten atzo, Aldundian. Igone Martinez de Luna kultura diputatua, Lierni Altuna alkatea eta Cristina Etxenautia zinegotzia izan ziren han.

OHARRAK

ORTUZAINZTA EKOLOGIKOA

Ortuzaintza ekologikoari buruzko ikastaroan izena emateko azkeneko eguna gaur izango da. Hilaren 11n hasiko dute eta 15 orduko iraupena izango du.

ALDUNDIAREN UDALAKUAK

Foru Aldundiaren udalekuan izena emateko epea apirilaren 14ra artekoa izango da. Programak udaletxean kontsultatu daitezke.

ELGETA

Lokalak etxebizitza bihurtzeko ordenantza garatuko du Udalak

Eskaerak badaude eta, oraingoz, banan-banan aztertuko dituzte udaletxean

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Lau urte ditu etxabeak eta ganbarak etxebizitza egiteko ordenantzak Elgetan, eta ordenantza hori garatzeko erabakia hartu du, aho batez, Elgetako udalbatzak. Iraitz Lazkano alkateak adierazi du urteotan ez duela garapenik eduki. "Aukera ematen du etxebizitzak egin ahal izateko, baina baldintzetan ez daude jasota salmenta prezioa, ordenantza fiskalak, eta abar. Egiten diren etxebizitzak legalki eginda egoteko garapen bat emateko konpromisoa hartu behar dugu", esan du.



Etxabeak salgai Elgetako Domingo Iturbe kalean. | L.Z.

Oposizioak begi onez ikusi du proposamena eta gisa honetako etxebizitza promozioak oztopatuko ez dituzten neurriak har-

tu beharko liritekeela uste du. Eskaerak badaude eta ordenantza garatu bitartean banan-banan aztertuko ditu Udalak.

Bihar, zapatua, ospatuko dute gaztetxearen 20. urteurrena

L.Z. | ELGETA

Urteurren borobila dute aurten Elgetako gaztetxean, eta ospatzeko hainbat ekintza antolatu dituzte gazte asanbladatik. Biharko iragarri dituzte ekintza guztiak.

Mahai jolasen txapelketa batekin ekingo diote urteurrenako egitarauari, 17:00etan. Animatzen direnak musean, partxisean eta antzerako mahai jolasetan ariko dira gaztetxean. Txapelketa amaitutakoan, 20:00ak aldera, triki-poteoa egingo dute kalez kale, eta iluntzerako afaria eta erromeria antolatu dituzte gazte asanbladatik. Afaria 22:00etan izango da, eta ostean erromeria egingo

du Elgetan aski ezaguna den Xero Xiette taldeak.

URTEURRENEKO EKITALDIAK

ZAPATUA, HILAK 9

17:00 Mahai jolasen txapelketa, gaztetxean.

20:00 Triki-poteoa.

22:00 Afaria, gaztetxean.

00:00 Erromeria Xero Xiette taldearekin, gaztetxean.

125 boluntario errekreazioan parte hartzeko

L.Z. | ELGETA

Udalak emandako datuen arabera, oraingoz, 125 boluntario daude izena emanda apirilaren 24an Intxortako Ate aurrean egingo den errekreazioan parte hartzeko, tartean 33 emakume. Elgetarrak 34 dira. Antolatzaileek jakinarazi dute udaletxean daudela salgai egun horretan frontoian egingo den bazkarirako txartelak. Prezioa da 16 euro. Bisita gidatuak ere iragarri dituzte bai domeka honetarako bai hurrengorako (ikus 6. orria).

Hitzaldia konpost-guneen erabiltzaileendako

L.Z. | ELGETA

Udalak eskatuta, astelehenean, hilak 11, hitzaldia egingo du udaletxean Vermican enpresako Joseba Sanchezek. "Identifikatuta dauzkagu zenbait arazo eta konpost-gune batzuetan beste batzuetan baino gehiago izaten dira", esan du Iraitz Lazkano alkateak. "Gonbidatzen ditugu erabiltzaileak hitzaldira etortzera".

Udalak identifikatuta daukan arazo horiei nola aurre egin azalduko du Sanchezek 18:00etan hasiko den hitzaldian. "Udaletik hartu ditugu neurri batzuk", esan du alkateak. "Estrukturate edo txiribil mota aldatu egin dugu. Orain, sendoagoa da. Hasi gara, baita ere, konpostagailu guztiak zulagailu batekin aireztatzen. Baina badira erabiltzaileek hartu beharreko neurriak, eta horiek ekarriko ditugu gogora astelehenean".

Udal liburutegiak prest du apirileko ginkana berezia

Liburuaren Egunaren bueltan hainbat ekintza antolatu dituzte liburutegitik; adibidez, askotariko probak izango dituen ginkana bat. Puntu gehien lortzen dituen erabiltzaileak liburu elektronikoko bat irabazteko aukera izango du. Beraz, adi liburuazaina argitaratzen joango den probetara!

Elgetaren txanda 'Ezagutera nator' telebista saioan

Huheziko ikasleek egindako *Ezagutera nator!* saioan Elgetaren txanda da oraingoan. Goiiena Telebistak emango du hilaren 14an, eguna, 22:00etan. Asier Errasti aurkezleak Iraixe Alonso, Aitor Elkoro eta Pello Gorrotxategi elkarrizketatuko ditu, herria ezagutzeko helburuarekin.

OHARRAK

FRONTENIS TXAPELKETA

Zabalik da izen-ematea amateur mailako frontenis txapelketan parte hartzeko. Prezioa da hamar euro bikoteko, eta interesatuek Bolatoki tabernan eman behar dute izena apirilaren 20rako.

MENDI IRTEERA

Domekan Bizkai aldera egingo du irteera Kantsatzeke Mendi Taldeak. Parte-hartzaileak 08:00etan abiatuko dira herritik.

GARBIGUNE IBILTARIA

Salbador kaleko plazan izango da, eguaztenean, apirilak 13, 10:00etatik 21:00etara.

DANTZA IKASTAROA

Apirilaren 13an, eguaztana, abiaraziko dute neska-mutikoendako euskal dantzen ikastarora. Bi talde egingo dituzte, eta prezioa da 12 euro. Interesatuek udaletxean edo liburutegian eman dezakete izena.



Amaia Txintxurreta
Kantariko aurkezlea.

5. ALDIA Kantari



Ikuskizunak Arrasaten

Apirilaren 9an eta 10ean Amaia antzokian.



Bergarako saioak Goiena Telebistan!

Begarako lehen saioa:

Apirilak 9, zapatua, 10:30 eta 20:00
Apirilak 10, domeka, 9:00 eta 16:30
Apirilak 11, astelehena, 19:00
Apirilak 14, eguena, 13:30

Bigarren saioa:

Apirilak 9, zapatua, 9:00 eta 16:30
Apirilak 10, domeka, 10:30 eta 20:00
Apirilak 12, martitzena, 13:30
Apirilak 15, egubakoitza, 19:00

Hirugarren saioa:

Apirilak 16, zapatua, 10:30 eta 20:00
Apirilak 17, domeka, 9:00 eta 16:30
Apirilak 18, astelehena, 19:00
Apirilak 21, eguena, 13:30

Laugarren saioa:

Apirilak 16, zapatua, 9:00 eta 16:30
Apirilak 17, domeka, 10:30 eta 20:00
Apirilak 19, martitzena, 13:30
Apirilak 22, egubakoitza, 19:00

Bosgarren saioa:

Apirilak 23, zapatua, 10:30 eta 20:00
Apirilak 24, domeka, 9:00 eta 16:30
Apirilak 25, astelehena, 19:00
Apirilak 28, eguena, 13:30

Seigarren saioa:

Apirilak 23, zapatua, 9:00 eta 16:30
Apirilak 24, domeka, 10:30 eta 20:00
Apirilak 26, martitzena, 13:30
Apirilak 29, egubakoitza, 19:00

Zazpigarren saioa:

Apirilak 30, zapatua, 10:30 eta 20:00
Maiatzak 1, domeka, 9:00 eta 16:30
Maiatzak 2, astelehena, 19:00
Maiatzak 3, eguena, 13:30

Zortzigarren saioa:

Apirilak 30, zapatua, 16:30
Maiatzak 1, domeka, 10:30 eta 20:00
Maiatzak 3, martitzena, 13:30
Maiatzak 6, egubakoitza, 19:00

Bederatzigarren saioa:

Maiatzak 7, zapatua, 10:30 eta 20:00
Maiatzak 8, domeka, 9:30 eta 16:30
Maiatzak 9, astelehena, 19:00
Maiatzak 12, eguena, 13:30

Hamargarren saioa:

Maiatzak 7, zapatua, 9:00 eta 16:30
Maiatzak 8, domeka, 10:30 eta 20:00
Maiatzak 10, martitzena, 13:30
Maiatzak 13, egubakoitza, 19:00



Informazio gehiago: 943 25 05 05
<http://blogak.goiena.eus/kantari/>

goiena™

KIROLA

PILOTA

Rezustaren adina dute herrira azkenekoz ekarritako txapelek

- Duela 23 urte Zezeagak eta Etxanizek irabazi zuten eskuz binakoa
- Profesionaletan bi urte eginda iritsi da Bergarako final handi batera

XABIER URZELAI | BERGARA

Finalerako materiala aukeratuta –polemika barik–, entrenamendu saioak amaituta, Bergarako frontoirako pantaila erraldoia gertu, eta finala ikustera Bilbora eramango dituzten bi autobusak alokatuta. Dena dago zapatuko arratsalde handirako gertu, baita Rezustaren koadrilakoek harmailetan erakutsiko duten pankarta ere, *Pelotari umila, txapelan bila!* leloarekin.

Pare bat hamarkada pasa dira bi bergararrek eskuz binako txapela jantzi zutenetik [Aitor Elkoro elgetarrak 1999an irabazi zuen], hain zuzen, Beñat Rezusta jaio zen urtean jantzi zuten txapela Etxanizek eta Zezeagak, 1993an: "Txapelketa jokatzeko hutsa izugarria izan zen niretako", dio atzera begiratuta Aspeko kirol zuzendariak. "Asegarce enpresa sortu berria zegoen, eta urte hartan bi txapelketa izan ziren. Bi beharrez txapelketa bakarria antolatu izan balute ez dakit jokatu nukeen, baina horretarako aukera izan nuen, eta baita irabazi ere".

Orain Rezustak moduan, Etxanizek finalera iritsi zenean bi urte pasa zeramatzan profesionaletan: "Sasoi hartan atzelariak pisu handia izaten zuten partiduetan, eurek gidatzen zuten jokoa, eta Zezeaga oso ondo zebilen. Aurrerago izan ginen beste final batzuetan, baina ez genuen txapelik jantzi".

Txapelekin obsesionatu barik

Hogeita hiru urte pasatu eta gero bada garaia txapela ostera ere Bergarara ekartzeko; horren gainean galdetuta, Etxanizek garbi du: "Denek ematen diote garrantzia txapelari, baina ez pentsa, pilotari baten ibilbidea ez nuke mugatuko lortutako txapel kopurura, urte osoan egindako lana hartzen dut nik kontuan. Eta uste dut Beñat dagoeneko pozik egoteko moduan egon daitekeela. Ikusi bestela zelako ibilbidea daraman, promozio kategoriako eskuz binakoa eta buruz burukoak irabazi ditu, eta lehenengo mailan dagoeneko final batean da, txapelketa oso ona eginda. Baina bai, behin finalera iritsita, denek gura dute txapela irabazi".



Beñat Rezusta, Bilboko Bizkaia pilotalekuan egindako entrenamendu saioetako batean. | XABIER URZELAI

Sasoi hartan Etxanizekin batera historia egin zuen Jose Mari Zezeagaren seme Josuk aste berezia izan du. Gazte bergararrak amateur mailan debuta egin du aste barruan –garaipenaz–, aitarren pausoei jarraika: "Askotan esan ohi dit aitzak ze zaila den halako txapelketa bateko finalera iristea. Beñatek lortu du, ez da izango erraza finala irabaztea, denok ezagutzen dugulako Aimar, eta *Urruti* ere bikain dabilelako, baina zorte apur batekin Irujok eta Rezustak ere aukerak izango dituzte finala irabazteko. Gainera, Beñatendako bai, baina txapela irabaztea polita izango litzateke bergarrendako ere".

Finala Madrildik jarraitu behar

Eneko Muguruzak behin baino gehiagotan neurtu ditu herriko frontoian indarrak Rezustarekin, eta, Bilbotik beharrez, Madrildik jarraituko du partidua: "Aspaldi egin genuen Real Madrilen eta Eibarren arteko partidua ikustera joateko plana, eta finala parean tokatu da. Pena hori dut, baina ordenagailua eramango dugu Madrilerara, partidua nonbaiten jarraitu ahal izateko", dio.

Amateur mailako pilotaria, Muguruza aspaldi jabetu zen ez zela profesionaletara iritsiko, baina oraindik ere begirada pizten zaio halako final bat jokatzeko aukera aipatuta: "Kristorena

izango litzateke. Ez finala jokatzeko bakarrik, baita profesionaletara iristea ere. Baina guk amets hori baztertuta daukagu, eta Beñatek goza dezala finalaz".

Partidu garrantzitsuetan Beñaten ondoan *botillero* moduan egotea zer den ondo daki kuadrillako Mikel Gallastegik. Oraingoan, baina, botilleroaren aukeratik beharrez harmailetatik sufrituko du: "Gozatu eta sufritu, dena egingo dugu. Baina egun handia izango da, gaztetatik gurekin egon den pilotaria horrelako final batean ikustea, eta Bergarako pilota eskolarentako ere oso positiboa da".

Finala galdu edo irabazi, Beñat Rezustak garbi du zapatuan izango duela zer ospatu: "Halakoak ez dira egunero bizi izaten, gauza handia da final bat jokatzeko, eta gertatzen dena gertatzen dela lagunekin ospatuko dut. Eurak bazkal ordutik hasiko dira parrandan, eta gu afalordurako batuko gara", adierazi du.

Galdu edo irabazi, Rezustari inork ez dio kenduko Reyes Azkoitiaren besarkada beroa: "Herriko pilota eskolatik irtendako mutil bat isil-isilik horren gorenera iritsi dela ikusteak izugarri pozten nau. Joka dezatela dakitena, hala egiten badute izango dute irabazteko aukera, ez izan inongo zalantzarik".

ENEKO MUGURUZA PILOTARIA

"Halako final bat jokatzeko bakarrik ez, profesionaletara iristeko hutsa sekulakoa da. Lasai ikusi dut aste barruan, joka dezala dakiena".

REYES AZKOITIA ENTRENATZAILEA

"Rezustak eta Irujok euren jokatzeko badute uste dut kontrarioek asko jokatu beharko dutela finala irabazi ahal izateko; finalerdietan baino hobeto ikusi gura ditut".

MIKEL GALLASTEGI BOTILLEROA

"Bizitza osoan pilotan ondoan izan duzun hori halako final batean ikustea demasa da. Gainera, positiboa da Bergarako pilota eskolarentako".

JOKIN ETXANIZ ASPEKO KIROL ZUZEND.

"Lortutako txapel kopurua baino gehiago, urte osoan egindako lana izaten da garrantzitsua, eta Beñatek dagoeneko baditu pozik egoteko motiboak".

JOSU ZEZEAGA PILOTARIA

"Aitari askotan entzun izan diot ze zaila den halako final batera iristea. Beñatek lortu du, eta Aimar eta *Urruti* bikain badabilta ere, zorte apur batekin irabaz dezakete".

ESANAK

"Halakoak ez dira egunero jokatzeko, ea gozatzeko aukera dugun"

"Galdu ala irabazi, lagunekin izango dut zer ospatu"

BEÑAT REZUSTA | PILOTARIA

Pantaila erraldoia jarriko dute Bergarako pilotalekuan, finala jarraitzeko, doan

Nahiz eta sarrerak garesti egon, seguru zapatuan Beñat Rezustak herrikide askoren babesa izango duela Bilboko Bizkaia pilotalekuko harmailetan. Baina, herrian geratzen denak ere izango du partidua giro onean jarraitzeko aukera, frontoian pantaila erraldoia jarriko dute-eta.

Sarrera doakoa izango da, baina pilotalekuko gehieneko edukiera zaindu gura du Udalak, eta sarrera horiek Agorrosinen daude eskuragai, eguztinetik. Hala, biharko ere gordeko dituzte sarrera batzuk, frontoiko atean bertan banatzeko. Udala pilotalekuko leihatila 17:00etan zabalduko dute, eta ordu erdi geroago zabalduko dituzte pilotalekuko ateak (17:30). Hala, Bergarako Udalak dei egin gura die herritarrei, finala pilotalekuan bertan jarraitzeko.

MENDI LASTERKETAK

Punta-puntako korrikalariak eta herrikoiagoak, Udalatxi begira

Iaz baino 100 korrikalari gehiagok parte hartuko dute domekako lasterketan, 10:00etan

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Iazko arrakastaren bidetik, Arrasate-Udalatx lasterketaren bigarren aldia egingo dute domekan: 10:00etan irtengo dira korrikalariak Herriko Plazatik, 21 kilometroko ibilbidea egiteko. Aldaketa barik. Berrikuntza barik. Halaxe aurkeztu dute lasterketa. "Iazko iritziak oso positiboak izan ziren. Orduan, zertarako aldatu?" esan du Eneko Urrizalkik. 11:50 aldera iritsiko dira lehenengo korrikalariak helmugara.

Emakume gehiago

Iazkoarekin alderatuta, korrikalari gehiagok parte hartuko dute etzi: iaz 200ek eta aurten 300ek. Erdiak bailarakoak dira eta gainerakoak Euskal Herrikoak eta kanpotarrak. Kontuan hartu beharreko izen propioen artean ultra lasterketatan lehiatzen diren Silvia Trigueros eta Jokin Garai aipatu dituzte. "Trigueros mundu mailako probetan parte hartu izan du eta Garai Euskal Herriko txapelduna da. Horiakin batera, Aitziber Ibarbia, Elena Calvillo, Maria Zorroza, Aritz Egea eta Aritz Kortabarria, besteak beste", aipatu du Urrizalkik.

Parte-hartzaile kopuruak gora

DATUA
300
KORRIKALARI

Horiek dira domekako mendi lasterketan parte hartuko duten korrikalariak. Iaz baino 100 parte-hartzaile gehiago.

egiteak, baina bereziki emakumeen parte-hartzeak gora egin izana azpimarratu dute. "Iaz hamahiru emakume egon ziren eta aurten 30. Pozik gaude erantzunarekin. Euskal Herriko selekzio kideak irteeran egongo dira, gainera".

Jaitsiera azkarragoa

Ibilbidean ez dago aldaketarik. Lehen metroak alde zaharrean egingo dituzte eta Meatzerreka aldera hartu eta handik Udalara joango dira, Udalatxera bidea hartu aurretik. "Lehen zati hori geldoagoa da eta zailtasun teknikoa dauka", esan dute. Jaitsiera, ordea, azkarragoa izango da, zailtasun bakoa eta parte-hartzaileei korrika egiteko aukera emango diena.



Iazko lasterketako parte-hartzaileetako batzuk Udalatxerako bidean. | ARTGAZKI TALDEA

Ibilbidea zintarekin markatuta egongo da eta lau anoa-gune izango ditu: bitan jatekoa eta edatekoa egongo da eta beste bitan, edatekoa.

Elkartasun lasterketa

Domekako Udalatx lasterketa izaera solidarioa izango du. Garun paralisia duen Naiara Agreda neskato arrasatearrarendako dirua batzeko baliatuko dute. Besteak beste, tratamenduak, ekipamendua, kontsultak eta probak ordaintzeko. Korrikalari bakoitzak euro bat bideratu du Agredari laguntzeko.

Mondraitx elkarteak korrikalari bakoitzeko beste euro bat ipini du.

ENEKO URRIZALKI | MONDRAITZ TALDEKO KIDEA

"Iazko arrakasta errepikatu gura dugu"

"Gogotsu" daude Mondraitx taldeko kideak. "Gogotsu" eta "urduri".

Dena gertu izango duzue dagoeneko.

Bai. Azken orduko lanak falta dira. Batez ere, domeka goizean boluntarioekin egin beharrekoak. **Iazko arrakastatsua izan zen. Aurtengoa?**

2015ekoak izandako arrakasta errepikatu gurako genuke. Hori da



helburua eta hori lortzeko egin dugu lan. **Zintaz markatutako ibilbidea errespetatzea eskatu duzue.**

Iaz susto txiki bat izan genuen. Azken egunetan euria egin du eta jaitsiera labainkor egongo da. Korrikalariaren bat ibilbidetik kanpo ikusten badugu, deskalifikatu egingo dugu. Lasterketatik kanpo geratuko da.

TURKISH AIRLINES EUROLEAGUE

PLAYOFFS

LABORAL KUTXA

EKINAREN EKINEZ - EZINEZKOA EGINEZ

LEHENENGO PARTIDUA
APIRILAK 12 EDO 13

BIGARREN PARTIDUA
APIRILAK 14 EDO 15

SARRERAK SALGAI

DENDA OFIZIALA - GENERAL ALAVA KALEA, 1 - 902 13 91 91

BASKONIA

LABORAL KUTXA

MENDI LASTERKETAK

Cabralesko (Asturias) kilometro bertikala irabazi du Oihana Kortazar elgetarrak

Lehia estua izan zuen Paula Cabrerizorekin eta Vanesa Ortegarrekin

M.B. | ELGETA

Oihana Kortazar elgetarrak Cabralesen (Asturias) jokotutako kilometro bertikala irabazi zuen aurreko aste bukaeran, 2.15.45eko denbora eginda. Lehia estua izan zuen Paula Cabrerizorekin (bigarrena) eta Vanesa Ortegarrekin (hirugarrena).

Gizonezkoetan, Ferran Teixido izan zen onena.

Hiru kilometro bertikal

Cabralesko kilometro bertikalak hiru proba ditu, eta egun egiten diren kilometro bertikaletako probarik gogorrenetakoa da.

Lehenengo bertikala Calluengaraino egin zuten, 2,5 kilometro eta 984 metroko desnibel metatuekin. Proba horretan Cabrerizo izan zen azkarrena 44.05eko denborarekin; Kortazar bigarren sailkatu zen 44.28ko denborarekin.



Oihana Kortazar Cabralesko kilometro bertikaletako baten. | CABRALES 3 VERTICALES

Bigarren igoera Subisomase-ra izan zen (hiru kilometro) eta hirugarrena Aventonera (1,9 kilometro). Bietan, korrikalari elgetarra izan zen azkarrena, lehenengo igoeran galdutako denbo-

ra berreskuratzeko gai izan zen eta lasterketa irabazi zuen.

Asturiasko probaren ostean, Kortazarrek Espainiako trail txapelketan parte hartuko du aste bukaeran, La Palman.

SASKIBALOIA

MUK bigarrena du etxean eta Natra Oñatik Berrio Otxoa hartuko du

Valladoliden kontrako garaipen garrantzitsuaren ostean, MUko mutilek berriro jokatuko dute etxean, Santurtziren kontra (18:00). Pauso galanta eman bai, baina oraindik ez diote kategoriari eutsi. Oñatikoeak, berriz, etxean jokatuko duten hirugarren partidua izango da (18:00). Aurreko biak irabazi egin dituzte, gainera.

DUATLOIA

Gernikako lasterketa irabazi du Nere Arregi arrasatearrak

Zapatuan egin zuten Gernikako duatloian Nere Arregik sasoi betean dagoela erakutsi zuen, lehenengo sailkatuta (01:10:24). Irene Loizate eta Leire Etxezarreta gaingiditu zituen Arrasateko atletak. Hala, Donostiako maratoin podi-mera igo ostean, duatloietan ere aurrean ibil daitekeela erakutsi du Zigorrolakoak.

PILOTA

528 pilotarirekin hasi da Leintz Gatzagako txapelketa

Udako oporrak bitartean domeketan jokatuko den txapelketan Euskal Herri osoko 7 eta 14 urte arteko pilotariek hartuko dute parte, binaka. 12 urtekoen txanda izan zen domekan, eta Errenteria, Markina, Altsasu eta Lakuako pilotariak izan ziren, bailarakoekin batera.

FUTBOLA

Bergara eta Mondra bigarren postuagatik borrokatuko dira

Kategoriak igotzeko borrokan diren bi taldeek derbia jokatuko dute bihar

XABIER URZELAI | BERGARA

Aste Santu aurretik Bergarak Urolaren zelaian berdindu izanak (0-0) emozioa kendu dio bihar bergararrek (46 puntu) eta mondragoarrek (50) jokatuko duten derbiari. Izan ere, Mondrak ez zuen Ikasberriren kontra barkatu (1-0) eta horri esker orain momentuan lau puntu daude sailkapenean bigarren eta hirugarren sailkatuta daudenen artean.

Hala, inork gutxik espero du liderraren -Amaikak Bat- txakalaldi bat, eta liga amaitzeko sei jardunaldi geratzen badira ere, debatarrek duten zortzi puntuko (58) aldeak gaindiezina dirudi, batez ere urte osoan ez dutelako makalaldirik erakutsi. Bigarren postuak, baina, saria izan dezake, igoera fasea jokatzea, eta sari horregatik borrokatuko dira Bergara eta Mondra Agorrosinen.

Kategoria berean, jaitsiera postuetan murgilduta dauden Antzuolak eta Usurbilek elkarren kontra jokatuko dute Estalan. Eta Aretxabaletak Urkomendiren zelaian jokatuko du.

UDA, moralki 'ukituta'

Aretxabaletak geroago eta zailago du kategoriari eustea, baina jokalariek, geratzen diren sei partiduei begira egon barik, aste-rokoarekin jarraitzen dute. Hala, xite aitortu zuen Igor Arenaza entrenatzaileak domekan, Pasaia-aren kontrako partidua galdu berrian: "Geratzen diren partiduei begira egongo bagina ez genuke



Bergarako jokalaria penaltia jaurtitzeko unean, artxibo erretratuan. | GOIENA

gauza onik egingo. Hobe aste-ro-astero joatea, horretan zentratzea, eta oraingo astean Baskonia izango dugu kontrario, domeka goizean (11:30)". Aretxabaletarrek

zigor gogorra jaso zuten domekan, ez zuten halakorik merezi (1-2) partidua irabazteko nahikoa meritu egin zuten eta. Baina detaile txikietan joan zitzaizen partidua,

ESANAK

"Taldeak garaipena behar du konfiantza hartzeko; eguneroko lana ona da"

IGOR ARENAZA | UDA-KO ENTRENATZAILEA

denboraldian zehar hainbatetan pasa zaien moduan: "Garaipen bat behar dugu moralki osterera ere gora egiteko. Taldea oso ondo entrenatzen dabil, gustura gaude jokalaria egiten dabiltzan lanarekin, baina hutsegite txikiak oso garesti ordaindu ditugu, eta halakoak saihesteko egin beharko dugu lan, ez zaigu besterik geratzen".

Aloña Mendik badu zer esan

Ohorezko erregionalean, osterera, Aloña Mendik ez du azken hitza esan. Sailkapenaren erdi-erdian dagoen Hondarribiaren bisita izango dute domekan etxean. Orain momentuan seigarren daude (43 puntu), eta hainbat talde daude bosgarren postuagatik borrokan, tartean, Ostadar (43), Hernani (43) eta Oiartzun (42).



II. ARRASATE - UDALATX MENDI LASTERKETA
21km +1250 m
Iriteera - salida: 10:00
10/04/2016
www.mondraitz.eus

Babesleak:



Langutzaileak:



banka kooperatiboa

LABORAL kutxa

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA	ARETO FUTBOLA	SASKIBALOIA
HIRUGARREN MAILA Baskonia-Aretxabaleta Domeka, 11:30. Gasteiz.	EUSKAL LIGA Kukuyaga-Aretxabaleta Zapatua, 18:00. Etxebarri. Eskoriatza (atsedena)	EBA MU-Santurtzi Zapatua, 18:00. Iturripe.
OHOREZKO ERREGIONALA Aloña Mendi-Hondarribia Domeka, 16:30. Azkoain.	LEHENENGO MAILA Mondrate-lurre taberna Zapatua, 15:50. Iturripe.	BIGARREN MAILA Natra Oñati Aloña-Berrio Otxoa Zapatua, 18:00. Zubikoa.
ERREGIONAL PREFERENTEA Bergara-Mondra Zapatua, 16:30. Agorrosin. Antzuola-Usurbil Zapatua, 16:30. Estala. Urkomendi14-Aretxabaleta Domeka, 17:30. Eibar.	EMAKUMEZKO SENIORRAK Eskoriatza-Inter Altzako Zapatua, 19:30. Manuel Muñoz.	GIZONEZKO SENIORRAK Soralue Bergara-Zast Zarautz Zapatua, 16:30. Agorrosin.
EMAKUMEZKOEN LIGA Arizmendi-Mutriku Zapatua, 17:30. Ibarra. Beti Gazte-Mondra Domeka, 12:00. Lesaka.	GIPUZKOAKO GAZTEAK Samaniego-Mondrate Zapatua, 10:00. Tolosa.	MU-DKS Zapatua, 16:00. Iturripe.
OHOREZKO GAZTEAK Aretxabaleta-Zarautz Domeka, 16:30. Ibarra. Ordizia-Aloña Mendi Zapatua, 16:00. Ordizia. Mondra-Bergara Zapatua, 16:00. Mojategi.	ERRUGBIA SENIORRAK, 2. MAILA Gernika-Kanpanzar ART Zapatua, 16:30. Mojategi.	ERRUGBIA MENDI LASTERKETA ARRASATE-UDALATX Domeka, 10:00etan hasita, Arrasateko plazatik abiatuta.
EMAKUMEZKOEN LIGA Arizmendi-Mutriku Zapatua, 17:30. Ibarra. Beti Gazte-Mondra Domeka, 12:00. Lesaka.	ESKUBALOIA EUSKAL LIGAKO SENIORRAK Siglo XX-Izarraitz Taberna Domeka, 11:45. Ordizia. Urduliz-Ford Mugarri Zapatua, 16:30. Zubikoa.	GIMNASIA ERRITMIKOA EUSKADIKO AEROBIK TXAPELKETA Zapatua, 11:00etan hasita Iturripeko kiroldegian.
EMAKUMEZKOEN LIGA Arizmendi-Mutriku Zapatua, 17:30. Ibarra. Beti Gazte-Mondra Domeka, 12:00. Lesaka.	GAZTEAK, KOPA (GIZON.) Aloña Mendi-Eibar Zapatua, 18:00. Zubikoa.	
EMAKUMEZKOEN LIGA Arizmendi-Mutriku Zapatua, 17:30. Ibarra. Beti Gazte-Mondra Domeka, 12:00. Lesaka.	GAZTEAK, KOPA (EMAKUM.) Aloña Mendi-Tecniuelle Zapatua, 16:00. Zubikoa.	

KULTURA

Kultura underground eta herrikoia balioan jartzeko erakusketa

'Rockomikiak, Biñetak@Doinuak' bilduma Arrasateko Kulturaten ikusgai gaurtik aurrera

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE
Arrasateko Udal Bibliotekak, Liburuaren Nazioarteko Eguna-ren harira antolatutako duen egitarauan, irudiari eman dio garrantzia aurten. Horren erakusle da Kulturateko klaustroan gaur, egubakoitza, zabaldu duten *Rockomikiak, Biñetak@Doinuak* erakusketa. Apirilaren 30era bitartean izango da ikusgai.

Garai bateko kultura underground eta herrikoia balioan jartzeko helburua du erakusketa. Komikiak, fanzineak, disko azalak eta libretoak, kartelak, argazkiak... bildu dituzte. "80ko hamarkadan egon zen pizkunde kultural eta artistikoa islatzen du. Medio oso gutxiarekin egiten ziren fanzineak, kontzertuak, askotariko egitasmo kolektiboak: irratilibrak, arte erakusketak... Era berean, garai hartan euskal musikak eta komikiek zuten harremana ere erakusten da. Adierazpen horiek gauzatu ziren garaian ez ziren kulturaltzat jo, nahiz eta egoera sozial, politiko eta kultural zehatz batean gizarte talde batek zituen kezkek, jakintza eta asmoak horien bitartez azaldu. Izaera lokalista zuten, subproduktu kulturalak ziren. Adierazpen guzti horiei, izaera kulturala aitortu gura izan diegu", dio Asun Agirianok, Arrasateko Udal Bibliotekako kideak.

Kolaboratzaile askorekin eginda Arrasatera Udal Bibliotekaren eta Kultura sailaren eskutik badator ere, Asmatu, Komunikazioa eta Kultura elkarteak Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin eta Oihaneder Euskal Etxearen eta Sancho El Sabio Fundazioaren laguntzarekin osatutako bilduma da. "Orokorrean, aurrez Donostian eta

Gasteizen izan den erakusketa bera da, baina gurean Arrasateko eta Debagoieneko osagaiak ere badaude. Borondatezko kolaboratzaile ugari izan ditugu, euren artxibo pertsonaletik materiala utzi digutenak: Kepa Altube *Kopi*; Mikel Montoya; Edurne Landaluze; Karmelo Alberdi; Iker Barandiaran; Diego Martiartu; Txus Izquierdo; Vicente Mena; Joseba Isazelaia *Piraña*; eta Txerra Bolinaga. Denbora laburra izan dugu bilketa egiteko eta ez dugu sasoi hartako material guztia jasotzerik izan; hala ere, herritarrek gura izanez gero, material gehiago jasotzeko prest gaude. Orain arte jasotakoa eta aurrerantzean jaso dezakeguna Udal Bibliotekan gordeko dugu, herriko ondarearen erakusle", azaldu du Agirianok.

Lau ataletan banatuta

Gasteizen eta Donostian moduan, lau ataletan banatu dute Kulturaten ikusgai dagoen bilduma: musika, komikiak, irakurgaiak eta telebista. Musikaren atalean, disko azalak eta libretoak daude; musikarekin lotura zuzena duten



Asmatu, Komunikazioa eta Kultura elkarteak eguaztenean Kulturaten erakusketa muntatzen. | XABI GOROSTIDI

komikiak daude bigarren atalean; irakurgaien atalean, berriz, bestelako gaietako komikiak, fanzineak eta liburuak jaso dituz-

te; eta 80ko eta 90ko hamarkadetakako bideoak ikusteko aukera dago laugarrenean.

Aipatutako osagai horiez gai-

nera, *Rockomikiak* erakusketaren osagarri, TMEO aldizkari satirikoaren erakusketa ere jarri dute Kulturaten. "80ko hamarkadan jaio eta gaur egun ere bizirik dagoen aldizkaria da. Hastapenetan moduan, izaera oso gaberroa du eta tabernetan saltzen dute. Asmo ludikoa du, barre eragiteko helburuaz egindakoa da. Bizi dugun garai ilunetan, eskertzekoa da, duda barik".

Ikasleentzako bisita gidatuak

Publiko zabalarentzako erakusketa aproposa dela dio bibliotekariak. "Belaunaldi gazteentzat interesgarria izan daitekeela uste dugu; izan ere, oraindik ere garai hartako musika entzuten dute gazte askok. Eta nola ez, garai hura bizi izan dutenentzako ere bai; gogoeta ariketa ona izan daiteke horientzat. Irudia arte adierazpide eta komunikazio tresna dutenen interesekoa ere izan daiteke; Batxilergo Artistikoko ikasleak ere gonbidatu ditugu. Orokorrean, ikastetxe askotatik etorriko dira, eta horientzako bisita gidatuak antolatu ditugu. Gasteizko erakusketan gidari lanetan jardun zuen Gorka Lazkano izango da Arrasatekoan ere dinamizatzailea".

Altarribarren azkena ere bai

Erakusketaren bueltan musika eta marrazketa saioa, erakusketa eta *El ala rota* komikiaren aurkezpena prestatu dituzte. Arrasateko Bibliotekako aspaldiko kolaboratzailea den Altarribak Kim marrazkilariarekin egin duen azkeneko lana da *El ala rota*. "Primizia izango da. Aspaldi lotu genuen, gidoia idazten ari zela. Harreman estua du gurekin".



80ko hamarkadan klaustroan egin zuten Arte Hamabostaldia. | KEPA ALTUBE

ERAKUSKETAKO EKINTZAK

BERTSO PUNK MARGOTUA

Apirilak 26, 19:00: Arrasateko margolarien eta musikarien saioa. Partaideak: Helena DiDi, Kopi eta Danel Goikolea marrazkilariak eta Igor eta Magu musikariak.

JULEN RIBASEN ERAKUSTALDIA

Apirilak 29, 19:00: Arrasateko margolari eta komikigileak jendaurrean marrazkiak egingo ditu.

'EL ALA ROTA' KOMIKIAREN AURKEZPENA

Apirilak 28, 19:30: Antonio Altarriba eta Kim marrazkilariak argitaratu berri duten lana aurkeztuko dute Jokin Zaitegi aretoan.



Sorgina irratia kontzertua. | M.M.



Diego Martiarturen fanzinea. | D.M.



Garai bateko disko azalak. | ASMATU



Komikiak eta musika elkarrekin. | A.

ESANAK

"Jasotakoa Udal Bibliotekan gordeko dugu ondare gisa"

ASUN AGIRIANO | BIBLIOTEKARIA



Arantzasu Ibarrodo, Oñatiko liburutegiko zuzendaria. | ENENKO AZURMENDI

'Irakurri, gozatu eta oparitu' egitasmoa martxan da dagoeneko

Euskaltzaleen Topaguneak 50 herritan jarri du martxan kanpaina, tartean Aramaion eta Oñatin, eta euskarazko irakurzaletasuna bultzatzea du helburu

E. AZURMENDI | ARAMAIO ETA OÑATI
Euskaltzaleen Topaguneak *Irakurri, gozatu eta oparitu* izeneko egitasmoa jarri du martxan, zenbait euskara elkarte, udal, liburutegi eta liburu dendarekin batera.

Apirilaren lehen hasi zen kanpaina eta maiatzaren 31ra arte iraungo du. Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzea da helburua, eta, horretarako, euskarazko liburuak erosteko abantaila ekonomikoak egongo dira.

Euskal Herriko 50 herritan dago martxan egitasmoa, tartean Aramaion eta Oñatin.

Izenak berak ondo adierazten duen moduan, hiru urrats nagusi egin behar dira egitasmo honetan parte hartzeko: lehenik eta behin, udal liburutegian euskarazko liburu bat maileguan har-

tu ahalko da, etxean irakurtzeko. Behin irakurritu, liburu horren inguruko fitxa bat bete beharko da, zein liburu den eta honen inguruko iritzia emanaz. Fitxa hori betetzean, liburuazainak erosketatxeke bat emango du, hitzartutako dendan erabiltzeko baldintzarekin. Azken urratsa %35eko deskontuarekin erosita-ko liburu hori oparitzea izango da, senideren bati, lagun bati edota nork bere buruari.

Oñatin ekimen hau martxan dagoen lehen aldia da aurten. "Euskaltzaleen Topagunearen eskaintza jaso genuen, eta, kultura batzordean hausnartu ondoren, erabaki zen komenigarria izango litzatekeela mota honetako kanpaina baten parte hartzea, eta liburutegian ere onartu egin genuen", azaldu du Arantzasu

Ibarrodo, Oñatiko liburutegiko zuzendariak. Nabarmendu du kanpaina hau oso aproposa dela herriko eragile desberdinen elkarlana sustatzeko; liburutegiaren eta liburu dendaren artekoa, batik bat.

Orain arteko bederatzita edizioetan oso eragin positiboa izan du euskarazko liburuen artean, maileguan hartzen diren euskarazko liburuen kopuruak gora egiten du eta.

Gomendio zerrenda

Berritasun moduan, Patxi Zubizarreta idazleak gomendatutako liburu zerrenda bat dago parte hartzen duten liburutegietan, eskuorri batean jasota. Bertan, adin tarteka sailkatutako liburuak daude eta euskal idazleen zein itzulitako liburuak ere izan-ko dira.

'Iñigo eta biyok Gozategiz' ekitaldia izango da bihar Oñatiko gaztelekuan

18:00etan izango da kontakizun intimo eta zuzeneko musika emanaldia

E.A. | OÑATI

Oñatiko Trikitizale Elkartek antolatuta, *Iñigo eta biyok Gozategiz* emanaldia izango da bihar, zapatua, 18:00etan, Oñatiko gaztelekuan.

Gozategi taldeko Asier Gozategi eta Iñigo Goikoetxeak eskaintako ekitaldi honetan, taldeak 25 urteotan -1992an sortu zen Gozategi- bizi izandako esperientziak kontatuko dituzte modu intimoan, eta zenbait abestiren sorburuak ere azalduko dituzte, modu literarioan. Horrez gain, abestiak ere tartekatuko dituzte.

Lankuren laguntzarekin osatu dute lan hau eta gidoia, berriz, Jon Agirresarobek prestatua da.

Taldekiek diote maitasun handia jaso dutela plazaz plaza egindako ibilbidean, eta horrek eman diela hauspoa ikuskari hau lantzeko eta ontzeko.

Emanaldi berria da eta oraindik ezagutarazte prozesuan dago. Orion eskaini zuten lehen aldiz, martxoaren 18an, eta biharkoa bigarren aldia izango da.

Sarrerak salgai

Oñatiko Ongi tabernan daude salgai sarrerak, nahi duenarentzat, 5 euroko prezioan.

Horrez gain, gaztelekuko erabiltzaileak diren hurrek gaztelekuan bertan sarrera eskatuta, 2 euroren truke eskuratu ahal izango dute sarrera.

'Lucio bikaina!' haurrentako lantegia eskainiko du Arantzazuk

E.A. | OÑATI

Arantzazu Gaur Fundazioak 6 eta 11 urte bitarteko haurrentako lantegi bat eskainiko du bihar, zapatua, 10:30etik 13:30era.

Hurrek Lucio Muñoz (1929-1998) margolari madrildarra ezagutzea da lantegiaren helburua. Horretarako, margolariak berak egindako Arantzazuko Basilikako erretaularen erreplika bat egingo dute hurrek, batez ere, egurra erabiltuta. Izan ere, Muñoz pintore abstraktua zen eta egurra modu espresiboan eta poetikoan landu zuen. Esan bezala, 10:30ean

hasiko dira haurrak lanean. Lehenik, sarrera labur baten bitartez, lantegiaren nondik norakoak azalduko zaizkie hurrei. Ondoren, bisita gidatua egingo zaie Arantzazuko Basilikan. Azkenik, lantegiako bidea hartuko dute eta bertan zenbait ariketa egingo dituzte, egurra, pintzelak, kartoi meheak eta beste zenbait erreminta uztertuz.

Errepikatu egingo da

Lantegi bera errepikatu egingo dute maiatzaren 14an. Edozelan ere, plaza guztiak agortu dira dagoeneko.

Zorionak denoi!

Hauek dira Goiena Klubeko martxoko zozketetako irabazleak



AUTORAKO IRAKURGAILU MULTIMEDIA

Iñaki Bellido Garcia (Oñati)

PERRETXXIKO ZAINDARIAK, UMEENTZAKO JOKOAK

Eneritz Zubizarreta Zubia (aretxabaleta)
Jone Aranburu Guridi (Bergara)

ARRIKRUTZ KOBETARAKO BINA SARRERA

Oihana Agirre Inza (Bergara)
Saloa Ojanguren Ojanguren (Arrasate)
Jabi Azkarate Larrañaga (Bergara)

HARREMAN DENDAKO OTARREA

Jose Luis Aizpurua (Bergara)

BASKONIA-BILBAO BASKET PARTIDURAKO BINA SARRERA

Juan Ignacio Alzelai Ugarte (Oñati)
Naiara Arietaleanizbeaskoa Azpeitia (Bergara)
Aitor Gutierrez Elkoro (Bergara)
Izaskun Igartua Ugarte (Bergara)

RUPER ORDORIKAREN KONTZERTURAKO BINA SARRERA

Izaro Agirre Bengoa (Arrasate)

HILARION JATETXEAN BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Aitor Gutierrez Elkoro (Bergara)

AMOUR ANTZEZLANERAKO BINA SARRERA

Iker Ayesa Azkoaga (Arrasate)
Loli Zeziaga Bengoa (Arrasate)
Befiardo Balerdi Gomez (Arrasate)

LARRINETXE JATETXEAN BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Eider Garitano Arregi (Bergara)

FUNDANTZ IKUSKIZUNERAKO BINA SARRERA

Yasmina Moreno Escobar (Bergara)

GUERRA MUSIKALERAKO BINA SARRERA

Roberto Iria Ugarte (Arrasate)
Gregorio Kortabarria Balanzategi (Arrasate)

FLORIDO PENSIL ANTZEZLANERAKO BINA SARRERA

Bixente Elorza Gorosabel (Arrasate)
Fernando Karasatorre (Bergara)

MENDIOLA JATETXEAN BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Aizpea Ajuriagerra Uribe (Aramaio)

ANDREA DI COSSIMO CLOWNAREN ANTZEZLANERAKO BINA SARRERA

Miren Anduaga Kortabarria (Antzuola)

GANBARAREN KONTZERTURAKO BINA SARRERA

Mikel Txintxurreta Igartua
Iñaki Idigoras Igartua (Oñati)

BASKONIA-BARTZELONA PARTIDURAKO BINA SARRERA

Lorentxo Iturbe Jauregi (Antzuola)
Joseba Ezpeleta Irizar (Arrasate)
Juan Luis Lizarralde Iturbe (Arrasate)
Agurne Juldain Alcalde (Arrasate)

SANTA ANA JATETXEAN BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Eñaut Alvarez Berriotxoa (Bergara)

BASKONIA-REAL MADRIL PARTIDURAKO BINA SARRERA

Unai Aramendi Regueiro (Oñati)
Maribel Garro Gorosabel (Arrasate)
Ainhoa Martin Peralta (Oñati)
Cesar Azkarate Beitia (Aramaio)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikrutzeko sarrerak. Goiena klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikrutzeko txarteldagian. Sarrerak 3 hilabeteko epe muga izango dute. **ARRIKRUTZ KOBAK.** Araotz Auzoa, OÑATI, 943 08 20 00. Orduetgia: Asteartetik Igandera 10:00 - 17:00 (Aurrez deitu hitzordua egiteko) **Harreman dendako otarrea** Otarrea jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Beste sariak.** Zatoz, GOIENAREN egoitzara. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da. GOIENA Otarora Lizentziaduna, Arrasate, 943 25 05 05. Orduetgia: Astelehenerdik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

AEDren Jokin Zaitegi sariketa abian da, Udalaren laguntzarekin oraingoan

Apirilaren 25erako bidali behar da aurtengo sariketan parte hartzeko lagina

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak eta Eñaut Muxika Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearen presidentek Jokin Zaitegi itzulpen beka lau urtez bermatzeko hitzarmena sinatu zuten atzo, eguna.

2012. urtean antolatu zuen AED elkartearen argitalerekin elkarlanean azkeneko Euskal Herri osoan ezaguna den itzulpen sariketa, ordura arte lehiaketaren babesle nagusia zen Kutxa Fundazioak laguntzeari utzi eta gero. Hala, Arrasateko Udalak, euskararekin eta euskara sustatzearekin duen konpromisoari helduta, sariketa berriro abian jartzea ahalbidetu du, hurrengo lau urteetan beka deitu ahal izateko diru laguntza emateko konpromisoa hartuz eta AEDrekin horretarako elkarlan hitzarmena sinatuta.

Elkarlana sakontzeko asmoa

Jokin Zaitegi sariketari laguntzeaz gainera, hitzarmenak AEDren eta Arrasateko Udalaren arteko elkarlana sakontzea eta areagotzea du helburu.

AEDko presidentek eskertu egin zion Udalari hitzarmenaren



Muxika (AED) eta Ubarretxena alkatea hitzarmena sinatzen. | XABI GOROSTIDI

bitartez sariketari etorkizunerako arnasa emategatik. Era berean, alkateak AED elkartearen egindako lana eta ekarpena baloreaz jartzeaz gainera, nabarmendu zuen Udalak ezinbestekoa duela herriko eragileekin elkarlanean jardutea.

Apirilaren 25a baino lehen

Aurtengoa 27. edizioa da. 2001ean jauzi kualitatibo garrantzitsua eman zuen lehiaketak, Literaturarako Nobel saridunen obra euskaratzeko helburua hartuta.

2015ean Svetlana Aleksievitx Bielorrusiako idazleak eskuratu zuen Literaturarako Nobel saria; haren *U Voiny ne zhenskoe litso* (*Gerrak ez du emakume aurpegia*) liburua itzuli beharko du aurtengo irabazleak. sariketan parte hartu gura dutenek antolatzaileek aukeratutako lagina eskuratu eta itzuli egin beharko dute apirilaren 25a baino lehen. Jatorrizko lagina eta lehiaketarako oinarriak aedelkarte.eus eta elkarargitaletxea.eus/jokinzaitegi atarrietan eskura daitezke.



Altuna, Nantesko Epaimahai Gazteko kideekin. | TXINTXUA FILMS

'Amama' filma Manchesterren eta Teheranen ere aurkeztuko dute

A. A / L. K. | BERGARA

Asier Altuna Bergarako zinegilearen *Amama* filmaren ibilbidea geldiezin da. Donostiako Zinemaldian estreinatu eta gero, nazioarteko 20 zinemaldi baino gehiagotan parte hartu du eta 11 sari irabazi ditu jada.

Martxoaren amaieran, aste bukaera berean, eskuratu zituen azkeneko biak: Nantesko Festival du Cinema Espagnol-en 26. edizioako Epaimahaikide Gazteen saria, batetik, eta Grenobleko Ojoloco zine jaialdiak banatzen duen sari bakarria bestetik, ikuslearen saria.

Astelehenean Manchesterrera Erroma, Montpellier, Mar del Plata, Tallin (Estonia), Annaba

(Argelia), Tromso (Norvegia), Islandia, Herbehereak, Guadaluajara (Mexiko), Palm Springs (AEB), Brusela, Uruguai, Grenoble eta Nantesko zinemaldietan ikusi da *Amama*. Hala ere, mundu osoko zine jaialdietan parte hartzen jarraitzen du. Bihar, zapatua, Altuna zuzendariak Huescako Espiello zinemaldian aurkeztuko du filma. Handik itzuli bezain pronto, astelehenean, Manchesterrera bidea hartuko du, eta hurrengo astean, berriz, Teheranen (Iran) izango dute bergararren lana ikusteko aukera.

Iazko urrian estreinatu zuen *Amama* komertzialki Espainian 140 zine aretotan eta 60.000 ikusle baino gehiago izan zituen.

'GALDEGAZTE' GOIENA TELEBISTAN

Debagoieneko udalek, ikastetxeek eta Goiena Komunikazio Taldeak elkarlanean landutako egitasmoa da *Galdegazte*, 14-18 urte arteko gazteei zuzendutakoa.

Hau da hurrengo saioaren aurrerapena.

Skakeitan-ekin, erritmo bizian



Ezkerretik eskuinera: Pello Armendariz (Skakeitan taldeko abeslaria), Eli, Jone eta Olaia (Bergarako Mariaren Lagundiko ikasleak) eta Jokin Bereziartua (aurkezlea). | OIHANE ISASI

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

2015a urte oso mugitua izan ostean, Skakeitan taldearendako hanka azeleragailutik altxatzeko urtea izango da 2016a. Hori adierazi zuen Skakeitan taldeko abeslari Pello Armendarizek Goiena Telebistako platoan: "Kontzertuen erritmoa jaitsiko dugu, maiatzetik aurrera bizpahiru kontzertu emango ditugu hilean. Orain bertan lokalean gaude abesti berriak sortzen. Helburua da urte amaieran zerbait berria kalera-zea". Duela zazpi urte inguru sortu zen Skakeitan: "Aitor tronboi-jotzailea eta biok Ardi Beltzak taldeko kide ginen. Talde horrek rocka lantzen zuen bereziki eta ska doinuak lantzeko ideia genuen aspalditik. Gutzira beste bi lagun batu ziren eta pixkanaka jende berria sartu zen".

Orditik hainbat pasadizo bizi izan ditu taldeak eta Armendarizek iaz Japoniatik egindako bira oso modu berezian gogoratu du: "Sekulako esperientzia izan zen. *Nako* gure soinu teknikari eta managerraren bidez lauzpabost kontzertu eskainiko genituen Tokion. Hemengo perspektibarekin joan ginen eta berehala konturatu ginen hura beste mundu bat dela. Oso diziplinatuak dira; polita izan zen gure kultura bertako jendearekin partekatzeak aukera izatea. Hala ere, musika geroago eta unibertsalagoa da".

Mariaren Lagundiko ikasleak

Bergarako Mariaren Lagundiko Eli Rodriguez, Jone Mujika eta Olaia Santamaria izan dira Armendariz elkarrizketatu duten ikasleak. Besteak beste, ikasleek jakin nahi izan zuten iaz Skakeitan agertokiz agertoki ibili zela jakinda, halako erritmo baten bidez taldeari kalte egiten dion edo ez: "Nekatu egiten du, bai. Kontzertu baten aurretik eta ondoren lan handia dago. Familia bat bezala gara, ordu asko igarotzen ditugu elkarrekin. Eta noski, haserrealdiak egoten dira. Baina esango nuke ikasi dugula elkarbizitzen, halako egoerak ondo eramaten".

Epe luzerako planik ez dutela ere adierazi du Armendarizek: "Epe motzerako planik egiten ditugu. Lehen helburua disko bat ateratzea izango da eta hortik aurrera, ikusiko da".



SAIOA IKUSTEKO:
GOIENA TELEBISTA
Eguaztena, apirilak 13
22:00etan.

ZORION AGURRAK

Zorion
agur
gehiago:
34. or.

ARRASATE Ekaitz Zulueta Algorta
Apirilaren 14an, 6 urte.
Beti alai eta barreka dabilen geure azeritxoarentzako, zorionak eta musu handi bat!



BERGARA Nora Larrea Gantxegi
Apirilaren 11n, 9 urte.
Zorionak, printzesa! Zure urtebetetze eguna primeran pasatu eta muxu erraldoi bat, etxeko guztien eta, batez ere, zure anaia Anerren eta Unaxen partetik.



BERGARA Ane Gartzia Perez
Apirilaren 11n, 9 urte.
Zorionak, Ane, txapelduna! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo handi bat etxeko guztien eta, bereziki, Iratiren, Noraren, Eriken, Eleneren, Jurgiren eta Anderren partetik!



OÑATI Izaro Bellido Gonzalez
Apirilaren 10ean, 4 urte.
Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo handi bat etxeko danon eta, bereziki, Unairen partetik.



BERGARA Isolda Beristain Laskurain
Apirilaren 9an, 5 urte.
Zorionak, potxola! Ondo-ondo ospatu zure eguna. Muxu handi bat, familia guztiaren partetik.



OÑATI Leire Maiztegi Lete
Apirilaren 8an, 5 urte.
Zorionak, sorgintxo, eta ondo pasatu eguna. Oñatiko eta Antzuolako familia osoaren eta, batez be, Maialenen partetik.



ANTZUOLA Elene Kone
Apirilaren 8an, urtebete.
Zorionak, Elene, familia guztiaren eta, batez ere, lehengusu-lehengusina Ainararen, Aitziberren, Iratiren eta Aitorren partetik.



OÑATI Maddi Oleaga eta Izar Berasaluze
Apirilaren 8an, 8 urte. Zorionak, neska! Ondo-ondo pasatu zuen egunean. Txokolatezko mosu bana, etxeko eta, bereziki, Aritzen eta Izaiaren partetik.



ARRASATE Ainhoa Markaide
Apirilaren 7an, urtebetetzea. Aitare partetik, musu handi bat emanez, zorionak!



BERGARA Garazi Arana Mendizabal
Apirilaren 7an, 7 urte.
Zorionak, neska handi! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Lagunen, etxeko danon eta, batez be, Markelen eta Aneren partetik, muxu potoloa!



OÑATI Goretti Zumalde Irazabal
Apirilaren 7an, 4 urte.
Zorionak, Goretti, etxeko danen partetik. Lau urtetxo aguro pasatu dira. Patxo handi ba.



BERGARA Maider eta Izaro Otero Prieto
Apirilaren 6an, 11 urte. Zorionak, printzesa! Oso-oso ondo pasatu zuen egunean eta urte askotarako! Aitare, amaren, Leieren eta Oxelen partetik. Besarkada handi-handi bat eta muxu pila!



OÑATI Erlantz Alberdi Elorza
Apirilaren 6an, 4 urte.
Zorionak eta ondo pasatu eguna, txapeldun, etxeko partetik.



OÑATI Kimetz Bellido Arza
Apirilaren 5ean, 4 urte.
Zorionak familiako txikiari. Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu erraldoi bat etxeko partetik!



ANTZUOLA Inar Cabo Mundiñano
Apirilaren 5ean, 10 urte.
Zorionak, Inar! Dagoeneko 10 urte! Handitzen-handitzen... Ondo ospatu zure eguna. Muxu handi bat, etxeko partetik.



ARRASATE Irati Arribas Abad
Apirilaren 5ean, 5 urte.
Zorionak, maitia, jada bost urte! Handi-handi egin zara! Muxu handi bat, etxeko guztien partetik, eta bereziki Ekaintxorena!



ANTZUOLA Maddi Alonso Berezibar
Apirilaren 5ean, 6 urte.
Zorionak, Maddi! Poz-pozik ospatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi-handi bat Xabiren, amatxoren eta aitatxoren partetik.



BERGARA Naia Unamuno Martinez
Apirilaren 4an, 8 urte.
Urte askotarako etxeko guztien eta, bereziki, Marenen partetik.



ARETXABALETA Amaïur Morillo Carretero
Apirilaren 4an, 5 urte.
Zorionak, Amaïur! Muxu asko etxeko eta, bereziki, osaba Gorkaren partetik. Segi hain alai izaten eta ez aldatu inoiz. Maite zaitugu.



OÑATI June Urzelai
Apirilaren 4an, 6 urte.
Muxu pilo-pilo bat zuretzat, printzesa!



BERGARA Maria Maiztegi Arruti
Apirilaren 4an, 4 urte.
Zorionak eta urte askotarako, potxola! Ondo pasatu zure eguna! Etxeko partetik.



OÑATI Maddi Blazquez
Apirilaren 4an, 9 urte.
Zorionak, Maddi! Azkenian heldu da zure eguna. Bi muxu potolo, etxeko guztien partetik!



BERGARA Enara Martin Unamuno
Apirilaren 4an, 4 urte.
Zorionak, Enara! Lau urte jada! Jarraitu horren alai izaten. Patxo handi-handi bat, maitte zaitugun danon partetik.



ARRASATE Aratz Sanzberro Iria
Apirilaren 4an, 2 urte.
Zorionak, txapeldun! Etxeko txikiak 2 urte! Ondo-ondo ospatu zure eguna eta patxo erraldoi bat, etxeko guztien eta, bereziki, Ilargiren partetik!



BERGARA Ainere Gallastegi Lete
Apirilaren 4an, 3 urte.
Zorionak, bihotza! 3 urte handi gure etxeko larroxiak. Ondo pasatu, familia guztiaren partetik.



ARETXABALETA Anje Herrasti Errarte
Apirilaren 4an, 3 urte.
Zorionak, Anje! Patxo handi-handi bat eta oso ondo pasatu zure egune, pirata!



ARRASATE Oihana Ezkurra
Apirilaren 4an, urtebetetzea. Epperraren kantua goizetik, txikiaren ferekak barren-barrenetik, pirata potxolo bat saltoka etxetik, danok beteko genituzke horrela urteak poz-pozik! Zorionak Anerxoren, Liharren, Itziarren eta Zekeren partetik.



BERGARA Anouk Muruamendiaraz Arevalillo
Apirilaren 4an, 7 urte.
Zorionak, maitia. Urkoren eta familia osoaren partetik, ondo pasatu eguna.



ARRASATE Sara Zabaloa
Apirilaren 3an, 2 urte.
Zorionak, maitia! Neska "handi-handia" egiten ari zara! Familia guztiaren partetik, muxu handi bat!



ARETXABALETA Irati Lapuerta
Apirilaren 3an, 30 urte.
Zorionak, Irati! Ondo pasatu urtebetetze eguna eta topera disfrutatu! Muxu handi bat, gure Zarautzeko larrosa politenari!



ARRASATE Unax Gonzalez Garcia
Apirilaren 3an, 9 urte.
Zorionak! Eskerrik asko gure altxorrik handiena izateagatik. Jarraitu holako jator eta alai! Besarkada eta musu handi-handi bat, etxeko guztien partetik.



BERGARA Ioar Gonzalez Fernandez
Apirilaren 3an, 6 urte.
Zorionak, maitia. Oso ongi pasatu zure egunian, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA Lander Urkia Lezeta
Apirilaren 2an, 4 urte.
Zorionak familia osoaren partetik, eta ondo-ondo pasatu zure egunean!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitarteak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurra> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
Irati Betegi Jausoro
Apirilaren 2an, 7 urte.
Zorionak, Irati!
Ondo-ondo pasatu zure egunien eta patxo handi bat etxeko danon partetik!



BERGARA
Haitz Alberdi Lasagabaster
Apirilaren 1ean, 7 urte.
Zorionak, etxeko guztien partetik!



OÑATI
Mattin Goitia Osinaga
Apirilaren 1ean, urtebete. Zorionak, maittaa! Urtetxo bat jada! Ondo pasatu zure eguna eta segi oin arteko moduko alaixa izaten, txikitxo! Patxo potolo bat, danon partetik!



ARRASATE
Lia, Izaro, Maie eta Araitx
Martxoan bete dituzue laurok 10 urte eta denok elkarrekin ospatu dugu. Zorionak!



ARRASATE
Naroa Balerdi Berezibar
Martxoaren 31n, 10 urte.
Zorionak, txapeldun! Ze ondo pasatuko dugun zure urtebetetzean, ikusiko duzu!



OÑATI
Eneko Azkargorta Marquez
Martxoaren 31n, 6 urte.
Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure eguna eta muxu pila bat etxekuen partetik. Bereziki asko maite zaituen Nahia eta Danel zure lagunak.



BERGARA
June Contreras Arakistain
Martxoaren 30ean.
Handitzen, handitzen... 6 urte! Zure alaitasunak zoriontsu egiten gaitu. Patxo handia familiakoena eta, batez ere, Eleneren partetik. Zorionak.



ARRASATE
Ihabar Nalda Gonzalez
Martxoaren 30ean, 6 urte. Zorionak, txapelduna! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Muxu potolo bat, zure familiaren partetik!



ARRASATE
Egoitz Fernandez Davila
Martxoaren 30ean, 5 urte.
Zorionak, pitxi! Egund zoriontsua izan dezazula eta ondo ibili urtebetetze jaiari! Musu asko 'colegui'-ren, amamaren eta izekoren partetik.



BERGARA
Naia Murgiondo Kortabarria
Martxoaren 30ean, 7 urte. Zorionak, Naia! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna, etxeko guztien eta, batez ere, Alaznaren partetik. Muxu handi bat!



BERGARA
Iker Llodio Rodriguez
Martxoaren 29an, urtebete. Zorionak, maittaa! Ondo pasatu zure lehen urtebetetze eguna. Jarraitu zaren ume alai, irribarretsu eta ederra izaten. Asko maite zaitugu! Aitaxo eta amatxo.



OÑATI
Danel Guridi Olalde
Martxoaren 29an, 5 urte. Zorionak, Danel kapitaina! Orain bai eskua bete-beteta, eman bostekoa! Ondo pasatu eguna eta patxo potoloa, etxeko danon partetik.



OÑATI
Argider Isasti
Martxoaren 29an, 39 urte. Zorionak eta urte askotarako, aittatxo! Muxu pila bat, etxeko danon partetik. Ask maite zaittugu.



BERGARA
June Sanchez de Paz
Martxoaren 28an, 3 urte. Zorionak, June! Aitaxoren eta amatxoren partetik! Patxo handi bat, printzesa!



OÑATI
Aimar Elorza San Miguel
Martxoaren 28an, 8 urte. Zorionak, Aimar! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu potolo bat, etxeko danon partetik.



ARRASATE
Ekain Alvarez Fuentes
Martxoaren 28an, 4 urte. Zorionak, maitia! Patxo handi bat, etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Aner Gracia Ezkurra
Martxoaren 28an, 2 urte. Zorionak, Anertxo! Oso ondo pasatu zure egunean! Muxu handi bat, etxekoen partetik!



ARRASATE
Irati Hernandez Iturbe
Martxoaren 27an, 11 urte! Zorionak, neskatila, eta urte askotarako. Ongi pasatu zure eguna. Patxo potolo bat, etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Ixone Garitaonandia Uriarte
Martxoaren 27an, 12 urte. Zorionak! Nahiz eta aurten 23 orduko urtebetetze eguna izan, garrantzitsuena ordu bakoitza topera gozatzea da! Mila muxu!



BERGARA
Ane Larrañaga Salaberria
Martxoaren 26an, 2 urte. Zorionak, "xalada"! zenbat barre egiten dugun zurekin... Ondo pasatu zure eguna eta jaso muxu handia: etxekoak eta batez ere June, Malen eta Uxue.



ARRASATE
Irai Reche San Idefonso
Martxoaren 26an, urtebete. Zorionak, *bitxito!* Oso ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzean! Urte askotarako! Oxelen eta Leirenen partetik, mila muxu!



ARRASATE
Ixone Zuriarrain Arkauz
Martxoaren 26an, 9 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure egunian eta patxo potolo-potolo bat, etxeko guztien partetik!



ARRASATE
Alaitz Leiba Foronda
Martxoaren 24an, 8 urte. Zorionak, printzesa! Ze ondo, oporretan! Patxo handi bat, familiaren eta lagun guztien partetik.



BERGARA
Elene Rodriguez
Martxoaren 23an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Muxu eta besarkada handi bat, familiaren eta bereziki, Nahiaren partetik!



ARETXABALETA
Unax Garcia Urreta
Martxoaren 22an, 10 urte. Zorionak, Unax, etxeko guztien partetik! Muxu potolo-potolo pila!



ARRASATE
Maite Fuentes Jorge
Martxoaren 21ean, 37 urte. Zorionak eta urte askotarako! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Patxo handi bat, lagun danon partetik!



ARETXABALETA
Oxel Urteaga Larrea
Martxoaren 20an, 6 urte. Zorionak, Oxel! 6 urte! Ondo pasatu eta patxo handi bat!



OÑATI
Juanito, Joseba eta Alaitz
Zorionak, hirukote, egun ederra pasatu geben hiruron eguna ospaketan.



ANTZUOLA
June Soto
Martxoaren 15ean, 9 urte. Zorionak, *guapa!* 9 urte jadanik! Primeran pasatu eguna etxekoen partetik eta muxutuak!



ARETXABALETA
Nahia de la Torre Munoz
Apirilaren 3an, 7 urte. Zorionak, Nahia, familia guztiaren partetik. Ask maite zaitugu. Muxuak!



ARRASATE
Izadi Bragado Alvarez
Apirilaren 12an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Zure bosgarren urtebetetzea zoragarria izan dadila! Muxu handi bana, etxekuen partetik!



ARETXABALETA
Elene Iztueta Etxenautia
Apirilaren 18an, 4 urte. Zorionak zuri, zorionak beti, zorionak Elene... Urte askotarako, printzesa! Ondo-ondo ospatu zure laugarren urtebetetze eguna. Patxo handi bana Araitzen, Doltzaren eta Pauleren partetik.



ESKORIATZA
Martin Berezibar Arevalo
Apirilaren 5ean, 11 urte. Zorionak, txapeldun! Jarraitu horrela. Zure familiakoena partetik.

KORAPILO

GOIENA TELEBISTA | KORAPILO

ZAPATUETAN ETA DOMEKETAN, 10:00 / 17:00



ESKER ONA

Francisco Celaya Urrestarazu

'Pako Triana'



2016ko martxoaren 17an hil zen, 82 urte zituela.

Francisco Celayaren familiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak. Lerro hauen bidez, banaka egin ezin izanagatik, sendiari babesa azaldu zioten eta hileta-elizkizunera agertu ziren denak eskertu nahi ditu.

Ondra meza zapatuan izango da, apirilaren 9an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2016ko apirilaren 8an.

ESKER ONA

Antonio Sanchez Villar

'Asturianua'



2016ko martxoaren 26an hil zen, Colombresen (Asturias), 85 urte zituela.

Emaztea: Carmen Gutierrez. Seme-alabak: Josefina eta Antonio Bouzas, Jose Antonio eta Carol Lago, Iñaki eta Izaskun Ezkurra, Martin eta Rosa Mari Garitaonandia. Bilobak, birlobak, anai-arrebak eta gainerako senideak.

Eskerrik asko doluminak adierazi dizkiguzuen guztioi, senideen izenean.

Adiorik ez, gero arte.

Bergaran, 2016ko apirilaren 8an.

ESKER ONA

Cristina Ugarte Lopez de Bergara

2016ko martxoaren 20an hil zen, 69 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2016ko apirilaren 8an.

OROIGARRIA

Iñaki Arietaleanizbeaskoa San Juan

2016ko martxoaren 30ean hil zen, 63 urte zituela.

Eskerrik asko Gabonetan gure haurrak hain zoriontsu egitearren.

Arizmendi Ikastola, Jose Arana guneko lantaldea. Aretxabaletan, 2016ko apirilaren 8an.

OROIGARRIA

Iñaki Arietaleanizbeaskoa San Juan

2016ko martxoaren 30ean hil zen, 63 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

Mirenen lagunak. Aretxabaletan, 2016ko apirilaren 8an.

OROIGARRIA

Pedro Elorza Aramburu

Almeneko lankideen partez, agur, Pedro. Ikasleen partez, agur, Don Pedro.

Eskoriatzan, 2016ko apirilaren 8an.

URTEURRENA

Itziar Barrena Zabaleta

2015eko apirilaren 9an hil zen, 66 urte zituela.

Urteurrenoko meza domekan izango da, apirilaren 10ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2016ko apirilaren 8an.

MEZA

Maria Dolores Artola Barrenetxea

Roman Moñuxen alarguna



2016ko martxoaren 24an hil zen, 90 urte zituela.

Seme-alabak: Maria Lourdes eta Juan Ramon, Roman eta Care. Bilobak: Adriana, Hasier. Zaintzailea: Izaskun Lorence. Anai-arrebak: Jose Mari (+), Luis (+) eta Maria Intxausti (+), Inaxi (+) eta Jose Luis Arrese-Igor (+), Maria Pilar (+) eta Santos Uriarte (+). Ezkon anai-arrebak: Jose Mari eta Elisabet Arzelus (+), Miguel (+) eta Mari Tere Uribealgo (+), Ana Mari eta Ramon Etxeberria (+), Rosarito eta Jose Neira. Ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren arimaren alde otoitz bat eskatzen dizuzete eta arren etor zaitetzela domekan, apirilaren 10ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian izango den oroigarri mezara.

Helbidea: Tolosako Uzturre Egoitza.

Aldez aurretik mila esker. Bergaran, 2016ko apirilaren 8an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: **NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.**maribi 617 44 21 55
BERGARA

HILDAKOAK

Maria Pilar Larrañaga Arana. Arrasaten, martxoaren 15ean. 57 urte.
Maria Pilar Etxeberria Zangitu. Bergaran, martxoaren 15ean. 85 urte.
Emiliano Frutos Muñoz. Arrasaten, martxoaren 16an. 88 urte.
Martzelina Matilde Osés Novales. Arrasaten, martxoaren 17an. 100 urte.
Francisco Celaya Urrestarazu. Oñatin, martxoaren 17an. 82 urte.
Txema Gomez Barriga. Bergaran, martxoaren 18an. 51 urte.
Pedro Gonzalez Duque. Arrasaten, martxoaren 19an. 91 urte.
Cristina Ugarte Lopez de Bergara. Bergaran, martxoaren 20an. 69 urte.
Esteban Lizarralde Errasti. Arrasaten, martxoaren 21ean. 72 urte.
Maria Dolores Artola Barrenetxea. Tolosan, martxoaren 24an. 90 urte.
Jose Maria Telleriarte Oregi. Bergaran, martxoaren 24an. 69 urte.
Antonio Sanchez Villar. Colombresen, martxoaren 26an. 85 urte.
Frantziska Sanpedro Urrutia. Oñatin, martxoaren 26an. 95 urte.
Jagoba Gomez Arrieta. Arrasaten, martxoaren 26an. 34 urte.

Ana Maria Ibartzabal Bidea. Arrasaten, martxoaren 29an. 81 urte.
M. Trinidad Urdaieta Uzkudun. Oñatin, martxoaren 29an. 86 urte.
Felisa Babon Rueda. Oñatin, martxoaren 30ean. 97 urte.
Iñaki Arietaleanizbeaskoa San Juan. Aretxabaletan, martxoaren 30ean. 63 urte.
Frantziska Altzola Murua. Arrasaten, martxoaren 30ean. 89 urte.
Maria Morales Sanchez. Arrasaten, martxoaren 31n. 89 urte.
Victoria Belaustegi Urionabarrenetxea. Arrasaten, martxoaren 31n. 73 urte.
Ulpiana Valverde Delgado. Arrasaten, apirilaren 1ean. 99 urte.
Frantzisko Uribetxeberria Zugasti. Arrasaten, apirilaren 2an. 86 urte.
Pedro Elorza Aramburu. Oñatin, apirilaren 3an.
Eusebia Garitano Eguren. Bergaran, apirilaren 4an. 50 urte.
Julian Fernandez Nieto. Arrasaten, apirilaren 5ean. 90 urte.
Trinidad Rayo Ignacio. Arrasaten, apirilaren 5ean. 94 urte.
Rufino Laskurain Askasibar. Bergaran, apirilaren 6an. 86 urte.

EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK

**Maribel eta Migel**

Maribel Herrera eta Migel Arregi 1981eko apirilaren 4an ezkondu ziren. "35 urte bete dituzte ezkondu! Zorionak urte hauek guztiak elkarrekin egoteagatik! Muxu handi bat, Aratzen eta Mainerren partetik".

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05edo eskelak@goiena.eus

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 160 €/ Goiena Klubeko bazkideendako 142 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 140 €/ Goiena Klubeko bazkideendako 125 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

- ARRASATE** Goiena: Otarora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
- BERGARA** Jardun elkarte: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.
- OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
- ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.
- ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

BERGARA Inteligentzia emozionala hizpide

Helduen eskolako irakasle Beatriz Sanchezek duela hiru urte ikasleen artean egindako galdeketa batetik ikerketa bat egin du inteligentzia emozionalaren gainean. Emaitzak azalduko ditu. Apirilaren 13an, Irizarren, 17:00etan

OÑATI Elikadurari buruz

Isabel Morenoren hitzaldia, *Ongietorria udaberriari* ekimenaren barruan. Apirilaren 13an, Pake Lekun, 17:00etan.

OÑATI Erabakitze prozesuari buruz

Jon Maiak egingo du berbaldia, Oñatiko Gure Esku Dagok gonbidatuta. Apirilaren 13an, kultura etxean, 19:00etan.

ARRASATE 'Amaiurreko gaztelua'

Juantxo Agirre Mauleonen hitzaldia, Zuztarrak Errotuz taldeak gonbidatuta. Apirilaren 13an, Kulturaten, 19:00etan.

BERGARA '30 arrazoi kirola egiteko'

Ariketa fisikoaren onurei buruz egingo du berba pedagogian doktore Luis Mari Zulaikak. Apirilaren 14an, Mariaren Lagundian, 18:00etan.

BERGARA Errenta aitortzea

Juan Carlos Gonzalezek egingo du berba. Apirilaren 14an, Miguel Altun, 18:00etan.

GAZTELEKUAK

BERGARA Murala margotu

Xabaloteko pareta bat margotuko dute gazteek. Egubakoitzean irudia aukeratuko dute, eta zapatuan eta domekan margotu. Aste bukaeran, gaztelekuan.

UMEAK

OÑATI 'Lucio bikaina!!!' tailerra

6-11 urte bitarteko umeek Lucio Muñoz artista ezagutu dezaten egingo dute tailerra. Arantzazuko erretaula izango dute hizpide. Bihar, zapatua, Topagunean, 10:30ean.

OÑATI Oñati abesbatzaren 50. urteurrena

Zilarrezko ezteiak ospatzeko Zaragozako Belchite herriko abesbatza gonbidatu dute. Bakarkako emanaldiak egin ostean, bi pieza interpretatuko dituzte elkarrekin: *My fair lady* eta *Ipharadisi*, hain justu ere. Bihar, zapatua, Agustindarren elizan, 20:00etan.



1080.PLUS

ARRASATE Ludoteka ibiltaria

Bedoñaben elkartuko dira, bizkotoa prestatzeko. Bihar, zapatua, San Andresen, 10:30ean.

OÑATI Ludoteka ibiltaria

Jostailuak sortuz eta *Slack line* jolasak, 3-10 urteko haurrentako. Bihar, zapatua, Portu kaleko plazan, 11:00etan.

ELGETA Euskal dantzen ikastaroa

Umeendako lehen saioa egingo dute Espaloian. Apirilaren 13an, Espaloian, 18:30ean.

IRTEERA

OÑATI 'Kukua eguna'

San Martingo baratzeak eta Olatotoko parkea bisitatzeko irteera. Amaieran, salda eta kuku-arrautzak eta txorizo pintxoak Lagun Leku elkartearen. Gaur, egubakoitza, San Martingo zubian, 10:30ean.

ELGETA Pagasari eta Ganekogorta

Lauzpabost orduko ibilbidea egingo dute. Etzi, domeka, Mendizaleen plazan, 08:00etan.

OÑATI Iturrigorri-Bellotza

Arantzazuko kondairak eta sinesmenak ezagutzeko irteera: *Ezkutuko bideak* delakoa. Aldez aurretik izena eman behar da *aran-*

tzazu@gipuzkoamendizmendi.net helbidean edo 943-78 28 94 telefonon.

Etzi, domeka, parketxetik, 09:00etan.

ELGETA Bisita lubakietara

Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroetik Intxortaraino joango dira. Izena emateko: 943-71 89 11 edo 943-79 64 63 telefonoetan edo *turismo@debagoiena.net* helbidean.

Etzi, domeka, Espaloian, 10:30ean.

BERGARA Atapuercako aztarnategira

Aztarnategian bisita gidatu egiteko eta Giza Eboluzioaren Museoa ezagutzeko aukera egongo da. Izena emateko azken eguna apirilaren 13a, Laboratorium museoan, 15 euro ordainduta. Izen-ematea, aipatutako lekuan.

ARRASATE Irteera eta sagardotegia

Arrasate eta Aramaio arteko ibilaldia ren ostean, Iturrietan bazkalduko dute. Izen-ematea, aipatutako lekuan.

ARRASATE Arlaban-Urkiola

GR-282 Arzaintzaren ibilbidearen bigarren etapa egingo dute apirilaren 24an. Izena emateko egunak: martitzenak eta eguaztenak, Besaideren bulegoan, 19:30etik 20:30era. Izen-ematea, aipatutako lekuan.

LITERATURA

ARRASATE Munduko kontalariak

Emanaldi bikoitza egingo dute: 11:00etan Kamel Zouaouik Argeiako eta Frantziako ipuinak kontatuko ditu; eta 19:00etan, May Gorostiagaren, Sandra Rossiren eta Bonai Capoterren txanda izango da. Euskal Herriko, Argentinako eta Ekuatore Gineako ipuinak kontatuko dituzte, hurrenez hurren.

Gaur, egubakoitza, aipatutako orduetan, ikastetxeetan eta Kulturaten, hurrenez hurren.

IKASTAROAK

ARAMAIO Ortuzaintza ekologikoa

Lurraren emankortasuna, landareen ekoizpena, landaketa teknikak, txandakako laborantzak eta gaixotasunen prebentzioa izango ditu hizpide Arantza Arriek. Sei saio egingo ditu. Hilaren 11n, udaletxean, 18:00etan.

ARRASATE Ilustrazio tailerra

Helena Azkarragaurizarren eskutik, 6-12 urte arteko umeendako ilustrazio tailerra. Bi saio egingo dituzte: hilaren 16an eta 23an. Izena emateko: *olgeta@olgeta.es* helbidea eta 943-04 84 46 edo 628 67 35 50 telefonoak. Izen-ematea, aipatutako lekuan.

ARRASATE Matrogym ikastaroak

Haurdun dauden emakumeendako ikastaroak, igerileku txikian eta 32 gradutan. Talde txikietan egiten da, baina oraindik badago lekua. Ikastaroa hilaren 11n hasiko da.

Izena-ematea, Musakola kiroldegian.

LEHIAKETAK

ARRASATE 'Arrazakeriaren aurkako eguna'

Argazki lehiaketa deitu dute Ekinek, Elkarheitzeneke eta Arrasateko Udalak. Lanak aurkezteko epea hilaren 15era arte luzatu dute. Adinaren arabera, bi sari banatuko dituzte: 12-18 urte artekoendako 100 euroko bonua eta 19 urtetik gorakoendako 150 eurokoa. Lanak *emakumeak@ekinamakumeak.eus* helbidera bidali behar dira. Lanak entregatzeko, goian aipatutako lekuan eta egunean.

DEBAGOIENA 'Debagoieneko pastoriek'

Debagoieneko Artzainen IV. Eguna harira, argazki lehiaketa deitu du Debagoieneko Pastoriek Taldeak. Artzaintza izango da gaia eta gehenez ere bina argazki aurkez daitezke. Domeka, apirilak 10, da lanak entregatzeko azken eguna, *debagoienekopastoriek@gmail.com* helbidean. Irabazleak herritarrek aukeratuko dute, Facebooken botoa emanez.

Lanak entregatzeko, goian aipatutako lekuan eta egunean.

KIROLA

ARRASATE Arrasate-Udalatz

Bigarren aldia egingo dute etzi, domeka. 300 korrikalarik parte hartuko dute. Etzi, domeka, Herriko Plazan, 10:00etan.

ARRASATE 'Arrasaso'

Ordu erdiko formazio saioa Arrateko kiroldegiko abonatuendako. Hilaren 11n, Musakolan, 17:00etan eta 19:00etan.

Goiena Klubeko apirileko zozketa

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezen sariak hauek dira. Hartu parte!



Toshiba disko gogorra

Parte hartzeko sariaren izena: DiskoGogorra



Liburua (3 liburu)
Bernardo Atxagaren Muskerraren bidea liburua.

Parte hartzeko sariaren izena: MuskerrarenBidea



Sarrerak
Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra



PARTE HARTZEKO:
E-postaz: kluba@goiena.eus
WhatsApp: KLUBA [Saria] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure delu pertsonalek Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketan honen helburu bakarria indarrean dagoen sustapena gestioatzeko da. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!

Dukienan prestatutako bildots-hankatxoak saltsan.



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 07

goienakluba

goiena

2016-04-08

AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR



Euskararen lurralde

Egunotan abiatu da Iparralde elkargo bakarrean biltzeko prozesua. Bi hilabetez 158 udalek eta ia 300.000 pertsonak aldeko edo aurkako bozka emango diote egitasmoari. Udalen erdia eta biztanleen erdia, bi mugak gaudituz behar ditu emaitzak. Iaz egin zen entsegu bat eta aisa lortu ziren bi gehiengoak. Aurtengo bozketan erabakigarria bide bereetik abiatu da, eta ustekabe handia litzateke azken erabakia ezetza izatea.

Beraz, bi hilabete barru egon daitezke erabakia hartuta eta 2017aren hasierarekin sortuko litzateke elkargo berria. Lehen aldiz historia modernoan iparraldeko euskaldunak eta euskal herriak egitura politikoa bakarrean bilduko dira. Eta hau oso albiste ona da, besteak beste, euskararentzat.

Izan ere, egitura berria izango da hegoaldeko herri erakundeen pareko solaskide bat, hizkuntza politikan esku-menak izango dituen eta diru baliabideak ere bai. Honenbestez, ipar-hego lankidetzaren egonkorra gauzatu ahalko dira euskararen sustapenerako, eta baita mugaz gaindiko hiztun komunitatea sendotzeko estrategiak.

Nafarroan ere aldaketa hasia denez, eskura daukagu euskararen lurralde osoa lankidetzan jartzeko aukera.

BUKATZEKO

Buruhandiak artelan bilakatuta

- ▶ 'Burugabekeriak' erakusketa ikusgai izango da Aretxabaletako Arkupe kultur etxean hilaren 30era arte
- ▶ David Tavares gasteiztarraren kartoizko buruhandi, maskara eta panpinekin egindako bilduma da

XABI GOROSTIDI | ARETXABALETA

Herrietako jaietan ezinbestekoak diren buruhandiak artelan bilakatu daitezkeela ikus daiteke Aretxabaletako Arkupe kultur etxean zabalik dagoen *Burugabekeriak* erakusketan.

David Tavares artista gasteiztarrek azken urte eta erdian egindako kartoizko buruhandi, maskara eta panpinak ikusteko aukera egongo da bertan.

Erakusketa dinamikoa

Erakusketa publiko guztien zuzenduta egon arren, bereziki umeentzat eginda dago. Hori dela eta, bere artelanak erakustez gain, umeek haiekin jolastu eta gozatzeko pentsatuta dago. Bertaraten direnek buruhandiak soinean jarri eta argazkiak ateratzeko aukera izango dute, horretarako ezarritako *photocall*-ean. "Ikusleei une batez buruhandi bilakatzeo aukera eskaini nahi nien, pertsonaia arraro hauen tripa ikusteko", adierazi du Tavaresek.

Esperientzia borobiltzeko, buruhandiei bizia eman eta umeek korrikaldi batzuk egiteko aukera eman diete. Nahiz eta inongo jaiegunik ez izan, buruhandiak gora eta behera aritu ziren Aretxabaletako plazan zehar, bertako umeen gozamenerako.



Buruhandietako bat Aretxabaletako umeekin jolasean. | XABI GOROSTIDI



Buruhandietako bi. | XABI GOROSTIDI

Hasierak

Semearentzat kartoizko figura txikiak egiten zebilela piztu zitzaion afizioa, eta handik gutxira egin zuen lehen buruhandia. "Paperarekin eta kartoiarekin lan egitea oso dibertigarria da, eta birziklagarria eta merkea ere bai". Erakusketan ikus daitezkeen lanetako batzuk bere

azoko fruta-dendek eta beste hainbat dendak botatuko kartoi eta egunkari zaharrek eginak daude. Bada, pixkanaka, sakontzen joan zen, buruhandi sofistikatutakoak lortzeko asmoz, eta ikastaro bat egin zuen 2014an Navatako Ventura & Hosta erraldoi eta buruhandien tailerlean (Girona).

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialak

www.mondragon.edu/gmh
gmh.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Ate irekiak

apirilak 13 (asteazkena) 18:00
maiatzak 21 (larunbata) 11:00

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

-2016-2017

www.mondragon.edu/gmh



LABORAL KUANTZAKO



MONDRAGON UNIBERTSUTATEA